


"Guraso alkoholikoa duenak bikote alkoholikoa topatzeko joera du"

Arantxa | An-Alon elkarte | 7



MIREIA BIKUNA

Espeleologia, lurpean aurkikuntzak egin eta ondare bihurtzeko | 2



Abesbatzen Topaketaren 25 urteak ospatu dituzte | 29



Sagastume omendu dute, soinua jotzen aitzindari izateagatik | 30

SANTIAGO RAMIREZ AZKARRENA

2.26.00 denbora behar izan du Lizarte taldeko kanariarrak Gorlara igotzeko. Bergarar onenaren saria Mikel Aristik jaso du. | 22



Ramirez kabarekin garaipena ospatzen, Jesus Elortza, Pello Garitano eta Lauri Askargortaren begiradapean. | JOSETXO ARANTZABAL

Ekainaren 18an irekiko dute Debagoieneko ospitale berria

Ohe gehiago izango ditu, eta zerbitzu berri eta hobekak | 4



Ospitale berria. | GOIENA

Kiroldegi berria hizpide gaurko Aretxabaletako osoko bilkuran

Bere kudeaketaz ze enpresa arduratuko den erabakiko dute | 19

Bergarako udal gobernuak gaur onartuko du atez atekoa | 16

Mundumira antolatzekeo boluntarioak behar dira

Egubakoitzean batzarra egingo dute Leintz Gatzagan | 11

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Iritxi dira

MARTXOKO SARIAK

ETA ZURETAKO BADIRA?

► Zoaz 21. orrialdera.

Espeleologoak: lurpeko kirolari eta langile saiatuak

- ▶ Aloña Mendi Espeleologia taldeak baditu 44 urte
- ▶ Azken bi urteotan, galeria berriak topatu dituzte
- ▶ Aurkitutakoa neurtu, deskribatu... behar izaten dute

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Lurpean egiten dute euren kirola, eta emaitzak guztiokin konpartitzen dituzte, ondare bihurtzen baitira. Espeleologoak dira, luraren erraien esploratzaileak eta bide-erakusleak, askotan, beste inork urratu bako lurrak, leizeak eta galeriak deskubritzen dituztelako.

Debagoienak badu zertaz harro egon; izan ere, Gipuzkoako espeleologia talde handienetarikoa eta aktiboetariko bat dauka. Oñatin, Aloña Mendiko Espeleologia taldea (AMET) 1968an sortu zen, eta aurten 15 lagun daude taldearekin federatuta. Inguruko herrietan ez dago beste espeleologia talderik, eta Gipuzkoan ere, oso gutxi daude.

Espeleologiaren helburua lurpeko barrunbeak topatzea eta esploratzea da, baina hori baino askoz gehiago da: zulo horiek ikertu, topografiatu, ikuspuntu guztietatik deskribatu eta bertan topatzen den guztia katalogatu egin behar dute espeleologoek.

Aizgaingo kobarik luzeena

Lur azpian badago oraindik zer topatu. Horrela erakusten dute Aloña Mendiko eta Besaide taldeko kideek azken bi urteotan egin dituzten aurkikuntzek. Ura-ri edo urak utzitako arrastoari jarraituz, besteak beste, Iruaxpe III.a bataiatu duten koba topatu zuten. Harkaitzean zulo sikua geratzen zen, baina ikusten zen urak utzitako aztarna. "Koba estutu egiten zen, eta justu sabaia-aren eta zoruaren artean putzu bat sortzen zen. Bi mahuka urez bete, putzuan jarri eta, presioaren bidez, hiru orduan putzua dezentente jaitzita zegoen", gogoratzen du Aloña Mendiko Espeleologia taldeko kide beterano Santi Ugartek. Horrela, putzura sartu ahal izan ziren espeleologoak. Dena topografiatu eta esploratu zuten eta,

gaur egun, Aizgaingo kobarik luzeena da.

Aloña azpian, Urzulon, beste 3 kilometro galeria topatu zituzten. Haize handia irteten zen zuloa izan zen abiapuntua, izan ere, "haizeak esan nahi du beste irteera bat edo galeria-sare handi bat dagoela". Baina ezin ziren handik sartu, sarrera posible bat estuegia zelako eta bestea ur-putzua zelako. Bada, Laurent Richard kidea ur-putzutik sartu zen, apnean, arnasari eutsita, eta beste aldera pasa zen. Horri jarraituta, beste bospasei behaketa egin zituzten eta 3 kilometro topatu zituzten. Eta oraindik, esploratu bako alboko galeria asko daude.

Urzulorekin lotutako proiektu bat aurkeztu dio Ura agentziari Euskal Espeleologo Elkargoak,

eta Aloña Mendiko Espeleologia taldeak ere parte hartzen du: "Kolorazio batzuk egingo dira, Urzuloko ura zehazki nondik datorren jakiteko", azaltzen du Santi Ugartek.

Eta Arrasaten, Meatzerrekan, 1,5 kilometro galeria topatu dituzte, ur-hartune batetik sartuta. Zati baten, lehendik jendea ibili izanaren arrastoak daude. Galeria-sare hori topatu dute, baina oraindik ez galeriek non bat egiten duten.

Bestalde, esploratuta zeuden leizeetara bueltatu dira, eta gauza berriak topatu dituzte edo lehen ailegatu bako sakonera edo distantziara ailegatu dira.

Aitzindaria izatearen prezioa

Ugartek dioenez, "jende asko dago lurrazpiko turista edo mendizale izateko gertu". Baina denok gozatzeko, lehenengo aztertu, topografiatu eta katalogatu egin behar da topatutako guztia. Lan izugarria da hori eta, gainera, askotarik zertxobait, gutxienez, jakin behar da, leizea katalogatzeko. Ugarteren hitzetan: "Leku berri baten sartzen dena leku horren testigua da, eta horrek lana ere badakar: hezurak topatzen baditu, jakinarazi egin behar du; kartografiatu egin behar du, GPS bidez kokatu, deskribatu egin behar du, topa ditzakeen espezieak...".

Gutxi batzuk bakarrik daude hori dena egiteko gertu; horregatik, Ugarteren esanetan, "kirol hau beti egon da krisi latzean". EAEn, ez dauka kirol modalitatekerik ere. Gainera, "askotan sufritu egiten dugu: hotzak egoten gara, leku estuetan ibiltzen gara eta ohiturarik ez duena larritu ere egin daiteke. Baina jakin-mina, topatzeko nahi hori behar duzu barruan. Eta gauza berriak topatzeko aukera, gaur egun, bakarrik espeleologiak ematen du".

ESANAK

"Leku berri baten sartzeak lana dakar: kartografiatu, GPS bidez kokatu, deskribatu..."

"Gauza berriak topatzea soilik espeleologiak ahalbidetzen du, baina jakin-mina behar da"

SANTI UGARTE | ESPELEOLOGOA



Urzulo koban ateratako argazki ikusgarria. | ALOÑA MENDI-SATORRAK



Espeleologia taldeko Iker Mugartza, Laurent Richard, Santi Ugarte eta Joseba Dorado. | J



Saratxon, behatzen hasteko gertu. | ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA



Arlabango koban. | ALOÑA MENDI



Galdamesko mendietako leize baten behera. | ALOÑA MENDI



OSETXO ARANTZABAL



MUNGIA
UDALA



MUNGIA SLOW CITY

Mungia tradizioak mantentzen dituen herri moderno eta jantzia da, hirigune ederra duen Uribe –butroeko eskualdeko zentro eta bihotza da. Herri dinamikoa, herritar eta elkarten partehartze handiari esker, bere izaera tradizionalari eutsita, herritar guztion kohesioa lortu du. Elkarren arteko errespetuan eta tolerantzian oinarritutako herria dugu Mungia, bisitariei harrera ona egiten dakiena. Mungiaren atak zabaldu nahi dizkizuegu slow city ahaztezina ezagutzeko.



ZER DA SLOW CITY?

Gaur egungo mundu kaotiko honetan gero eta azkarragoa gertatzen da gure bizimodua. Slow City mugimendu hau slow food mugimenduaren ondorioz sortu zen eta mugimendu kontrakultural honek bizimodu lasaia eta naturala aldarrikatzen du. Mungiak prisarik gabe bizitzeko baldintza egokien bilatzea helburu duten hainbat neurri hartu ditu: erdialdean ezin dira kotxeak ibili, igandeetan dendak itxita daude, janari geldoarekin bat egiten duten jatetxeak bultzatzen ditugu, ezin dugu 20 km orduko abiadura gainditu, barra arkitektonikoak kendu ditugu, ingurunea errespetatzen dugu, patrimonio kulturala

babesten dugu, bizitza familiarri garrantzia ematen diogu...

Etorri Mungia Slow City ezagutzera! Mungia zuretzako herria!

Mungia Slow Citya ezagutzeko bisita gidatua proposatzen dizuegu, Mungiak dituen monumentu interesgarrienak bisitatuz: Andra Mari eliza, San Pedro eliza, Agirre Jauregia, Torrebillera dorretxea, alkartasun iturria, Landetxo Goikoa bizkaiko baserri zaharrena etabar luzea.

Gainera bazkaria barne! Euskal bazkari tradizionalaz gozatzeko aukera ematen dizuegu: indabak sakramentuekin, entsalada, postrea, ura, ardoa eta ogia barne.

**Den-dena 20 € pertsonako
Ez galdu aukera!!**

**INFORMAZIO ETA
ERRESERBAK:**

Erreserba egiteko ondoko telefonora deitu:

- 94 674 00 61
- olentzero@izenaduba.com

**Minimo 20 pertsonako taldeak
20 € / pertsona**

Haxixa, kokaina eta speeda trafikatzera egotzita eskoriatzar bat atxilotu du Ertzaintzak Arrasaten

► 30 kilo haxix, 725 gramo kokaina eta anfetamina, eta 176.000 euro atzeman dituzte

► 38 urteko eskoriatzarra atxilotu dute Debagoiengan drogekin trafikatzera leporatuta

ENEKO A. / MAIDER A. | ARRASATE

Eguen arratsaldeko lehen orduan atxilotu zuten, Arrasateko San Andres auzoko Navas de Tolosa kalean 38 urteko eskoriatzarra. Bergarako ertzain etxeko agenteak susmagarriaren atzetik zebiltzan

aspaldian. Hala, eguen eguerdian atzeman zuten Eskoriatzako bere etxetik irten zenean, eta jarraitu egin zioten. Susmagarria Arrasateraino abiatu zen autobusez. Behin Arrasaten, San Andres auzoan, auto batean sartu eta

barruan egon zen minutu batzuetan. Autotik irtetera zihoanean atxilotu zuten ertzainek. Atxilotzeko momentuan, ordea, antxintxika ihes egin zuen eta bortizki aritu zen ertzainen aurka, Herrizaingo Sailaren arabera. Atxilotuak 200

bat poltsatxo, speed eta kokainazkoak, zeramatzan gainean; baita kilo erdi haxix, eta labana bat ere.

Atxilotetan aritu ziren hiru ertzain zaurituta gertatu ziren eta ospitalera eroan behar izan zituzten zauriak sendatzera.

Droga eta 176.000 euro

Arratsalde, epailearen baimenaz, atxilotuaren etxea arakatu zuten Eskoriatzan ertzainek. Han aurkitu zituzten 30 kilo haxix, 725 gramo kokaina eta speed, eta 176.000 euro inguru. Herrizaingo Sailak aditzera eman duenez, Ertzaintzak ikerketa irekita dauka eta atxilotua epailearen aurrera eroango du diligentziak egin ostean.

Ertzainek hilabeteak zeramatzaten atxilotuaren atzetik, Arrasateko San Andres auzoko hainbat tabernatan droga trafikoa gora egin zuela jabetuta; hala jakinarazi du Ertzaintzak, Goiena Taldera bidalitako prentsa oharraren bitartez.



Ertzaintzak atxilotuari atzemandako droga eta dirua. | GOIENA



Bergarako ertzain-etxean batu dituzte droga eta diru guztia. | GOIENA

Ekainetik aurrera Debagoieneko ospitaleak zerbitzu berriak eta hobekuntzak eskainiko ditu

Ekainaren 18an zabalduko ditu ateak Debagoieneko ospitale berriak

M.A. | ARRASATE

Arrasateko egungo ospitalearen ondoan dago kokatuta eraikin berria eta hiru faseetan joango dira irekitzen. Helburua da zerbitzu berriak eta hobekuntzak eskaintzea, modu erosoagoan.

Lehenengo fasean, eraikin berria inauguratuko dute: aurten ekainaren 18an. Bigarren fasean, egungo ospitalearen eraikina berregituratuko dute, eta espero dute lan horiek 2014ko uztaileko bukatzea. Eta bigarren fase horretan baita ere ospitalearen eraikinaren atzean dagoen eraikina bota egingo dute.

Hirugarren eta azken fasean, Arrasaten kokatuta dagoen Debagoieneko ospitale berria handituko dute. Horretarako, gaur egungo ospitalearen eraikinaren atzean, eraikin berri bat egingo dute eta hori lehenengo fasean zabalduko duten ospitale berriari gehituko zaio. Hirugarren fase horretarako, baina, ez dute epeirik jarri. Beharren arabera erabakiko dute handitze hori egitea beharrezkoa den edo ez. Proiektu horretan, gainera, aurreikusitako autoendako 204 apar-kaleku egitea, orotara.



Debagoieneko ospitale berria. | GOIENA

Zerbitzu zabalagoa

95 ohe izango ditu ospitale berriak, egun baino 23 gehiago. Haur-ama unitate berria zabalduko dute eta bertan 17 ohe izango dira. Operazio gelak lautik seira gehituko dira eta erditzeko gela bat gehiago ere egongo da. Erditze naturalak ospitalean izateko hobekuntza garrantzitsuak ere egingo dituzte. Arnas eta Digestio Endoskopioen Unitate berria ere zabalduko dute. Erradiologia gelak guztiz digitalizatuko dituzte eta

kirurgia urologikoaren zerbitzua ere gehituko dute. Horrez gain, ospitalizazioko alternatibak egingo dira –orain bost postu daude eta gero hamar egongo dira– eta larrialdietakoak ere zortzitik hamabostera igoko dira. 2013an bularreko minbiziaren jarraipena eta kimioterapia egiteko zerbitzuak ere gehitu nahi dituztela azaldu dute.

Joseba Egibar GBBko presidente izendatu dute berriro ere

GOIATZ A. / MAIDER A. | ARRASATE
Egibarrek %75eko babesia jaso du EAJko Gipuzkoako presidentetzarako. Debagoiendar bat izango da bere taldean –Aretxabaletako Jose Miguel Uribarren– eta zuzendaritzako kide izaten jarraituko du Maria Eugenia Arrizabalagak –zumaiarra izatez, eta egun zinegotzi Antzuolan.

Horiekin batera, GBBko zuzendaritzan izango dira Bakartxo Tejeria, Idoia Elorza, Jon Jauregi, Xabier Arruti, Idoia Yeregi, Lourdes Jauregiberri, Jokin Bildarratz, Irune Berasaluze, Xabier Barandiaran, Iñaki Txueka, Bittor Oroz eta Maite Peña;

lau urterako aukeratu dituzte. Joseba Egibar izango dute presidente; 1987tik da Egibar GBBko buru, 2000-2004 urte arteko etenarekin.

Arabian Xabier Agirre, Bizkaian Andoni Ortuzar eta Nafarroan Manu Aierdi hautatu dituzte.

Lehendakariagaia

Lurralde batzarrak eginda, EBB osorik berriroko duen prozesua amaituko da, eta EAJren organo gorenaren lehen egitekoa Eusko Jaurlaritzarako lehendakariagaia izendatzea izango da. Gutxienez, bi hilabete iraungo du prozesuak.

Gasolindegiz-zerbitzuguine berria ireki du Gureak-ek Osintxu auzoan, Soraluzerako noranzkoan

Gureak Taldearen eta Repsolen arteko elkarlanaren fruitua da gasolindegiz-zerbitzuguine berria. Hilaren 21ean, eguaztena, zabaldu zuten Osintxu auzoan, GI-627 errepidearen 50. kilometroan, Bergaran. Behan, auto-garbitzeta zerbitzua eta maskotak garbitzeko leku berezi bat jarri dituzte. Produktu-dendari eta kafetegiari dagokienez, honako ordutegia izango dute: 06:00etatik 22:00etara. Bezeroei zuzendutako promozio berezia martxan dute, gainera: 40 eurotik gorako gastua egiten duenak ogi egin berria eramango du opari.

Mirentxin taldea sortu dute Oñatin, dispertsioak sortzen dituen "kalteak" arintzeko

- ▶ Presoen senideak Lyon-era eramateko sortu dute
- ▶ Hilero asteburu batez bi gidari joango dira, bolondres

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Euskal presoen senideei errepideko orduak arintzea helburu duen Mirentxin taldea sortu da Oñatin. Euskal Herrian zazpi herritan daude halako taldeak; orain Oñatin ere bai. Oraingoz 20 bat lagunek osatzen dute baina ateak zabalik dituzte lagundu gura duten guztiendako. Diru-laguntzekin edo zuzenean gidari moduan parte hartu gura dutenek taldeko kideekin harremanetan jar daitezkeela adierazi dute, honako telefono zenbakietara deituta: 679 526 422 (Iban) eta 692 714 702 (Ibon).

Taldearen helburua zein den honela azaldu dute: "Oñatiko lagun talde batek euskal preso politikoen sakabanaketaren ondorioz presoen senide eta lagunak pairatzen duten zeharkako kaltea ikusita, Mirentxin taldeak dis-

pertsio politika honek pertsonengan dituen ondorioak gutxitu eta haiei sufrimendu hau ahal den heinean goxatu nahi dugu".

Horretarako honako konpromisoa hartu dute: hilero asteburu batez bi taldekidek gidari lanak egingo dituzte Lyon-era (Frantzia) bertan dauden zortzi presoak bisitatu nahi dituzten senide eta lagunak eramateko: "1.000 kilometro, 12 ordu inguru errepidean, bisita egin, eta buelta. Beste 1.000 kilometro, beste 12 ordu, eta errepideak dituen arriskuak berriz", diote.

"Ahal den eta erosoan" joatea Bidaia "luzeak" izateaz gain, "garestiak" ere badirela jakinarazi nahi izan dute Mirentxin taldeko kideek: "Guztira egun eta erdi errepidean, 2.000 kilometrotik gora, eta kostu ekonomiko

itzela: ordainsariak, gasolina, motela, kafeak... Astero astero errepikatzen den errutina garestia, senitarteko eta lagunak diren haiek bisitatzeko". Senide eta lagunei errepidea ahalik eta eramangarrien egitea da Mirentxin gidarien helburua: "Mirentxin gidariok hartuko dugu furgonetaekin gidari lanak egitearen ardura, gure helburu bakarra senitarteko zein lagunak ahal den erosoan joatea izanik. Bidaia gogorak dira, arriskuz eta urduritasunez beteriko bidaiak, baina baita ilusioz, elkartasunez eta maitasunez beteriko bidaiak ere".

Era berean, orain gutxi sortu den Mirentxin taldeak elkartasuna eta euren "babes osoa" adierazi gura die "mendeku-politika" gogorren ondorioak pairatzen ari diren guztiei.



Iban Martinez eta Ibon Ugarte. | I.M.

IBAN MARTINEZ ETA IBON UGARTE | MIRENTXIN GIDARIAK

"Aste bukaera baten 2.000 kilometro egiten dituzte ordubeteko bisita baterako"

Iban Martinez eta Ibon Ugarte oñatiarrak Mirentxin taldeko gidariak dira. Eurekin egon gara taldearen helburuez berbetan, besteak beste.

Zertarako sortu duzue Oñatin Mirentxin taldea?

Lyon-eko espetxera hegazkinean joateak, adibidez, 300 euro inguruko gastua suposatzen du. Horri gehitu behar zaio joan-etorritako dauden konbinazio txarrak. Eragozpen handiak dira, dispertsio politikak zuzenean eragiten dituenak.

Bada, eragozpen eta kalte horiek guztiak, bisita egin ahal izateko gaintzea ezinbestekoak diren horiek, arintzeko sortu dugu, bolondres, Mirentxin taldea. Ezin dugu ahaztu aste bukaera baten 2.000 kilometro egiten dituztela ordubeteko bisita bat izateko.

Taldea eratu duzue, baina hasi al zarete bidaiekin?

Bai. Eta aipatzekoa da azken bi hilabeteetan egin dugun bidaietan jende

oso edadetua edo oso jende gaztea eraman dugula. Hau da, 80 urtetik gorako emakume bat edo hiru eta hamar urte artean dituzten seme-alabak.

Hilero bi gidari zaudete bisita bat egiteko. Ba al duzue bisitak handitzeko asmorik?

Oraingoz aste bukaera bat egiten dugu hilero baina aurrera begira jende gehiago lortzen badugu, bisitak areagotzeko asmoekin gabiltza. Furgoneta bakoitzean bi gidari joaten gara eta zazpi senide. Egun 22 gidari gaude baina espero dugu kopurua handitzea.

Bidaia luzeak eta garestiak direla diozue. Mirentxin-ekin joanda ere gastuak handiak izango dira...

Hala da. Gasolinan 350 euro dira eta ordainsarietan ere diru asko joaten da. Bidaia presoaren eta senidearen artean ordaintzen dute. Baina beste gauza bat da: lagunartean joaten gara, geldialdiak egiten ditugu...

Hiru autobus Debagoienetik Caja Laboral ikustera, giro ederrean

Arizmendi ikastolako Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikasle, irakasle eta gurasoek Caja Laboral Baskonia eta Unicajaren arteko partidua ikustera joan ziren joan den martxoaren 25ean. Adierazi dutenez, giro ederrean ibili ziren eta gainera, etxeko taldeak irabazi egin zuten. Hiru autobus irten ziren Debagoienetik.



ARIZMENDI IKASTOLA

Sara eta Lesaka lotuko ditu apirilean egingo duten Gazte Martxak

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Jalgi Hadi Garaipenera izenarekin aurkeztu dute aurtengo Gazte Martxa. Apirilaren 6tik 7ra egingo dute, Saratik Lesakara. Bergarako gaztetxean egubakoitzean aurkeztu zuten ekimena eta helburuen berri eman. Gainera, aurten, Nafarroako konkistaren 500. urteurrena izango dute oinarri aldarrikapenek.

Txartelak salgai 25 eurotan

Unai Arantzabal gazte independentistak azaldu dizkigu xehetasunak: "Bidasoa aldeko bi mugak lotuko ditugu, Saratik Lesakara; apirilaren 8an, Iruñan Aberri Eguna ospatuko da". Eskualde mailan autobusak antolatuko dituzte. Txartelak martxoaren 31ra arte egongo dira salgai 25 eurotan.



Martxaren aurkezpena, Bergarako gaztetxean. | JOSETXO ARANTZABAL

Erizaintzako laguntzaileendako jardunaldia bihar

Arizmendi ikastolako Lanbide heziketak antolatuta, bereziki erizaintzako laguntzaileak izan gura duten ikasleendako jardunaldia egingo da bihar. *Pertsonen eustea: errealitatea eta alternatibak* du izenburu aurten hirugarren edizioa izango den jardunaldiak. Egun osorako egitaraua prestatu dute, 09:00etan hasita. Kulturaren izango da.



Jose Mari Aldekoa, Patxi Lopez eta Bernabe Unda, hitzarmena sinatu ondoren, Punen (India). | EUSKO JAURLARITZA

Enpresak Indian ezarri ahalko dira Mondragonekin

Korporazioak 166.000 m² utziko ditu horretarako

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak eta Mondragon Korporazioak erabateko sintonia erakutsi dute Indian, eta biek egin duten hitzarmenean islatu da hori. Hitzarmenaren bidez, korporazioaren kanpoko EAEko enpresak Mondragon Punen egiten dabilen industrialdean ezarri ahal izango dira. Horretarako, industrialdeak dene-

tara izango dituen 166.000 metro koadroetatik 44.000 erabiliko dira. Hain zuzen, Lopez lehendakaria Indian egiten dabilen enpresamisioren barruan egin zuten hitzarmena, eta industrialde hori bisitatu eta gero.

"Gure enbaxadore onena da"

Bernabe Unda eta Jose Mari Aldekoak sinatu zuten hitzarme-

na, Lopez ere bertan zela. Iaz bi erakundeek Txinan egin zuten hitzarmenaren helburu berbera du honakoak.

Lehendakariak horrelako hitzarmenak garrantzitsuak direla esan zuen, eta Mondragon gorai-patu zuen, hitz hauekin: "Beste modu batera Indiako merkatuan sartzea zail izango luketen gure enpresa askori aukera hori ematen

ESANAK

"Gure lehiakide direnekin ere batera lan egin beharko dugu"

JOSE MARI ALDEKOA
MONDRAGON KORPORAZIOKO PRESIDENTEA

DATUA

422

PROIEKTU

laz, euskal enpresak nazioartera irten zitezen laguntzeko 422 proiektu egin zituen SPRIK.

die hitzarmenak. Indar handiz sartu ahal izango dira orain, atzerrian dugun enbaxadore oneneko baten eskutik, gainera".

Industria sailburu Unda eta Mondragoneko presidente Aldekoak krisian enpresak leku askotan egoteak duen garrantzia azpimarratu dute. Aldekoak hauxe esan zuen: "Gure lehiakideekin batera ere lan egin behar dugu".

Euskadi taldea

Atzerrian egin nahi duen industria eta ekintza politikaren "adibide" da hitzarmena Eusko Jaurlaritzarendako. Horren oinarria ahaleginak batzean datza, eta horri "Euskadi taldea" deitu dio lehendakariak: "Gaur, euskal enpresen lehiakidea kanpoan, munduan dago, eta hara irten behar dira saltzera. Baina horretarako, denok batera jardun behar dugu, taldean".

Eroskik beste 4.000 lan-bazkide ditu Espainian

Eroskik Espainian dituen hipermerkatu eta supermerkatuetako 4.142 langile bazkide kooperatibista bihurtu dira, langileek beraiek onartutako planari jarraituz.

Eroskiko lehendakari Agustin Markaideren hitzetan, "benetan pozteko motiboa da eredu kooperatiboa Eroski Taldeko langileen artean hedatzen jarraitzea. Langileen borondatekoa funtsezkoa izan da aldaketarako, beraien erabakiz ekonomikoetan parte hartzen hasiko baitira, eta gure enpresa eredu bazkide langileen figurari berez dagokion protagonismoa lortu baitute".

Santiago Niño Becerra: "Beste eredu ekonomiko bat dator"

Berrehun lagunetik gora izan ziren Ekonomisten Euskal Elkargoak antolatuta Santiago Niño-Becerrak eguaztenean Donostian egin zuen hitzaldia entzuten. Ekonomia Egituraren katedradunaren arabera, Espainian krisiak luzaroen iraungo du, bese BPG txikitzen joango da gutxienez 2050era arte, eta langabezia estruktural handia izango du. "Raxoik prestatuta dituen aurrekontuekin, Estatuaren gastua izugarri jaitsiko da eta sarre-ra publikoek gora egingo dute; hori guztia defizit publikoaren maila %5,3ra jaisteko 2012ren amaieran". Baina, Niñok dioenez, "ezinezkoa" izango da defizita horrenbeste jaitea.



Melissa Young eta Mark Dworkin, iaz Arrasaten. | GOIENA

Kooperatiben gaineko dokumental amerikarraren zazpi minutu sarean daude

L.K. | ARRASATE

Iaz, Ameriketako Estatu Batuetako Moving Images ekoiztetxeeko kideak Arrasaten izan ziren, kooperatiben gaineko dokumental bat prestatzen, eta aurrerapen bat Interneten dago. Lan hori, *Change Shift: Putting Democracy to Work* izenburuarekin, AEBetako PBS kateak emango du uztailean, baina zazpi minutuko aurrerapen hori euren webgunean (*shiftchan-*

ge.org) zintzilikatu dute Mark Dworkin eta Melissa Young egileek; Vimeo webgunean ere ikus daiteke (*vimeo.com/38342677*).

Ilusioa berpiztu

Aurkezpenean, hauxe diote: "Banku eta negozio handiekin askok ilusioa galdu duten garai baten, langileak jabe izatea benetako soluzioa izan daiteke langileendako eta gizartearendako".

Nahikari Etxabari | Energiaren Euskal Erakundea

"Modu eraginkorrean gidatzea inertziak aprobetxatzean datza"

L.K. | ARRASATE

Energiaren Euskal Erakunde (EEE) Nahikari Etxabarriren iritziz, "oso erraz ikasten da modu eraginkorrean gidatzen".

Zertan datza modu eraginkorrean gidatzea?

Abiadura murriztu barik, inertzia aprobetxatzean eta erregai gutxiago kontsumitzean.

EEEk hori erakusten du. Zeini zuzendutakoak dira zuen ikastaroak?

Gida-baimena duten guztioi. Denok ikas dezakegu eta oso erraza da. Eguneroko bizitzan aplikatu dezakegu.

Ze harrera dute ikastaro horiek?

Oso ona. Batzuetan enpresek eta udalek ere eskatzen dizkigute, edo jendea, normalean, animatzen da; batzuetan iragarki bat ikusten dute eta taldeka, lagunekin... etortzen da.

Jendea kontzientziatuta dago?

Gero eta gehiago. Orain arte, oso ezezaguna izan da termino hau



Nahikari Etxabari. | L.K.

eta orain gehiago entzuten da. Jendea kuriositatez etortzen da, batez ere. Normalean, gazteak segituan animatzen dira; aldiz, hutsunea dugu jende helduarekin. Zaila da, batez ere, kontzientziatzea; "ni ondo moldatzen naiz horrela, ez dut behar"... entzuten da. Baina batzuetan gurasoak seme-alabekin joaten dira.

Krisian gaudenetik, kontzientzia hori areagotu egin da?

Bai; eta, gainera, krisialdia dela eta, jende asko lanik gabe dago, eta astia dutenez eta ikastaroa guztiz doakoa eta lau ordukoa denez, animatu egiten dira. Bestetik, erregai dagoen salneurrian egonda, denok begiratzen diogu gehiago gastuari.

Emango dizkiguzu, bada, modu eraginkorrean gidatzeko pare bat gomendio?

Askotan, gida-baimena lortzen dugunean, segurtasunaren aldetik begiratzen dugu, geldo joaten saiatzen gara... baina, ikastaroa egin eta gero, ikusten dugu beste era batera egin daitekeela: martxa luzeetan joan daiteke; biribilgune batera ez da zertan 2. martxan sartu behar. Beste gomendio oso erraz bat: aldapan behera semaforo baten baldin bagaude, 2. martxan irten.

Modu honetara gidatuta, urte baten, adibidez, zenbat diru aurreztu daiteke?

Oso kontsumo desberdinak daude erregaiaren arabera. Baina ikerketa bat egin da, eta urtean 1.500 euro aurrezten dira, gutxi gorabehera.

Arantxa | An-Alon elkarteko kolaboratzailea

"Guraso alkoholikoa duenak bikote alkoholikoa topatzeko joera dauka"

- ▶ Al-Alon Elkarteak hitzaldia egin zuen hilaren 21ean Antzuolako Olaran etxean
- ▶ Alkoholikoen familiei eta lagunei laguntza ematen dien elkarte da

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Al-Alon elkarteak, alkoholikoen familiei eta lagunei laguntza emateko elkarteak, hitzaldia egin zuen hilaren 21ean Antzuolan. Familiakoei eta lagunei informazioa eman eta zer egin ahal duten azaldu zieten. Berba egin zuen Arantxa eibartarrak, aita, senarra eta ahizpa alkoholikoak izan dituen. Haren berbak ekarri ditugu gurera.

Zer da Al-Alon elkarteak?

Alkoholikoen familiei eta lagunei laguntza ematen dien elkarte da. Gipuzkoan 15 talde daude. Nik Eibarko taldearekin kolaboratzen dut. Gipuzkoan barrena askotariko ekitaldiak antolatzen ditugu; tartean, Antzuolan egin dugun hitzaldiaren antzerako beste asko.

Familiei eta lagunei babesa emateko lekua da, orduan?

Bai. Alkoholiko bat etxean edo inguruan duenak ezin du bere arazoa lau haizetara zabaldu. Alkoholismoa gertutik ezagutu dugunok iluntasunean sartuta egoten gara, beldurtuta. Al-Alon elkarteak argitasun apur bat ematen digu. Gure arazoaren gainean berba egiteko aukera izaten dugu.

Kontuan hartu behar da alkoholismoa urte askoko arazo izan daitekeela. Hasieran, arazo txikia da, baina, poliki-poliki, handitzen doa, eta, une jakin batean, arazo hori ezin daiteke ezkutatu. Orduan da beharrezkoa besteen laguntza.

Etxeok edo lagunek baino azkarrago, kanpokoek antzematen dute alkoholismoa.

Alkoholikoa sendatzen denean, zer gertatzen da?

Alkohola baztertzan duenean, beste pertsona bat dirudi. Izaera aldatzen zaio, edo, akaso, alkoholarengatik ezkutuan izan duen izaera erakusten du. Adibidez, alkoholikoa zenean asko hitz egiten bazuen, sendatu ondoren isil-isilik egoten da. Horren aurrean, familiak ez daki ze jarraira erakutsi.

Lehenengo, ohitu egin behar dugu alkoholiko batekin bizi izatera, eta gero, bizimodua guztiz aldatu behar dugu sendatzen denean.

Zuk hiru alkoholiko izan dituzu etxean: aita, senarra eta ahizpa.

Hala da, eta horregatik hasi nintzen Al-Alon elkartean. Aita sendatu egin zen, eta beste pertsona bat dirudi. Familiaren laguntza



Arantxa, Antzuolako hitzaldia hasi aurretik. | MIREIA BIKUÑA

ezinbestekoa da alkoholikoarendako, eta guk, zutik mantentzeko, beste batzuen laguntza behar dugu. Al-Alonen erakusten digute nola bizi, nola antolatu, zer egin, nola jokatu, nola tratatu... Berrito erortzen garenean, nola jaiki erakusten digute elkartean. Gizarteak ez gaitu ulertzen: ez senitartekoak, ezta alkoholikoak ere.

Baztertuta sentitzen zarete?

Bai. Alkoholikoa baztertu egiten du gizarteak. Edan egiten duela, ezin dela errekuaratu uste

"Etxeok baino azkarrago, kanpokoek ikusten dute alkoholismoa"

"Oso zaila da lehen pausoa ematea; beti topatzen da aitzakiaren bat"

dute. Egia da, batzuetan, gu geu baztertzan garela, gaixotasun hau oso gogorra delako.

Nor konturatzen da azkarrago alkoholismoaren arazoaz, alkoholikoa bera ala familia?

Oso zaila da lehen pausoa ematea. Beti topatzen dituzu aitzakiak alkohola edan duela justifikatzeko: lanean arazoak, diru falta, une txarrak... Guztiak balio du aitzakia moduan.

Baina, lehen pausoa emanda, sendatzea ez da alkoholikoaren lana bakarrik. Hura Alkoholiko

Anonimoak elkartean hasiko da, baina etxeok edo lagunek beste terapia baten beharra daukate. Al-Alon elkartera laguntza bila etortzen dira.

Gurekin lan egiten duen psikiatra batek dio alkoholiko batek sendatzeko lau hanka behar dituela: sendatzeko gogoia, bere kabuz terapiara joatea, familiaren laguntza eta medikuaren tratamendua. Horietako batek kale egiten badu, kili-kolo geratzen da pertsona hori.

Ze onorio utz dezake alkoholiko batekin bizi izateak?

Asko. Seme-alaba txikiak dituzunean, eta etxean alkoholismoa badago, logelan sartu eta badi-rudi ez direla ezertaz jabetzen. Hori ez da horrela: badakite arazoren bat dagoela etxean, eta horrek etorkizunean ondorioak sortzen ditu. Adibidez, gurasoetako bat alkoholikoa bada, bikotekide alkoholikoa aukeratzeko portzentaje handia dago. Eta are gehiago esango dut: alkoholiko batengandik banatu ondoren, berrito bikotekidea topatzen duenak... hori ere alkoholikoa izango da. Bitxia da, baina portzentajea oso handia da.

Zein adin tartetan egoten da alkoholismo portzentaje handiena?

Denetarik dago: gazteak eta helduak. Etorri, sendatu eta berrito erortzen diren gazteak daude; sendatu eta bizitza berria egiten dutenak; sendatzen ez direnak... Gaixoen %60 sendatu egiten dira, lan handia eginda.

Gazteekin lan egitea zailagoa da, oso okupatuta daudelako. Behin terapian hasia erabakitzen dutenean, pautak batzuk jarraitu behar dituzte. Lana dela edo beste kontu bat dela, asko ez dira erregularrak.

Horregatik egiten ditugu hitzaldiak han-hemenka. Ozen esaten dugu: lan eginda eta sufrituta alkoholismoa gaingitu egin daitekeela.

Ze pertsona joaten dira zuen hitzaldietara?

Normalean, informazio eske datoz gehienak. Gaixoa medikuarengana edo gizarte laguntzailearengana joaten da.

Elkarrizketa irakurri ondoren, zuekin hartu-emanetan jarri gura duenak zer egin dezake?

Al-Alon elkartearen atarian dago informazio guztia: www.al-anonspana.org. Bestela, 650 26 59 63 telefonora dei dezaketek gurekin berba egiteko.

ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU
http://goiena.net/iritzia/



Harrotasun apur bat, mesedez

Estatu Batuetatik etorri behar izan zuen Roslyn M. Frank irakaslea, aspalditxotik mundu zientifikoko indarra hartuta dabilen teoria azaltzera: azken izozte handian (K.a. 20.000-10.000) Europan bizi zen jende gehiena "Babesleku Franko-Kantabrikoan" pilatu zen, gaur egungo Asturias, Euskal Herria eta Frantziako hego-mendebaldea. Ordukoak dira Altamira, Ekain, Lascaux eta abarrek pinturak, arte paleolitikoaren adierazpen gorenak.

Orduan osatu zen ziurrenik euskara edo, nahiago bada, honen guraso-hizkuntza. Gero, izotzak urtu zirenean, jendea Europan zehar barreiatu zen. Horrela, hutsik zeuden lurraldeak populatu zituzten eta lekuei izena ipini, euskarazkoa, jakina. Hori dio, esaterako, ospe handia duen Teo Vennemann hizkuntzalari alemanak. Bere teoria oinarritzen duen hainbat artikulu eta liburu du.

Azken ikerketa genetikoek ere hipotesi hori indartzen dute. Openheimer ikerlari britainiarrak frogatu du Irlandako biztanleen geneetatik %90ek eta Britainia Handikoek %75ek jatorri franko-kantauriarra dutela. Hortik ondorioztatu du gaurko britainiarrak azken glaziazioaren ostean babesleku "euskaldunetik" (hitz hori ere erabiltzen du) iritsitako ondorengoak direla nagusiki. Barandiaranek esaten zuen paleolito garaian hemen bizi zen jendearen ondorengoak garaia ziren. Euskarari buruz ez zer hainbeste esatera ausartzen. Nik uste dut gaur egun badagoela nahikoa zantzu euskara ere sasoi hartatik hemen dugula pentsatzeko.

Euskaldunak ez gara horregatik inor baino gehiago edo gutxiago, baina egon ziur inguruko herriren bat gure lekuan balego, beren hizkuntza eta herria munduaren ondare eta ez dakit beste zenbat gauza izango zela.

Jauzarrea Elkarteak biltzarra antolatu du *Atlantiar Paleolitoa* izenburuz; Ficoban, maiatzaren 18an. Goian aipatutako gaiak ere jorratuko dira. Atzerriarrak izango dira, jakina, horietaz jardungo dutenak.

"Euskaldunok ez gara horregatik inor baino gehiago edo gutxiago"

USTEAK USTE

XABIER URTZELAI | xurtelai@goiena.com

Erabiltzen dugun denbora

Eguno kazetaritzan azkartasunak geroago eta garrantzi handiagoa du. Esku artean duzun hori bota lehenbailehen, ondokoak bota aurretik. Horren aurrean National Geographiceko argazkilariek lan nola egiten duten -edo zuten, dokumental zaharra delako- ondo erakusten duen lana duzue sarean ikusgai, Youtuben, esaterako. Afrikan animaliei erretratuak egiten, ozeano zabalean ur-azpikoak erretratatzeko, munduko edozein bazterretan gerrako ondorioak jasotzen... Kontatzen dutenez, posible da hamabost egun behar izatea argazki txukun bat ateratzeko. Denbora tarte horretan zenbat gauza egiten ditugun... bai zuk eta bai nik. Baina baliteke emaitza ez izatea horren ikusgarria.

KALE INKESTA

Estatistikek diotenez, bakoitzak behar baino 20 litro ur gehiago kontsumitzen ditugu egunean; kezkatzekoa da?



CARI DOMINGUEZ
ARRASATE

"Bai, noski, baina iturria irekitzen dugunean ez gara konturatzen. Horrelako gaiekin kontzientzia handiagoa izan beharko genuke".



CARMELO DE LA FUENTE
ARRASATE

"Gehiegi kontsumitzen dugu. Ni ahal dudana gutxien gastatzen saiatzen naiz. Ur asko izanda ere, ez genuke alferrik galdu behar".



ANA DE LA CONCEPCION
ARRASATE

"Bai. Urarekin argi ibili behar da, edukitzea oso inportantea baita. Denok jarri beharko genuke gure aletxo gutxiago gastatzeko".



JOSE MARI IGARTUA
SORALUZE

Bai, eta zaindu egin behar da, geroz eta gutxiago dagoelako. Martxa honetan, hemendik 10-15 urtera ur falta nabaria egongo da.

HANDIK ETA HEMENDIK

Henrike Knörr oroitu bai, jaramonik ez

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Hiru mende behar izan ditu Espainiar Akademiak euskara omentzeko eta hainbat hamarkada, berriz, Alderdi Popularrak, Jose Ignacio Wert ministroaren eskutik, gogoan hartzeko. Eta, giro honetan, batzuko eta besteok oroitarazi nahi izan dute, gozoki, Henrike Knörr zenaren elkar-bizikidetzak. Oroitarazi bai, baina Henrike Knörr-ek nahi litzukeenak bete ez. Ez PPEk eta ez PSEk. Atzo Andres Urrutia euskaltzainburuak Eusko Legebiltzarrean egindako salaketa lekuko.

Alderdi Popularrak urteak daramatza euskal mundura zein Euskaltzaindian nola-hala hurreratu nahirik. Izan ere, hamabost egun baino ez dira Antonio Basagoitik eta Andres Urrutiak buruz buru sinatu zutela ituna, euskara-normalkuntzaz elkar-laguntza areagotzeko. Eta ezin ere ahaztu, 2010eko abenduan Basagoitik berak Euskaltzaindiaren egoitzan

emandako hitzaldia: *Perspectivas del euskera en el siglo XXI*.

Baina, nik dakidanez behintzat, "popularrak" euskararekiko lehen ardurak 1989an-edo hasi zen, José María Aznar alderdiburutzat hautatu eta hauteskundeak prestatzeari ekin ziotenean.

Garai hartan Henrike Knörrek deitu zidan, Jaime Mayor Orejak hainbat informatzailerekin bildu nahi zuela euskararen egoeraz jabetzeko eta, beste zenbaitekin batera, Aznarrekin bazkalduko ote nuen galdezka. [...] Edozein modutan, esan bezala, zenbait astebeite geroago, Aznarrekin batera bazkaldu genuen, Gasteizen, elkar ondo asko ezagutzen genuen bost lagunek, Alderdi Popularraren buruzagi nagusiak euskaraz eta euskal kulturaz zituen galderei erantzuteko.

Ez dakit nork atera zuen argazkia, baina jakin badakit Henrike Knörren argazki-makina zena. Beti zerraman soinean. Gustuko zuen lekukoarenak egitea.

Euskaltzainburuaren salaketa:

Segurutzik, Basagoti Mayor Oreja eta Aznar baino euskaltzaleagoa da, eta Eusko Jaurlaritzan agintean dagoen Alderdi Sozialista dugu Henrike

Knörr Madrilen omendu berri dutenetakoa. Baina, itxurak itxura, alderdi biotako buruzagiek badakite Kontsumitzailearen Estatutua dela-eta Euskaltzaindiari egin dioten ez ikusia ez litzatekeena, inondik ere, Knörren gogoko izango.

Besteak beste, bi dira atzo bertan, Eusko Legebiltzarrean, Andre Urrutia euskaltzainburuak leun asko egindako salaketa latzak. Batetik, Gernikako Estatutuak besterik zehaztu arren, Jaurlaritzak ez ziola alde aurretik aukerarik eman Euskaltzaindiari, Kontsumitzailearen Estatuaren erreformaz hitzegun zezan. Eta, bestetik, martxoaren 20an hartu dutela euskaltzainburua Legebiltzarrean iritzia eman dezan... hilabete lehenago PSEk eta PPK elkarrekin onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (2012.02.17) argitaratutako legeaz.

"Zuk esan ezazu nahi duzuna, guk nahi duguna egingo dugu-eta", ez da batere polita baina, txarrean ere, legezkoa da. "Guk nahi genuena egin dugu eta orain esan ezazu nahi duzuna", legezkoa ez izateaz gainera, adarjotze galanta da. Adarjotze instituzionala, hori bai, eta Henrike Knörr-en oroitzapenetan gainera.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Aregi

Asteburuko edizio arduraduna Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitate Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatuz s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Karmelo Perez | Ezker Batua eta Oñati Ezkerretik koalizioko zinegotzia Oñatin (2003-2011)

- ▶ Zortzi urte egin zituen zinegotzi Andoni Gartziarekin eta Lourdes Idoiagarekin
- ▶ Oposizioan egin zuen lan bi agintaldietan; bigarreanean, Zutik eta Aralarrekin koalizioan
- ▶ Iaz, maiatzeko udal hauteskundeetan ordezkari barik geratu zen Ezker Batua

"Lehen agintaldia Alderdien Legeak markatu zuen, eta, gainera, berria nintzen politikan"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Karmelo Perez de Almaraz (Sorluze, 1965) zortzi urtean izan zen zinegotzi, 2003tik 2011ra. Lehen agintaldian Ezker Batua alderdiko ordezkari bakarria izan zen eta bigarreanean, Oñati Ezkerretik koalizioko kide. "Gogorak" izan zirela esan digu, "batez ere, lehen agintaldia". Bi agintaldietan egon da oposizioan, bietan ere, EAJren gehiengo absolutuarekin.

Ezker Batua alderdiak Oñatin izan duen lehen zinegotzia izan zinen.

Bai, hala da. 2003an sartu nintzen Udalera, eta esperientzia berria izan zen niretzat. Berria nintzen politikan, eta ezagutza barik heldu nintzen.

Zer-nolako oroitzapenak dituzu?

Zinegotzi izan nintzen zortzi urteetan oso bestelako egoera bizi izan nuen: lehen agintaldian. EBko zinegotzi bakarria izanik, oso bakarrik sentitu nintzen. Agintaldi gogorra izan zen, eta hainbat ezaugarri izan zituen: Alderdien Legeak markatutako agintaldia izan zen; berria nintzen, esperientzia bakoa; eta gainera, EAJk 14 zinegotzi zituen.

Udalera heldu nintzenez, alderdiak esan zidan batzorde guztietara joateko, eta 11 ziren. Ezinezkoa zitzaidan, eta gehien interesatzen zitzaidan gaiak lantzen zituzten batzordeetara mugatu nintzen.

Lehen agintaldian ez zegoen jarduerara politiko aktiborik. Oso koetan, EAJk adostutakoa egiten zen. PSE-EEko eta PPko zinegotzietatik oposizioa txikia egin zuten, zinegotzi kanpotarrak ziren, eta egoera zaila bizi zuten.

Egoera aldatu egin zen bigarren agintaldian?



Karmelo Perez, Senidetzeen monumentuaren aurrean. | MIREIA BIKUÑA

Asko. Oñati Ezkerretik koalizioan elkartu ginen Zutik, Aralar, Ezker Batua eta independente batzuk. Zerrenda polita osatu genuen eta lau zinegotzi lortu genituen. Bati

uko egin genion, baina gainerako hirurok ondo egin genuen lan. Hiruron artean banatu genituen batzordeak eta lana erosoago bihurtu zen. Gure parte-hartzea zabaldu

egin genuen, eta alderdien arteko eztabaida aberasgarriagoa izan zen, batez ere, Udal Gobernuak kideekin. Ez genuen elkar ulertzen, baina berba egiten genuen.



Perez, lehen eskuinetik, Oñati Ezkerretik koalizioaren aurkezpenean. | GOIENA

Oposizioan lan egin arren, zuen proposamenak aintzat hartzen ziren?

Orduan ez, baina orain, badirudi guk egindako proposamenak balekoak zirela. Adibidez, postetxe ondoan ipinitako helduendako parkea EBk proposatu zuen; eta baita osasun zentroko irisgarritasuna hobetzeko proposamena ere.

Lehen agintaldian mugikortasunari bultzada emateko Agenda 21 sortu genuen eta bidegorrien sarearen lehen hazia jarri genuen. Aipagarria da auzoek izandako garapena, eta Arrikruzteko proiektua.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoaren jaiak Oñatin egin zen, eta senidetze festa antolatu genuen Moraleja, Valtierra eta Macotera herrietan.

Gustukoak ez zenituzten ze proiektu aipatuko zenituzke?

Gutxiengoan lan egiten genuenez, gustuko ez genituen proiektu asko jan genituen. Adibidez, ETEO lekuz aldatzea. Ibarra kirolgune inportantea zen, baina, bateren baten burugogorkeriagatik, Enpresagintza Fakultatea ipini zuten han. Bestalde, San Martin eta Ugarkalde auzoetako proiektuen kontra geunden. Herria zabaltzea gura genuen, baina uniformeki.

2011ko hauteskundeetako emaitzak oso txarrak izan ziren?

Emaitzak espero nituen. Bildu indartsu zetozen, eta emaitza onak lortu zituen. Aurreko agintaldia bukatu aurretik ikusten genuen aldaketa zetozen.

Iaz, maiatzean EBk eta Aralarrek lortutako boto kopurua, 2003an EBk bakarrik lortutakoa baino txikiagoa izan zen. Bilakaera baten emaitza izan da.

"Lehen agintaldian ez zen egon jarduerara politiko aktiborik Udalean"

"Nik proposatu nuen orain ipini duten helduendako parkea"

ALKATE JAUNA, HARIRA!

GOIENA TELEBISTA | HARIRA | BEÑAT HERCEREKIN ELKARRIZKETA

MARTXOAK 27, 21:27 | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

PARTE HARTU ETA EGIN GALDERAK ALKATEARI

SAIOAREN AURRETIK: posta: harira@goiena.com | Goiena.net: albistearen barrenean, galdera edo iruzkina utzi.

ZUZENEAN: 943 25 05 03 | Twitter: [#traola](https://twitter.com/traola) | Goiena.net: ikusi streaming bidez, eta egin galderak eta iruzkinak.



HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Mundumira jaia antolatzeke boluntarioak behar dituzte

- ▶ Egubakoitzean, hilak 30, batzarra egingo dute udaletxean, 19:00etan
- ▶ Hiru batzorde osatuko dituzte: txosna, trafiko eta garbitasunaz arduratuko dira horiek

MIRIAN BITERI | LEINTZ GATZAGA

Munduko kulturen jaia antolatzeke boluntarioak behar dituzte Leintz Gatzagan. Izen-ematea zabalik dago, eta Udalak bi bide jarri ditu herritarren eskura horretarako: Udaleko (www.leintz-gatzaga.com) webgunean sartuta edo Labidean dauden orrietan izena emanda.

Kultura zinegotzi Iñaki Agirreurretak jakinarazi digu azken hilabetean bi batzar egin dituztela eta egubakoitzean, martxoak 30, hirugarrena egiteko asmoa dutela. Hain justu ere, udaletxean egingo dute hori, 19:00etan. Horrekin batera gaineratu du hamar egun barru jaialdia antolatzeko batzordeak osatuta izan nahi dituztela.

Errepidea itxi eta autobusak

Denera, hirur batzorde egingo dituzte. Horietatik garrantzitsuenak trafikoaz arduratuko dena dela esan genezake. Horren harira, honakoa esan digu Agirreurretak: "Gure asmoa da Gatzagako bidea ixtea, autobusak gora eta behera ibili ahal izateko. Horrek lan asko eskatzen du, eta horregatik da batzorde garrantzitsua". Txosna batzordea ere antolatzea nahi du Udalak. Hirugarrena, garbitasunarekin lotutakoa izango litzateke. Horretaz gainera, laugarren batzorde bat osatzeko asmoa dago; hain justu, udaletik zuzenean eroango den antolatzeara.

Gatzagarrek dagoeneko hasi dira batzarretan parte hartzen. Agirreurretak nabarmendu du biztanle gutxi dituen herria bada ere, bilkura horiek "nahiko jendetsuak" izan direla. "Gutxi gara, baina trebeak; herri mailan, laguntasun handia daukagu.



Eguneko ekitaldiak egingo dituzte bereziki Leintz Gatzagan; tartean, askotariko musika emanaldiak. | JULIO CALLEJA

Lehenengo bilerara 40 bat lagun etorri ziren, eta, gutxi gorabehera, kopuru horrekin kontaktzen dugu. Horrekin nahikoa izango litzateke".

Jaialdiaz gozatu

Horren harira, Agirreurretak argi utzi nahi izan du lan egitearekin batera jaialdiaz gozatzeko aukera ere izango dutela boluntarioek. "Jende gutxi izanda, nire helburua zen nola uztartu lana eta gozamina. Egun polit gisa gogora ditzatela gura dut, eta gozatu ere egingo dugu".

Barikua, gatzagarrendako

Bestalde, Kultura zinegotziak aipatu du orain arteko zailtasun handiena izan dela Mundumira Leintz Gatzaga bezalako herri txiki batera egokitzea. Horren harira, azaldu digu egunean zehar egiten diren ekintzak egingo direla Leintz Gatzagan, eta bestelakoak Eskoriatzan. "Egubakoitz arratsaldean hasiko dira ekitaldiak; gatzagarrendako bakarrik izango dira horiek. Zapatu eta domekan, 10:00etatik 20:00etara bitartean dauden ekintzak hartuko ditu herriak", esan du.

IÑAKI AGIRREURRETA | KULTURA ZINEGOTZIA

"Mundumira plataforma baliagarria da Leintz Gatzaga ezagutarazteko"

Antolaketa lanetan dabilen Iñaki Agirreurretak jaialdiak duen garrantzia azpimarratu du.

Zer da Leintz Gatzagarrendako Mundumira?

Leintz Gatzaga batzuetan nahiko ezezaguna da, bai herria bera eta baita

inguruneak ere: gure basoak, base-riak, auzoak... Mundumira plataforma baliagarria da, ez bakarrik bailaran ezagutarazteko, baita Euskal Herri mailan ere.

Formatua egokitu egin behar izan da han egiteko...

Hala da, bai. Gure lehenengo lana izan zen baietza edo ezetza ematea, eta lehen hilabeteak hori erabakitzen egon ginen. Giza kostu inportantea dakar, eta herrian



Agirreurreta. | M.A.

gutxi gara: 200 biztanle pasatxo. Baietza eman ostean, Gatzagan egiteak formatuaren egokitzapena zekarren derrigorrez, eta horretan ibili gara. Herriaren filosofiarekin bat datorren jaialdia egin nahi izan dugu. Horregatik, hainbat

berrikuntza egin ditugu; esaterako, *Slow food* azoka.

Jaialdiko antolatzaile Gin Tonic ekoizpen etxearekin eta Euskal Herria aldizkariarekin harremanetan egongo zarete...

Noski. Oso harreman ona daukagu; oso irekiak dira eta oso inportanteak izan dira haien aholkuak. Egokitzapen prozesu horretan ere buru-belarri ibili dira haiek.

DATUA

40

LAGUN

Udalak aurreikusten duenaren arabera, maiatzaren 18tik 20ra bitartean egingo den jaialdia aurrera atera ahal izateko 40 gatzagar behar dituzte. Ez dute uste boluntarioak lortzeko arazorik izango dutenik.

Azoketan parte hartzeko epea zabalik

Zabalik dago azoketarako izen-ematea. Batetik, *Slow Food* izeneko lehenengo azoka egingo dute. Bertan parte hartzeko aukera izango dute produktu ekologikoak egin edo baserriko produktu freskoak dituztenek, eta janari begetarianoak ekoiztu edo kontsumitzaile kooperatiba bateko kide direnek. Argibide gehiago gura izanez gero, info@mundumira.com helbidera idatzi edo 902 18 14 71 zenbakira deitu behar da. Bestetik, artisautza azokan postua jarri gura dutenek bi bide dituzte izena emateko: info@ginmusica.com edo posta bidez Ginmusica: Peña eta Goñi 16, behea, 20002, Donostia. Apirilaren 27a da azken eguna eta eskaera orria Udalaren eta Mankomunitatearen webguneetan daude.

BERGARA

Oinez eta bizikletaz, erregairik gabe mugitzea posible da

- ▶ Ondo joan da Bergarako I. Bizikleta Astea
- ▶ Parte-hartze polita izan da ekintza gehienetan



Adin guztietako jendea, bizikleta martxa irekian. | JOSETXO ARANTZABAL

GOIATZ ARANA | BERGARA

Eguraldi ezin hobeak lagunduta, bergararrek Bizikleta Astea borobildu dute asteburuan. Mugitzeko beste modu batzuk badirela erakusteko eta ordezko garraiobideak sustatzeko, atzo oinez osatu zuten frontoitik Gorlarako bidea eta zapatuan bizikleta martxak eta azoka egin zituzten. 200 bat lagunek parte hartu zuten martxetan –eskola kiroleko haurrek lehen bietan eta adin guztietako jendeak hirugarrenean–.

Ezohiko ibilgailuak

Labegaraietan hasi eta bukatu zituzten itzuliak eta, tartetan, ezohiko ibilgailuak probatzeko aukera izan zuten. Kirol aukera, emugi! eta en-medio enpresek ibilgailu ekologikoak, bizikleta elektrikoak, hiru erruberadun patineteak... eraman zituzten eta bat baino gehiagok gozatu ederra hartu zuten horiekin; eta Basque Adventurekoen eskutik, bizikleta bidaien gaineko informazioa batu ahal izan zuten. Materiala trukatzeko azokak ez zuten aurrera egin, baina balorazioa positiboa da.



Mutiko bat ezohiko ibilgailuan. | J.A.



Gidatzea, uste baino zailagoa. | J.A.

MAITE ABADIA
EN-MEDIO ENPRESA



"Seg way-ek izan dute arrakasta gehien, baita bizikleta elektrikoek ere. Jendeak interesa erakusten du eta pozik gaude".

DIEGO SANCHEZ
BERGARA



"Bizikleta martxa irekian parte hartu dut seme-alabekin batera eta oso ondo. Horrelako ekintza gehiago egin beharko lirakeke".

AITZIBER ITURRIAGA
BERGARA



"Atentzioa eman didate ibilgailu bereziok. Nik hiru bat probatu ditut; hasieran kosta egin zait apur bat, baina gustatu zaizkit".

BERGARA

Orfeoien ongi-etorria udaberriari

Bergarako Orfeoien udaberriko urteroko kontzertua eskaini zuen atzo Mariaren Lagundian. Aitor Biain zuzendari oñatiarrak gidatuta, doinu erromantiko alemaniarrek izan ziren entzungai.



JOSETXO ARANTZABAL



Kortinak dekoratu berriaren parte dira. | JOSETXO ARANTZABAL



Espaloia berriak txoko berezia du soinu teknikariarentzat, behean. | J.A.

ELGETA

Itxura eta eskaintza berrituta, aro berria hasi du Espaloiak

Bariku arratsaldean inauguratu zuten kafe antzokia, hamar egunez itxita egon eta gero

GOIATZ ARANA | ELGETA

Lanparatzarra pista erdi parean zintzilik, gortinak, plastikozko kaxa mordoak, haurrentzako txokoa... itxura berria du Espaloia Kafe Antzokiak. Eta berria da eskaintza gastronomikoa ere; kulturalari, aldiz, eutsi egingo diote.

Bariku arratsaldean askotariko elgetarrak eta bisitariak batu ziren inaugurazio ekital-

dian eta nahikoa lan izan zuten alde batera eta bestera begira. Batzuek zein besteek, hori bai, hitz onak baino ez zituzten izan Espaloien gainean: gauza gutxiarekin itxura berria eman diotela, ondo geratu dela eta bizitza handia ematen diola Elgetari. Durangaldeko Zirkiñik Bez! taldeak girotu zuen ekitaldia eta ez zen falta izan, noski, trago eta mokadurik.



OÑATI

JOSETXO ARANTZABAL

Sorpresa 'Typewriter'-arekin

Oñatiko Jose de Azpiazu musika eskolakoek emanaldi bereziak bete egin zuten ia Santa Ana zapatu iluntzean. Haize taldeak sorpresa eman zuen *Typewriter* formularekin –idatzizko makinaren soina perkusio moduan erabiliz– eta gustura hartu zuten aretoan batutakoek. Ondoren, triki-pandero taldeak kantu herrikoiak taularatu zituen, biolinaren eta txirularen konpainian.

ONATI

Sortutako olatu mugimenduari jarraipena emango diote ilusioz Oñatiko gazteek

Mahai gainean jarritako gaiari heldu eta hausnartu ostean, orain ekintzetara pasatzeko garaia dute

MAIDER ARREGI | OÑATI

Gazte sentitzen ziren 80 oñatiar inguru batu ziren kezka sorrazten dieten gaiez hitz egiteko eta ondoren hausnarketari bide egiteko.

Lehenik, taldeka batu eta gaiak mahai gainean jarri zituzten. Aipatutako gai nagusien artean hauek: gazteen arteko harremanak eta harremanak izateko lekuak; Euskal Herria eta bizi duen egoera politikoa, tartean, ETAk borroka armatua utzi izana; genero berdintasuna eta sexualitatea; lana eta etxebizitza; eta euskara eta kultura.

Hausnarketarako garaia

Bazkal ostean, kafe tertulian, askotariko iritziak eta interpretazioak, eta sakonean bi ondorio nagusi. Batetik, Oñatiko gazteen harremanak sustatzeko premia. Horretarako azpiegitura eta leku baten beharra zegoela ondorioztatu dute. "Tabernak eta lokalak ez diren toki baten beharra ikusten dugu; gazteen harremanak bultzatzeko eta posible egiteko toki baten beharra, alegia", konstatu digute Gazte Topaketen antolatzaileek.

Bestetik, sortutako mugimendu horri eutsi egin behar zaiola azaldu dute; martxan jarri eta dinamika batean lanean segitu beharra ikusten dute. "Jarraipena eman behar zaio; gazteek harremanak eta ekintzak egiteko gogoia eta ilusio badute, baina azpiegitura bat behar dugu. Hori bultzatu egin behar dugu".



Zapatu goizean, ETEOn batu ziren 80 gazte inguru gaiak mahai gainean jartzeko asmoz. | MAIDER ARREGI



Josu Zubia bakarlarri oñatiarrak goxatu zuen gau giro aparta. | JOSETXO ARANTZABAL

DATUA

80

LAGUN

Topaketetan gazte sentitzen ziren 80 oñatiar batu ziren; tartean, 80 urteko gizonezkoak bere hausnarketa egin zuen, gazte sentitzen delako.

OGAren amaiera...

Oñati Gazte Asanbladarak gabe eta gaztetxe barik geratu da. Baina zapatuan abiatutako gazteen mugimenduak segida emango dio. Hala, herriko gazteen arazoak eta beharrak asetzeko zubi lana egingo du mugimenduak. Hain zuzen ere, gazteen harremanak sustatzeko toki baten beharra ikusten dutela azaldu digute, eta gune horietako bat gazteleku izan daitekeela. Gainera, gaztelekuaren inguruko eztabaida parte-hartzailea irekita dago; dinamika abiatu dute dagoeneko herriko gazteek; gauzak zehazten joatea falta da orain.

Hala, hausnartzeko sasoia da eta ideiak jaurtitzeko eta gauzatzeko. Gazte sentitzen den edonork berea ekarpena egin dezake, ateak zabalik daude.

ARRASATE

10 urte elkarbizitza eta harremanak sustatzen

Herri Eskolak antolatuta, 300 lagun inguruk hiru eraikinak batzen dituen ibilbidea egin zuten

M.A. | ARRASATE

Hamargarren urteurrena ospatzen buru-belarri dihardu Arrasate Herri Eskolak eta Josune Etxabe zuzendariak balorazio baikorra

egin du: "Orain dela 10 urte hiru ikastetxe bat egin genuen gure etorkizunari buelta emanez eta egun 700 ikasle ditugu; eskertze-koa da gurasoek emandako kon-

fiantza. Benetan hunkigarria da horrelako ekintzetan parte-hartzea". Igor Martinez gurasoak azaldu zigunez, horrelako ekintzak gaztetxoek harremanak sustatzeko bide ematen dute. "Gurasoak gustura eta umeak gusturago. Guretzako oso garrantzitsua da elkarbizitza izatea eta eskolaz kanpoko ekintzak bultzatzea". Gaztetxoak ere gustura: "Proba politak egin ditugu ibilbidean barrena, ia galdu ere egin gara jolasean!", azaldu ziguten.



Musokolako Herri Eskola kolorez jantzi zen. | JOSETXO ARANTZABAL



Haurrak gustura, margotzen. | J.A.



BERGARA

JARDUN

Askotariko kultura festa

Nahikoa jan eta kantatzeko aukera izan zuten barikuan Jardunek antolatutako kantu-afarian. Pakistandarrek Txoriak txori abestia ere entsegatuta eraman zuten. Pakistandarrek, senegaldarrak eta italiarrak nagusi afarian. Euskaldunak euskaldunei transmititu beharrean, beste kultura batzuetara transmititzeko aukera izan zen.



Erdiguneko Gaztegunean gaztetxoak. | U.M.

Iraia Sola: "Gazte arloan eginiko lana eredu da kanpoan"

Erdiguneko gaztegunearen oso balorazio positiboa egiten dute Udaleko Gazteria Siletik

IRATI GOITIA | ARRASATE

Gazteria Sailean ez da inbertsio handirik egingo aurtengo urtean. Iraia Sola arlo horretako zinegotziak adierazi du: "Gazteriak nahiko zerbitzu zabala dauka eta horiek mantentzea izango da gure helburua. Hala, horiek bermatzeko egin beharko diren erosketetarako gastuak aurreikusten dira, baina ez inbertsio handirik -4.000 euro-. Krisi garaian ez dago gehiago egiterik".

Ondasun eta zerbitzuendako

Aurtengo urterako 672.000 euroko aurrekontua onartu da eta zati handiena ondasun eta zerbitzuetara bideratuko da. "Hiru zerbitzu ditugu esleitura: gazte txoko eta ludoteken kudeaketa, kale heziketa zerbitzua eta sexologia zerbitzua" azaltzen du Solak. Pertsonal gastuetara 99.000 euro bideratzen dira.

Bestalde, 36.000 euroko partida aurreikusitako dirulaguntze-



tarako. Horietatik 18.000 euro Txikilandia antolatzen du. Solak zehaztu du: "Orain arte Kultura Siletik bideratzen zen hori, baina pentsatu genuen egokiagoa zela Gazteriatik zuzentzea". Disko grabaketetarako 4.000 euro zehaztu dituzte eta gainerakoa urtean zehar antolatzen diren ekintzetarako eta hezitzaile ikastaroak egiteko gordeko da.

Erdiguneko gaztegunea

Iazko inbertsio potoloena erdiguneko gazteguneara izan zen eta Solak adierazi du oso pozik daudela egin zen inbertsioarekin: "Oso erantzun ona izan dugu asistentzia aldetik eta funtzionamenduz ere oso gustura gaude. Ikasturtearen erdia besterik ez da pasa oraindik, baina oso balorazio positiboa egiten dugu". Hain zuzen, ordutegia zabaltzea eskatu zuten gazteek eta moldatu egin dute. "Oraindik gazteek lokalari zein erabilpen ematen dioten eta zein behar dituzten ikusten gabilta eta horren arabera, ahal dugun heinena, moldatzen joango gara" gaineratu du Solak.

Udalaren harremana gazteekin

Gazteria Sailak Orik 30 urtera bitarteko gazteak hartzen ditu bere baitan eta euren beharrak "oso anitzak" direla adierazi du Solak. Horiek ezagutzeko, Udalak dituen zerbitzu ezberdinak erabiltzen ditu: "Adingabekoekin ludoteken bitartez eta nerabeekin gaztetxe eta gazte txokoen bitartez jartzen gara harremanetan. Harremana ona dela esango nuke". Zinegotziak eredu jartzen ditu AGAKOekin eta musika taldeekin duten harremana. Bien kasuan ere ondo funtzionatzen duen lagapen hitzarmen bat dute eta elkarlanak ere egiten dituzte.

Arrasate, kanpoan eredu

Gazteria zinegotziak gaineratzen du: "Arrasateko Udalak 20 urte inguru daroatza arlo honetan lanean; eta aspalditik dago martxan Gazteria Sailerak. Hori eredu da beste herrietan eta udal askotako Gazteria zinegotziak etorri dira ikustera gure ibilbidea, gaztetxeaz dugun harremana edo zein urrats egin ditugun".

Parte-hartzea bultzatzea

Gazteria Sailaren helburua da gazteen iritziak arlo guztietan entzutea: "Herrian sortuko diren prozesu parte-hartzaile guztietan egon behar da gazteen ikuspuntua", dio Iraia Sola Gazteria zinegotziak. Gaineratzen du parte-hartzea bultzatuko dutela: "Gazteriarren arloan nahiko zaila da kontseilu bat sortzea, adin tarte oso zabala hartzen duelako bere baitan eta denon beharrei erantzuneko dien kontseilu bat sortzea zail ikusten dugu. Agian, bai egingo duguna izango da gai zehatzen inguruan prozesu parte-hartzaileak bultzatu adin tartean arabera mugatuta".

Entsegu lokalekin pozik

Une honetan 14 entsegu lokal daude: hamar Uarkapen eta lau Musakolan. "Egoera onean daudela esango nuke; nahiz eta Musakolakoak ez dauden Uarkapekoak bezain ongi. Deposgas elkartetik, baina, horiek mantentzeko eskatu digute, eta hala egingo dugu. Bestalde, nahikoa direla uste dugu, bederatziredo hamar talde inguru itxaron-zerrendan dauden arren. Ez dugu uste 40 lokal izan behar ditugunik 20 talderendako. Pozik gaude", dio Iraia Solak.

Bestalde, lokal partikularren gainean hauxe zehaztu du: "Oraingoz, ez ditugu arazo moduan ikusten".

AED elkartearekin Zuberoara asteburu pasa joateko aukera

I.G. | ARRASATE

Zuberoara irteera kulturala antolatu du AED euskara elkarteak maiatzaren 19tik 20ra. Elkartetik adierazi dute: "Paraje zoragarriez gozatzeaz aparte, zuberotarrek egoteko eta hango historiaren, egoera sozialaren eta linguistikoaren berri izateko aukera bikaina izango da".

Bisitak eta jaialdia

Maiatzaren 19an Garibaitik irten eta Santa Grazirako bidea hartuko dute animatzen direnek. Bertan, XI. mendeko ermita erromanikoa bisitatuko dute gidari batekin. Ondoren, Kakoe-

tako mendi zintzurrera joango dira bazkaltzera eta arratsaldea Atharratze inguruetan pasako dute. Gauean, berriz, asteburu horretan Urdiranben egingo duten Músikaren Eguna jaialdira joango dira. Hurrengo egunean, Mauleko inguruak ezagutuko dituzte. Bazkaldu Músika Egünaren barruan ikastolako kideek zerbitzuetako duten Axika herri bazkarian, eta, ondoren, etxera buelta.

Prezioa 90 euro da (autobusa, afaria, lo egitea, gosaria, bi bisita gidatu barne). Apirilaren laua baino lehen eman behar da izena AEDra deituta.



Institutukoak Berlinen izan dira ikas-bidaian

Arrasateko Institutuko batxilergoko bigarren mailakoak Berlinen izan dira ikas-bidaian. Bost egun, martxoaren 7tik 11ra bitarte, egin dituzte Alemaniako hiria ezagutzen eta bertako giroaz gozatzeko; hala, hiriburuko lekurik interesgarrienak ere bisitatu dituzte. Hain zuzen, goiko talde argazkia Pergamo museoko eskaileretan atera zuten. Guztira, 46 ikasle eta hiru irakasle joan ziren ikas-bidaian.

Jesus Mari Elkorro | Ibai Arte elkarteko zuzendaritza taldeko kidea

"Kalitate maila handia dugu, ez daude herri asko proportzio horiek betetzen dituztenak"

Ibai Arte elkarteko 21 dendek egiaztagiria jaso zuten iaz, kalitatezko zerbitzua eskaintzen dutelako; bide horretan segituko dutela adierazi du Elkorok

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Albiste da Ibai-Arte merkataritza elkarte. Arrasateko Udalarekin hitzarmena eta zuzendaritza taldea osatzen dutenen aldaketa izan dituzte azken egunotan. Baina zerbitzu gertuko eta kalitatezkoa eskaintzen jarraitzen du Ibai Arte eta hori ere bada albiste. Eta, Jesus Mari Elkorro zuzendaritzako kideak dioenez, bide horretan jarraituko dute.

Iazko urteaz nolako balantzea egiten du Ibai Arte elkarteak?

Urtea hasi aurretik egindako aurreikuspen guztiak bete ziren eta beraz, pozik gaude iazko urteak emandakoarekin. Bezeroaren fidelotasuna saritzea helburu duen Ibai Arte txartelaren aldeko eginkizun guztiak ondo joan ziren.

Bestalde, kalitatezko ziarlagiria lortzeko helburua jarri genuen eta 21 dendetarako lortu ditugu agiri horiek. Izan ere, 21 denda horiek agiri horretarako beharrezkoak ziren baldintza guztiak bete zituzten. Azken horiei aurretik agiria lortu dutenak gehituz gero 27 gara guztira. **Horrekan gura du 27 denda horietan kalitatezko zerbitzua bermatua dagoela, ezta?**

Hala da. Oso datu esanguratsua da, Euskal Herri osoan maila altuan kokatzen gaituena. Ez daude herri asko proportzio horiek betetzen dituztenak, kalitateari dagokionez.

Hori izan da iazko balantzearen alde positiboenetako bat eta aurrerantzean bide horretatik jarraituko dugu, agiri hori denda berrietara zabalduz.



Jesus Mari Elkorro. | JOKIN BEREZIARTUA

"Alde zaharrea bisita gidatuak eskaini gura ditugu sari moduan"

Kalitatezko zerbitzuaz gain bezeroaren fidelotasuna saritzen jarraituko du Ibai Arteak?

Bai, noski. Hilero egiten ditugu zozketa eta promozio bereziak. Ibai Arte txartelaren bidez erosketak egiten dituzten bezeroek saritzeko ekimenak dira; opariak eta deskontuak eskaintzen ditugu euren fidelotasuna saritzeko eta nahiko arrakastatsuak izaten dira. Gainera, Harreman Gober-

nuz Kanpoko erakundearekin batera antolatzen den tonbolarekin ere jarraituko dugu.

Ziur aurten ere nobedaderen bat prestatu duzuela. Berritasunen bat aurrera zenezake?

Aurten udazkenerako sari berezi bat eskaini gura diegu gure bezeroei: Arrasateko alde zaharrei bisita gidatu bereziak. Horren gertu dugu eta hain ederra da alde zaharra... baina era berean ezezaguna da hainbat arrasatearrendako. Sari hori oraindik prestatzen gabiltza.

Eta noski, dagoeneko arrasatearren artean errotuta dauden eta arrakasta handia duten ekimenekin ere jarraituko dugu, besteak beste, Merkemerka, Aste Berdea eta Gabonetako saskiaren zozketa.

Emakumeak protagonista dituen saio berri bat etzi

Maialen Lujanbiok Uxue Alberdi elkarrizketatuko du Kulturateko areto nagusian, 19:00etan

J.B. | ARRASATE

Emakume Txokoak antolatzen duen *Emakumeak protagonista* elkarrizketa zikloaren beste saio bat izango dugu etzi Kulturateko areto nagusian (19:00). Lehen saioan, Maddalen Iriarte kazetariak Edurne Brouard AEK-ko arduraduna elkarrizketatu zuen Kulturateko klaustroan. Hurrengoan, Uxue Alberdik Maialen Lujanbio elkarrizketatu zuen. Honako gogoeta egin zuen Lujanbiok: "Interesgarria izan daiteke horrelako ekimen bat emakumeak plazaratze aldera; bai-

na, zalantza barik, helburua litzateke titulu hori jarri beharrik gabeko tertulia bat, non emakumeak protagonista diren gizonak bezalaxe".

Paperak trukatzeko

Etziko azken saioko protagonista berak izango ditugu, baina paperak trukatu. Izan ere, oraingoan, Lujanbiok elkarrizketatuko du Alberdi. Saioa gertuko eta atsegina izatea espero dute antolatzaileek; ikus-entzuleak ez direla damutuko ziurtatu dute.



Alberdik Lujanbio elkarrizketatu zuen abenduko saioan. | ARTXIBOA

Atez atekoa, lan erreforma eta Bateragune auziaren gaineko mozioak bihar osoko bilkuran (18:00)

Biharko ezohiko osoko bilkuran mozioak izango dira protagonista. PSE-EEK eta EAJk atez atekoaren aurkako mozio bana aurkeztuko dute. Bilduk eta Aralarrek, bestalde, lan erreforma bertan behera uztea eskatzeko mozioa -EAJk ere beste bat aurkeztuko du lan erreformaren kontra- eta Bateragune auziaren gaineko mozioak aurkeztuko dituzte.

'Zentzumenen afaria' antolatu du Econat elkarteak egubakoitzerako, Jesus Romero adituaren eskutik

Elikagai naturalekin lan egiten duen Jesus Romero sukaldariaren eskutik saio berezia egongo da egubakoitzerako (21:00), Hondarribia kaleko 3. atarian, Econat elkartearen laguntzaz. Udaberriari sartu garelako aitzakia hartuta *zentzumenen afaria* egin gura dute, aldika egiten duten hitzaldia joko moduan planteatuz. Izena emateko -eguna baino lehen- edota argibide gehiagorako deitu 943 77 16 70 edo 695 780 058 telefono zenbakira.

Aste Santurako askotariko ekintzak antolatu dituzte gaztegunean, apirilaren 10etik 15era

Aste Santurako egitarau zabala prestatu dute gaztegunean. Hainbat ekintza egingo dituzte apirilaren 10etik 15era: zirkua, bertso afaria, grafitiak, kontzertuak eta mahai-futbol txapelketa, besteak beste. Horrez gain, hiru eguneko irteera antolatu dute DBHko 3. eta 4. mailetakoko gazteendako apirilaren 13rako, 14rako eta 15erako: Askizuko aterpetxera joango dira. 30 euro da irteeraren prezioa eta apirilaren 1a da izena emateko azken eguna.

Hiri autobusa ez da Mugarritte aldera heltzen

Irakurle bat kexu da hiri autobusa ez delako herriko supermerkatu guztietara heltzen. Mugarritte gunean -ondoko argazkian- ez dago autobus urbanoaren geltokirik, eta hori salatzea etorri da. Dioenez, bertako Dia eta Lidl supermerkatuetan erosketak egiteko aukera bakarra autoan joatea da. Eroskera, bestalde, hiri autobusa heltzen dela dio, eta ez du ulertzen zergatik. Udalean ere jarri du kexa.

TXALOAK ETA TXISTUAK



JOKIN BEREZIARTUA



Bilduk eta Aralarrek osatutako gobernuak gehiengoa dauka atez ateko proposamena aurrera ateratzeko | GOIENA

Atez ateko sistema onartuko du gobernuak gaurko udalbatzan

EAJk eta PSE-EEk mozio bana aurkeztuko dute zaborren kudeaketari buruz

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udaletxean ohiko osoko bilkura izango da gaur, 19:30etik aurrera, eta Jesus Elortza alkateak joan den martxoaren 7an aurreratu zuenez atez ateko sistema ezartzea onartuko du udal gobernuak. Bilduk eta Aralarrek osatzen duten gobernuak du gehiengoa eta haien botoekin aurrera aterako dute proposamena, azken asteotan zeresan ugari eman duena. EAJ eta PSE-EE atez atekoaren kontra azaldu dira, baina haien botoak ez dira nahiko izango udal gober-

nuaren erabakia atzera botatzeko. Edozelan ere, jeltzaleek eta sozialistek mozio bana aurkeztuko dute zaborren kudeaketaren gainean.

Gai zerrendan, 20 puntu

Gaurko gai zerrendak 20 puntu aurreikusten ditu eta zaborren kudeaketaren eztabaida amaiera aldera etorriko da: 16. puntuan, sozialisten mozioa aztertuko dute; jeltzaleek zabor-bilketa ereduaren inguruan landutako proposamena etorriko da jarraian; eta, azkenik, Bildurena: "ahalik eta hondakin

gutxien sortu eta hondakinak biltzearen" gaineko mozioa.

Esan bezala, beste hainbat gai izango dituzte mahai gainean, tartean lan erreforma dela eta Bilduk eta Aralarrek landutakoa, PSE-EEk gai beraren gainean aurkeztutakoa edota EAJren beste bat lan merkatua erreformatzeko premia neurri buruzkoa.

Hileroko azken asteleheneko osoko bilkuretan ohikoa denez, puntu denak jorratu ondoren, eskaera eta galderen txanda etorriko da.

San Joxepe elkarteak urteko batzar orokorra egingo du eguaztenean, erretiratuen egoitzan

San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzar orokorra egingo du etzi, martxoaren 28an, egoitzako lokalean: lehen deialdia 16:30ean izango da eta bigarrena 17:30ean. Besteak beste, zuzendaritza batzordeko hainbat kide berriren izendatzea izango dute aztergai. Besteak beste, karguan zazpi urte egon ostean, Carlos Arrondo elkarteako presidentek zuzendaritza utziko du.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea, maiatzaren 31ra arte zabalik

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte dago zabalik. Egun horretatik aurrera errekararekin eskatuko da. Udaletik jakitera eman dutenez, helbideratutako erreziboak maiatzaren 31n kargatuko dira kontu korrantean. Edozein argibidetarako kontuhartzaitzako 943 77 91 64 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.

'Jendaurrean nola hitz egin' eta 'Ipuin kontaketa tailerra' ikastaroak, Bizikasiren eskutik

Bizikasik pare bat ikastaro iragarri ditu datozen asteotarako. Alde batetik *Jendaurrean nola hitz egin* landuko dute (apirilak 24, 26 eta maiatzak 3 eta 8) eta bestetik *Ipuin kontaketa tailerra* egiteko aukera izango da apirilaren 25etik maiatzaren 10era. Bietan ere plaza mugatuak dira eta izen-ematea kultura etxean, 943 77 91 58 telefono zenbakian egin daiteke.

Ariketa hipopresiboen teknika ezagutzeko saioa bihar Agorrosinen, kirolari guztiei zuzenduta

Udaleko Kirol Zerbitzuak eta Felsee fisioterapia zentroaren eskutik, *Mejoras estéticas de salud, rendimiento deportivo y prevención de lesiones con el método hipopresivo* hitzaldia izango da bihar, martitzena, Agorrosinen, 19:00etan. Piti Pinsach eta Saioa Etxabarri bergararra izango dira hizlariak. Izen-ematea Agorrosinen, 943 77 70 95 zenbakian egin daiteke. Plaza mugatuak dira.

Sukaldaritza energetikoko ikastaroa Angiozarren zapatutik

E.M. | BERGARA

Haizeberri Zentroaren eskutik, sukaldaritza energetikoko ikastaroa izango da Angiozarren zapatutik, martxoaren 31tik aurrera. Lau zapatutan izango dira eskolak, 10:00etatik 17:00etara. Beste hiru saioak apirilaren 28an, maiatzaren 19an eta ekainaren 16an egingo dituzte. Teoria eta praktika uztartuko dituzte eta saio bakoitzean, landutako menuko plater guztiak osorik landuko dituzte. Beti ere, produktu ekologikoak erabiliko dituzte ikastaroan. Elikadura naturala, orekatua eta osasuntsua lantzea da ikastaroaren helburu nagusia. Besteak beste, proteina

begetalen onurak eta itsasoko barazkien propietateak jorratuko dituzte.

Izen-ematea zabalik

Matrikularen prezioa 100 eurokoa da. Horrez gain, saio bakoitzeko 20 euro ordaindu behar dira. Izen-ematea 662 34 78 04 (Antton Otaola) edo 676 64 89 07 (Inmaculada Ortiz de Orruño) telefonoetan egin daiteke.

Izen-ematea zabalik dago eta interesatuek 662 34 78 04 (Antton Otaola) edo 676 64 89 07 (Inmaculada Ortiz de Orruño) telefonora deituta edo antonotaola@gmail.com helbidera idatzita jaso ditzakete argibide gehiago.



Pertsona bat zebraidea gurutzatzen Ibarraingain, autobus geltoki ondoan. | U.M.

Autobus geltokiko "segurtasun faltarengatik" kezkatuta daude sozialistak

UBANE MADERA | BERGARA

Herriko autobus geltokiak duen egoera salatu du Mari Carmen Barrenetxeak, Bergarako bozeramaile sozialistak. "Autobus geltokirako semafororik ez dago; erabat heroikoa da bertara joan

edo handik irtetea. Autobusak iristen direnean jendea errepidean korrika ikusten dugu", adierazi du, eta gogora ekarri gune horretan "oso ikusgarritasun txikia" dagoela gidariendako eta autobus bidaiariendako.

Irudiarekin kezkatuta

Ibargaraiko autobus geltokiko "segurtasun falta" salatzeaz gainera, "garbiketa falta" ere salatu du Barrenetxeak; haren arabera "kartel ugari" dago ordutegien gainean ipinita.

Sozialistak adierazi du Udal Gobernuak neurriak iragarri arren, ez duela ezer egin; eta, besteak beste, kontuan hartuta Bergaran UNED ikastetxea dagoela eta bertako askok autobusak erabiltzen dituztela, "kezkatuta" daudela "ematen den irudiarekin".



Plater ezberdinak landuko dituzte ikastaroan.

Eric Haas, Kalifornia urrunetik Pikumietara etorritako artzaina

Elosua eta Aizpurutxu bitarteko Pikunieta baserrian dabil lanean Eric Haas gaztea; besteak beste, ardi-gazta ekologikoa egiten dute

EDU MENDIBIL | BERGARA

Garai batean Euskal Herritik AEBetara joaten ziren euskal artzainak lanera. Bada, Eric Haasek alderantzizko bidea egin du. Urtarrila ezkerre Elosua eta Aizpurutxu bitarteko Pikunieta baserrian dabil lanean.

Kaliforniarra sortzez, Sonoma herrian sukaldari lanetan ziharduen Eric Haasek (27 urte), eta Euskal Herriko sukaldaritza ezagutzeko interesa zeukan. Aurretik ere bazeukan esperientzia AEBetako zenbait abeltegietan eta basetxetan, eta WWOOF (Willing Workers On Organic Farms) elkartearekin harremanetan jarri zen, Euskal Herrira etortzeko zuden aukerak aztertzeko. Joan den abuztuan etorri zen lehenbiziko Pikumietara eta esperientzia gustatu zitzaion: "Ingurunearekiko errespetua eta animalien ganako etika funtsezkoak dira niretako eta gustuko dut Pikumietako ereduak, tamaina egokia duelako eta baserri inguruko lan integrala egiteko aukera eskaintzen didalako".

Lan integrala Pikumietan

Pikumietan, berriki hil den Idoia Azkarate eta Jose Ramon Arrieta *Ezkerra*-ren familiaren laguntza izan du Eric Haasek. "Ezkerrak 25 urtetik gorako esperientzia dauka ardiekin eta gauza asko ikasi ahal izan ditut beraiengandik. Eskola moduko bat izan da niretako eta, esaterako, azken bost asteotan gazta egiteko prozesua bertatik bertara ezagutu dut". Ardi gazta ekologikoa egiten dute Pikumietan. Bereziki, animaliekin eta naturarekin harreman zuzena izatea baloratzen du



Eric Haas, Arrasateko artzain ferian, ardi-gazta ekologikoa saltzen. | E.M.

Haasek: "Gauza handia da arku-meak jaiotzen ikusi, edo haiei edaten erakutsi... Esnea jaista ere bai... Lan bizia eta gogorra da, bereziki urtarriletik ekainera bitartean, baina niretako bizi-modu ideala da, naturari hurbil-

tzeko modu natural eta oinarrizko bat". Astean 80 bat gazta egiten dituzte Pikumietan eta gehienak aspaldiko erosleei zuzendutakoak dira. Aurreko udan bost astez egon zen Eric Haas Pikumietan, eta ondoren, Fran-



Pikumietako irudi bat.

tzian eta Aragoi ere ibili zen. Aurtengorako, Londresera joan eta psikologia ikasketak egitea zen bere asmoa, baina urtarrean bisitan etorri zenean Pikumietan geratzea proposatu zitoten eta baietza eman zuen. Ikasketak Internetik egiten ari da eta apirilean izango ditu azterketak.

Alaskako bakardadean

Bien bitartean gustura dabil gure artean eta ondo baino hobeto integratu dela diosku. Bizitza lasaia atsegin du eta horren adierazgarri AEBtan egin duen lanetako bat: bi uda darama Alaskara joaten, hango gobernuak ordainduta. Ibaiak izokinekin birpopulatzeko lanean ibiltzen da beste lagun batekin, inguruan, kilometro askoan, inor ez dutela. "Horrelako lanek eta psikologia ikasketek badute zerikusia, nor garen ezagutu eta naturaren aurrean ezer gutxi garelako ikasi".

OHARRAK

ERRAMU ZAPATUKO HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK

Erramu Zapatuan herri bazkaria izango da Udal Pilotalekuan, 14:30ean. Menua honako hau izango da: Menua: txorizo egosia eta patea sarrerako gisa, oilasko errea eta entsalada jarraian eta amaitzeko kafea herriko gozotegietako bizkotxoarekin lagunduta. 400 lagun batzea da antolatzaileen asmoa. Bazkarirako txartelak (12 euro) Hamaika, Deportivo, Euxebio, Bule, Ariznoa, Kortazar eta Frontoiko tabernan eskura daitezke.

1982AN JAIOTAKOEN BAZKARIA ZAPATUAN

1982an jaiotakoek bazkaria egingo dute Erramu Zapatuan, Agorrosingo tabernan. Aurrez 25 euro ordaindu behar dira Caja Ruraleko kontu honetan: 3008 0198 27 2475491219. Zapatuan 12:00etan elkartuko dira Bule tabernan.

HAURRENDAKO UR JARDUERAK

Sei hilabete eta 4 urte bitarteko haurrendako ur jarduerak antolatuta dituzte Agorrosin. Ikastaroa apirilaren 21ean hasiko da eta eta ordu arte plaza libreak betetzeko aukera eskaintzen dute. Argibideak Agorrosin Kirolgunean, 943 77 70 95 telefono zenbakian.

ARTISTAK ETA HERRI BARRUKO ERAKUSLEIHOAK

Udalak egitasmo bat jarri du abian alde zaharrean hutsik dauden lokal komertzialen erakuslehoak Bergarako artisten artean dotoretzeko. Ekimen honetan parte hartu nahi duen Bergarako edozein artistak du aukera eta Udalak parte hartzerako gonbidatzen ditu. Informazioa jaso ahal izateko zuzendu Beart herriko artisten elkartera (635 71 32 69 telefono zenbakia) edo kultura etxera (943 77 91 58). Izenematea gaur, hilak 26, itxiko dute.

ODOL ATERATZEAK, ASTE SANTUAREN OSTEAN

Bergarako Odol Emailen Elkarteak jakitera eman duenez, apirilko odol ateratzeak Aste Santuaren ostean egingo dituzte. Hain zuzen ere apirilaren 11n eta 25ean egingo dituzte odol ateratzeak ambulatorioan, ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era.

SAN MARTZIALGO KANTINARAKO ESKAERAK

Uztailaren lehen San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta txosnaren esplotazioa adjudikatuko ditu Udalak. Irabazi asmorik gabeko elkar-teek, talde herrikoiek eta elkarte benefikoek maiatzaren 30era arte daukate eskaerak aurkezteko epea zabalik.

Uberarrak, ederto sagardotegian

Uberako 35 lagun Ikaztegiatiko Begiristain sagardotegian izan ziren aurreko zapatuan, hilaren 16an. Adin askotarikoak joan ziren, 15 urteko gaztetxoak eta 60 urtetik gorako *beteranoak* tartean. Musikariak ere eraman zituzten, eta txotx artean ederto ibili ziren uberarrak. Primerako giroa izan zuten sagardotegian eta etxerako bidean.



IRAITZ SALEGI

Jorge Gil | Argazkilaria

"Aurpegia estalita lan egiten duten pertsonen erretratu sorta da; ikusezin izan gura dute"

- ▶ 'Invisibles' erakusketa dago ikusgai kultura etxeko aretoan
- ▶ Thailandian egindako formatu handiko 12 erretratu ikus daitezke

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jorge Gilek formatu handiko 12 erretratu ipini ditu ikusgai kultura etxean, Ilunpetan taldeak gonbidatuta. Thailandian egindako argazkiak dira. Apirilaren 4ra arte egongo da zabalik. Hilaren 19an inauguratu zuten, eta Gil ekitaldian egon zen. Harekin berba egin genuen.

Zer egiten du argazkilaria madrildar batek Oñatin?

Ilunpetan taldeko kide Itziar Bastarrika ezagutzen dut, eta hark gonbidatuta etorri naiz.

Dena den, oso ondo ezagutzen dut Euskal Herria. Erretratuak egiteko leku zoragarria da. Urtean lauzpabost alditan etortzen naiz Gipuzkoara.

Zer ikusiko dute ikusleek erakusketan?

Formatu handiko 13 erretratu dira. Aire zabalean eta aurpegia estalita lan egiten duten langileak ikusiko dituzte. Kutsadura maila handiak eta estetikarekiko duten zainketak bultzatuta erabiltzen dituzte maskarak, mendebaleko herrialdeetan klandestinitatearekin lotzen dugun irudia eskainita.

Zergatik Invisibles izena?

Thailandia bisitatzen duten atzeritarren begietara ikusezina diren pertsonen erretratu sorta delako.

Eta zergatik Thailandian?

Une hartan han nengoelako. Argazki asko egin nituen, eta ez zitzaidan bat bera gustatzen. Thailandiarekin zerikusi handirik ez zuten erretratuak zirela usten nuen. Atzeritarrek Thailandiarekiko duten begiradarako erre-



Jorge Gil, Bangkokren egindako erretratuak erakusten. | MIREIA BIKUÑA

"Thailandian jaso nuena erakutsi gura izan dut erakusketarekin"

tratu aproposak ziren, baina ez hango bizitzaren eta bizilagunen erretratuak izateko. Hara egindako bidaian asko jaso nuen, eta erakusketa honekin, jasotako erakutsi gura izan dut. Erretratu

"Kanpotarra izanda, arduratuta nago, baina gustukoa izatea espero dut"

guztiak Bangkokren egin nituen. Hiri polita da, oso jendetsua. Dene-tarik dauka.

Oñatira 12 ekarri dituzu, baina asko egin zenituela esan diguzu. Nola egin zenuen aukeraketa?

Lau kupo

Guztira, San Martin 6, 7 eta 8 zenbakietako 39 etxebizitza zozketatuko dituzte. Lau kupotan banatuko dituzte eskatzaileak: mugikortasun arazoak dituztenak (bi etxe), familia ugariak (bi etxe), bi logelako etxea gura dutenak (sei etxe) eta kupo orokorra (29 etxe). Lehen hiru kupoetan etxe barik geratzen direnak, kupo orokorrean sartuko dituzte. Etxearekin garajea eta trastelekua erosi beharko dira.

Zozketan parte hartu ahal izango dute 2011ko abenduaren 1a baino lehen Etxebiden izena emanda eta Oñatin bi urte lehenagotik errolatuta daudenak. Dena den, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak ez dute errolaren baldintza derrigorrez bete behar, baina oñatiarrek izango dute lehentasuna.

Erretratuetan agertzeko euren burua aurkeztu zuten pertsonak aukeratu ditut.

Eurei galdetzen nien presta egongo ziren erretratuaren irteko. Batzuek baiezkoa eman zidaten. Kontuan hartu behar da Thailandiako langileak taldeka mugitzen direla, talde handietan. Talde osoari argazkia egitea oso zaila da. Horregatik agertzen da erretratu bakoitzean pertsona bakarra.

Argazkilaria profesionala zara?

Ez, ez naiz argazkilaria profesionala. Nire ametsa horixe litzateke, baina, oraingoz, aldikako lanak besterik ez dut egiten. Diseinu grafikoa egiten duen enpresa batendako lanak egiten ditut, baina nire lanbidea mezu-larritza da. Bizikletan dabilen mezu-laria naiz.

Madril erdialdean bizi zara. Aldaketa handia Madril eta Oñatiren artean.

Izugarria. Miranda de Ebro alde-ira iristen naizenean, beste mundu baten sartzen naizela dirudi. Aldaketa bortitza da, ikaragarria.

Apirilaren 4ra arte ikus daiteke zure erakusketa. Ze emaitza espero duzu?

Inaugurazio egunean pertsona asko egon ziren. Egia esan, ez daukat helburu zehatzik.

Badakit areto honetan maila askotariko argazkilarien erakusketak egon direla: profesionalak, amateurrak, argazki elkarteetakoak... Kanpotarra izanda, arduratuta nago, baina, ere berean, oso pozik. Espero dut gustuko erakusketa izatea.

OHARRAK

BILKETA

Baserrietan sortutako plastikozko zuria eta beltza batuko dituzte bihar, martitzena. Oñatin lau lekutan utzi daitezke plastikozkoak: ETEO zahar-eraren atzealdean; Olabarrietako autobus geltokian; Zañartun, Zuazola inguruan; eta Murgian, Asentzio ermitaren ondoan. Plastikozkoak gaur, astelehena atera behar dira, 17:00etatik aurrera.

TRASTE ZAHARRAK

Hileko eguen guztietan, 20:00etatik 22:00etara arte, batzen dituzte etxean pilatutako traste zaharrak. Interesatuak 943 71 19 38 telefonora deitu behar dute trasteak non eta ze lekutan utzi jakiteko.

Nekazaritzako ur-kontsumoa diruz laguntzeko ordenantza

Nekazaritza ustiatetarako erabiltzen den ur-kontsumoa diruz lagunduko du Udalak, eta hori aplikatzen duen ordenantza indarrean dago jadanik. Hiru hileko, gutxienez, 62 metro kubikoko ur kontsumoa duten nekazaritza ustiatetarako %50eko deskontua izango dute; betiere, hobaria aplikatzeko, gehienezko oinarria 1.000 euroko ur-kontsumoa izango da. Ordenantza ikusgai dago www.oinati.net atarian.

Musika Eskolako udaberriko kontzertua egingo dute gaur

Musika Eskolako ikasleek udaberriko kontzertua egingo dute gaur, 18:30ean, Santa Ana antzokian. Tailerretako eta moduluetaiko ikasleek, piano, gitarra, perkusio, akordeoi eta txirula taldeetako ikasleek parte hartuko dute. Kontzertura joateko gonbidapenak jaso behar dira musika eskolan bertan. Hurrengoa maiatzaren 3an egingo dute.

Ganbarako musikalerako sarrerak salgai

Ganbara Txikitxo eta Ganbara Txiki abesbatzek *Ondo pasatzeko prest* musikala egingo dute hilaren 31n. Gaurtik egubakoitzera arte ipiniko dituzte salgai sarrerak Santa Anako sarreran, bost eurotan. Bizitza osasuntsua izateko kirolak eta ondo jateak duten garrantzia azpimarratuko dute musikalean.

Malirako elikagaiak batzen dihardute denda eta eskoletan

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, Malira, San elizbarrutira, bidaltzeko elikagai bilketa egiten dihardute hilaren 31ra arte. Herriko supermerkatuetan (Eroski, Super BM, San Migel kooperatiba, Dia eta Matea) eta Elkar Hezi, Errekalde Herri Eskola eta Txantxiku Ikastolan batzen dihardute arroza, irina, pasta eta azukrea.

'Gaztedia herri-jorran' prozesuaren bigarren batzarra hilaren 31n

Gaztelekuari zer erabilera eman eta nola kudeatu erabakitzeko, *Gaztedia herri-jorran* prozesua abiarazi zuten urtarrean. Bada, orduan hasitako bidearen bigarren etapa hilaren 31n egingo dute gaztelekuan, 11:00etan. Dei berezia egiten diete lehen bileran egon ez ziren sektoreetako ordezkariak.

San Martingo etxeen zozketarako zerrenda ikusgai apirilaren 4ra arte

Era berean, izena emateko epe bera dute bi logelako kupuan parte hartu gura dutenek

M.B. | OÑATI

San Martingo egiten diharduten babes ofizialeko etxeen zozketarako hautagaiak direnen zerrenda ikusgai ipini du Udalak. Etxebide bidalitako zerrendako kontsulta daiteke udaletxeko iragarki-taulan, www.oinati.net atarian edo Santa Anako beirartean, apirilaren 4ra arte. Tarte horretan, alegazioak aurkez daitezke.

Era berean, epe hori zehaztu dute bi logelako etxeen kupuan sartu ahal izateko izena emateko. Bi logelako sei etxe zozketatuko dituzte. Interesatuak eskaera udal bulegoan egin beharko dute.

Alegazioak aurkeztu eta bi logelako etxeen kupoa osatu ondoren, behin betiko zerrendak osatu eta zozketa egingo dute; seguruenik, Aste Santuaren ondoren.

ARETXABALETAKO

Gaur hautatuko dute kiroldegiko enpresa

Hamar urteotan kiroldegi berriaren ardura zein enpresak izango duen erabakiko du udalbatzak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Gaur (18:00) egingo duten ohiko osoko bilkurako gairik garrantzitsuenetakoa kiroldegia kudeaketarekin arduratuko den enpresaren hautaketa izango da. Bi aurkeztu ziren lehiaketa deira: Goiena Sport batetik, eta hiru enpresek bat egindako elkarte batetik: LKS, Athlon eta Ondoan.

Bi horien eskaintzak aztertzeko mahaia osatu zuten urtarrian honako kideek: Ana Bolinaga, alkatea; Tomas Fernandez, Kirol zinegotzia; Olaia Sagredo, Bertintzasun zinegotzia; Xabier Mendizabal, Udal idazkaria; eta Juan Antonio Martinez de Agirre, diruzaina. Bi hilabete pasatxoan ibili dira lanean bi eskaintzak ondo aztertu guran, eta gaur proposamen

bat aurkeztuko diete udalbatzako gainerako kideei osoko bilkuran onartzeko.

Maiatzean zabalik

Hautatutako enpresa horrek 10 urtetan kudeatuko du Ibarra kiroldegi berria. Bertako kirol jarduera guztiak antolatuko ditu eta tarifak zehaztu ere bai; hala, apiril inguruan hasiko dute abonatzeko kanpaina.

Udalaren asmoa da maiatzean zabaltea kiroldegia eta herritarrei erakustea eraikina ordaintzen hasi aurretik.

Lau mozio eztabaidagai

Gai horrez gain lau mozio izango dituzte eztabaidatzeko gaur, eta Basotxo erretiratuen elkarte tabernaren lehiaketa-oinarriak onartuko dituzte.

ESKORIATZAKO



Eguenerako, hilak 29, lan erreformaren kontrako greba dago deituta. | MIRIAN BITERI

Udalbatzak Alderdi Popularraren lan erreforma arbuiatu du

Araudi horren harira PSE-EE eta Ezker Anitza taldeek aurkeztutako mozioak onartu zituen udalbatzak martxoko osoko bilkuran

MIRIAN BITERI | ESKORIATZAKO

Espainiako Alderdi Popularraren gobernuak onartutako lan erreforma gaitzetsi zuen udalbatzak hilaren 15ean egindako osoko bilkuran. Horren gaineko mozio bi aurkeztu zituzten; Elizateetako zinegotziak abstenitu egin ziren eta gainerako taldeetako ordezkariak bien alde bozkatu zuten.

Ezker Anitzaren proposamenak otsailaren 10eko Errege Dekretu-legea, lan erreformarako presakzio neurriak buruzkoa, bertan behera uztea eskatzen du. Erreforma horren helburuak enplegua mantentzearen aurka daudela dio, eta langileen kalitatea errazteko baino ez duela balio uste du, langabezi gehiago sortuz eta Eskoriatzako langileen eskubideak kaltetuz. Horrekin batera, herritarrei eskatzen die langileen eskubideen kontrako "eraso" horren aurrean, haien oposizioa adierazi dezatela, eta deitzen diren mobilizazioetan parte har dezatela. Azkenik, akordio horren berri Espainiako Gobernuari eta Diputatuaren Kongresuari ematea ere proposatzen du Ezker Anitzako Juan Luis Merino zinegotziak aurkeztutako mozioak.

PSE-EE taldeak aurkeztutakoa ildo beretik doa. Horrek udalbatzak lan erreformak aurreikusten dituen neurriak "gogor" salatzen, "erregresiboak" eta "bidegabekoak" izateaz gain, ez dutelako balio enplegua sortzeko. Talde horretako zinegotzi Jose Luis Canteroren esanetan, lan baldintzak kolokan jartzeko eta enplegua hondatzeko baino ez du balio Alderdi Popularraren araudi berri horrek.

Horretaz gainera, hitzarmen kolektiboen ultrajardueraren desagerpena ahalbideratzeak negoziazio kolektiboaren kontrako eraso suposatzen duela dio; Canteroren arabera, lan baldintzen erregulaziorako oinarriko iturria da hori.

Garoñaren itxiera

Osoko bilkura berean, Ezker Anitza-IU taldeak mozio baten bidez eskatuta, Garoña zentral nuklearra itxi dezatela eskatu zuen udalbatzak. Elizateetako ordezkariak izan ezik, gainerako beste guztiak horren alde bozkatu zuten; Elizateetakoak abstenitu egin ziren. Mozio horretan Espainiako gobernuari eta Seguratasun Nuklearerako Kontseilua-

ri eskatzen zaio esandako zentral nuklearrak 2019. urtera arte mar txan jarraitzeko baimenik ez luzatzea, eta "ahalik eta azkarren" behin betiko itxi dezatela.

Horrekin batera, zentralaren jabe diren Endesa eta Iberdrolari 2013. urtetik Garoña ustiatzen jarraitzeko asmoa alde batera utz dezatela exijitzen da. Azkenik, Espainiako Industria Ministerio, Seguratasun Nuklearerako Kontseilu, Endesa eta Iberdrolari mozio horren kopia bidaltzea ere aurreikusten zuten mozioak.

Horretan salatzen da interes ekonomikoak herritarren seguratasunaren gainetik daudela. Horren harira, gogoraz du Fukushima-ko istripua dela-eta, erradiazioak zentraletik 100 kilometrotara dauden laboreei eragin diela.

Itziar Martinez Hezkuntzara

Bestalde, aldaketak daude Udalean. Hezkuntza zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketaren ardura aldatuko dela jakinarazi zuen Beñat Herce alkatea osoko bilkuran. Orain arte bera arduratu da hezkuntzarekin lotutako gaiez, eta hemendik aurrera Itziar Martinezek (Bildu) izango du horien ardura.



Ibarra kiroldegia kanpoaldea, langileak lanean dabilzala. | M.A.

Arterietako hipertentsioaren gaineko berbaldia egingo du Alberto Montero medikuak bihar

Barne medikuntzan espezializatutako Alberto Montero medikuak arterietako hipertentsioaren gainean egingo du berba bihar, hilak 27, Arkupeko Zaria aretoan (19:00). Gero eta lagun gehiagori eragiten dion gaixotasuna delako antolatu du Kultura Sailak, eta Monterok landuko dituen gaien artean daude: hipertentsioa zer den eta zerk eragin dezakeen; prebenitzeko zer egin; eta tratamenduak eta aholkuak.

Garizuma gertatzen hasiko dira pastoral barrutiko kideak hainbat otoitzaldi eginda astean

Bihar, martitzena, Pastoral Barrutiak garizumari begira antolatutako otoitzaldia izango du agustindarren monasterioan (19:00). Egubakoitzean, hilak 30, oster, gurutze-bidea otoitz egingo dute parrokiari (19:00); eta domekan, apirilak 1, erramuen bedeinkapena izango dute eliztarrekin batera monasterioan (09:00) eta parrokiari (11:30).

Martxoaren 31ko Arantzazuko erromesaldira autobusean joateko izen-emate epea zabaldu dute

Martxoaren 31n, zapatua, Donostiako Elizbarrutiak antolatutako Arantzazuko erromesaldira joan gura dutenek autobusa izango dute. Parrokiako sakristian eman behar dute izena, lehenbailehen, eta 12 euro ordaindu. Oñatira joango den autobus hori 08:30ean irtengo da Aretxabaletatik, eta han, Gipuzkoako gainerako erromesekin elkartuko dira Arantzazura igotzeko.

Eskoriatzako alkatea bihar Goienako 'Harira' saioan

Beñat Herce Eskoriatzako alkatea Goiena telebistako 'Harira' saioan izango da bihar. Ikus-entzuleek saioan parte hartzeko eta alkateari galderak egiteko aukera izango dute, saioa zuzenean da-eta (21:30). Hainbat modutara egin ahal dute: 943 25 05 03 zenbakira deituta edo Twitter bidez, #harira hashtag-a erabilita.

Bihar da azken eguna Salamancarako bidaiari izena emateko

Olazar elkartearen eskutik, apirilaren 8tik 14ra Salamancara joango dira herriko erretiratuak. Besteak beste, Salamanca, Alba de Torres, Arribes del Dueroko Parke Naturala, Bejar eta Candelario, Zamora eta Jerteko harana bisitatuko dituzte. Izena eman nahi dutenek elkarteko bulegoan egin beharko dute bihar, martitzena, 11:00etatik 12:30era.

Sorospen ikastaroa eta bikoteen gatazken tailerra daude asteon

Bihar, martitzena, *Nola jokatu larrialdi kasu ohikoetan*. Lehen sorospenak ikastaroa eskainiko dute DYAKoek Eskoriatzako kultura etxean, 18:30ean. Etzi, oster, Udaltetik antolatutako *Bikoteen gatazka, krisia edo aukera?* tailerra egingo dute 18:00etan, toki berean. Azken saioa da eguaztenekoa.



Hondakin gutxiago, ongizate gehiago erakusketa Oñatin. | MIREIA BIKUÑA

ELGETA

'Hondakin gutxiago, ongizate gehiago' erakusketa aste osoan antzokian ikusgai

Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako erakusketak sentsibilizazioa bultzatzea du helburu, eta gidatutako bisita bat antolatu dute etzirako

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Debagoieneko Mankomunitateak zaborren kudeaketaren inguruan antolatutako erakusketa ibiltaria Elgetara iritsiko da gaur, astelehena. Urtarrilean hasi zuen bere ibilbidea Oñatin, eta bailarako gainerako herrietan izan ondoren aste osoan zehar egongo da ikusgai Elgetan. Gure herrian amaituko du, gainera, Debagoieneko bere ibilbidea.

Hondakinaren sorreraren inguruko sentsibilizazioa du erakusketak helburu. Oso bisuala da; argazkiak, irudiak eta mezuak erraz ulertzeko bideo motzak osatzen dute. Ikus-entzunezko horietan erakundeek bultzatzen dituzten ekimenak aurkezten dira baita hondakin gutxiago sortzera bideratutako ekintzak ere. Zazpi ataletan banatzen da erakusketa, eta bakoitzean pre-

bentzioaren eta berrerabilpenaren alderdi bat lantzen da. Zazpi bloke tematikoak dira: ur zirkuituak, diseinuzko tratamenduak, kontrasteen eremua, terapia miragarriak, berpiztua irteko formulak, hondakinterapia, eta azken zirkuitua.

Bisita gidatua eguaztenean

Erakusketa egunero egongo da ikusgai, eta publiko orori zuzenduta dago, baina Mankomunitateak bisita gidatu bat antolatu du Elgetan. Eguaztenean, hilak 28, egingo dute 19:00etan hasita. Hala, erakusketa modu gidatuan ikusi ahal izateko nahikoa izango da esandako orduan agertzea, aldezturik izena edo beste abisurik eman barik. Bisita horretan ikasiko dugu, besteak beste, iturriko ura edateak botilako ura edateak baino hondakin gutxiago sortzen

duela, janaria ez dela zaborra, eta ez zikintzea hobea dela garbitu beharra izatea baino.

Plastiko bilketa

Zabor kudeaketarekin lotuta jakin Mankomunitateak martitzenean, hilak 27, batuko dituela baserri ingurunean sortutako plastikoak. Siloa estaltzeko zein belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko zuria batzen ditu Mankomunitateak. Interesatuak arratsaldean utzi beharko dute plastikoa ohiko lekuetan. Bergaran Ugarrixan, Muinondon edo San Juan auzoko eliza aurrean batzen dute. Elgetara igotzea nahi izanez gero kome ni da aurrez telefonoz abisua ematea; 943 762 547.

go dira goiz pasa. Bidaia nork bere automobilean egingo du, eta sarrera Gurelek ordainduko die guztiei.

Bestalde, ludotekak egubakoitzean hartuko dituela oporrak jakinarazi dute.

Apirilean Loreen Eguna

Aste Santuko oporrak bukatuta koan Loreen Eguna egiteko asmoa daukate Gureleko kideek. Data zehatzik ez dute eman "izotz garaia bukatuta dagoela ziurtatu gura dugulako", baina apiril bukaeran izango dela bai. Udaberriko landareekin apainduko dituzte herriko bazterrak orduan, umeek eta gurasoek elkarrekin.

ARAMAIO

Azken egunak Txirritola elkartearen ipuin lehiaketan izena emateko

Egubakoitzean, hilak 30, itxiko da izen-ematea; sari banaketa ekitaldia apirilaren 27an da

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Asteon itxiko da Txirritola euskara elkartearen ipuin lehiaketarako izen-ematea. Antolatuzaileek gogora ekarri dituzte lehiaketako oinarriak: Aramaion bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte, ipuinak euskaraz eta aurrez argitaratu gabeak izan behar dira, parte hartzaile bakoitzak sari bakarra jaso ahaliko du eta gaia librea izango da. Euskaraz zuzen idaztea -batuan zein euskalkian- eta originaltasuna baloratuko dira, eta lanek gutxiengo kalitatea ez badute, sariak hutsik uztea erabaki dezake epaimahaia.

Ipuinak udal-liburutegian aurkeztu behar dira egubakoitzean hilak 30, baino lehen. Nola?

Kartazal handi baten sartuta; kartazal handiaren gainean Txirritola ipuin lehiaketa, egilearen goitizena eta eskolako maila idatzi, eta barruan ipuina eta kartazal txiki bat sartu beharko dira. Hor egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa idatzi.

Antzerkia sari banaketan

Apirilaren 27an egingo den sari banaketan *Amona Joxeparen istorioak* antzezlanaren egongo da. Patata Tropikala antzerki taldearen haurrendako antzezlan horretan Merlin aztiaren magia eta Amona Joxeparen txotxongiloz lagundutako ipuinak entzungo dituzte haurrek, sariak jaso ostean.



Amona Joxeparen istorioak antzezlanaren. | GOIENA

ANTZUOLA

Arrolak urteko batzar orokorra egingo du

Martxoaren 28an, eguaztenean, egingo du Arrola mendi taldeak urteko batzar orokorra

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Batzarrean, urteko gorabeheren berri emango diete bazkideei. Ondoren, Arrola mendi taldearen antzinako eta gaur egungo mendi irteerak, ibilbideak jasotzen dituen ikus-entzunezkoa izango da ikusgai. Ikus-entzunezko hori Jabi Etxanizen eta Iñaki Legorbururen eskutik izango da ikusgai.

Urteko batzar orokorreko lehen deialdia 18:15ean da; bigarrena, aldiz, 18:45ean. Bertan izango dira oraingo batzarkideak eta berriak.

Autobus zerbitzu aldaketa

Aste honetan zehar Kalegoien egiten ari diren obra bat dela eta, Zumarragarako autobusek Antiguana izango dute geltokia. Bergararako autobusek, berriz, ohiko geltokia izango dute.

Bestalde, gogoratu beharra dago apirilaren 16an Antzuolaren eta Arrasateko ospitalearen arteko autobus zerbitzua martxan jarriko duela Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Hauexek dira ordutegiak: Antzuolatik Arrasatera: 07:00, 08:30, 10:00, 11:30, 14:30, 16:00, 17:30; Arrasatetik Antzuolara: 07:30, 09:00, 10:30, 13:30, 15:00, 16:30, 19:00.

Geltokiak, aldiz, hauek: joanekoan, Antzuola (Olaran), Bergara (Ibargarai eta autobus geltokia), Arrasate (ospitalea eta Garibai); etorrikoan, Arrasate (ospitalea eta Garibai), Bergara (Ibargarai eta autobus geltokia), Antzuola (Olaran).

Bada, Debagoieneko ospitale berria ekainaren 18an zabalduko dute, eta zerbitzu zabala- goak eskainiko ditu.

LEINTZ GATZAGA

Arrikruz ezagutzera joango dira Gureleko kideak zapatuan

Oñati inguruan bazkalduko dute gero; horretarako izen-emate epea gaur bukatuko da

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteak kideak Arrikruz ezagutzera joango dira datorren zapatuan, martxoak 31. Gero Oñati inguruko jatetxe batean geratuko direla bazkaltzera jakinarazi dute. Izen emateko epea gaur, astelehena, bukatuko da; Labideara jo behar da horretarako.

Arrikruzera goiz pasa

Aste Santuko oporrak hartu aurretik irteeratxo bat egiteko gogoaz zuten Gureleko kideek. Elurretara joateko asmoa agertu zuten orain dela aste batzuk, baina elur gutxi izango dela pentsatuta gertuago geratu eta bertako altxorrak ezagutzera erabaki dute. Hala, Oñatiko Arrikruz kobetara joan-

MARTXOKO SARIEN IRABAZLEAK

Debagoiena ezagutzen ataleko Jakionen otarreak

Izen-abizenak:
Nieves Agirre Eraña
Herria: Eskoriatza

Izen-abizenak:
Xabier Mugartza Aiastui
Herria: Oñati

Izen-abizenak:
Jose M. Gonzalez Imaz
Herria: Bergara

Eureka museoa ikusteko gonbidapenak

- Atarratz Etxebarria Arana (Arrasate)
- Eluska Irazu Hernandez (Eskoriatza)
- Edurne Iñarra Bastardo (Bergara)
- Gorka Bikuña Mtnez. de Zuazo (Oñati)
- Asier Bergaretxe Leibar (Arrasate)

Koore etxearen kamisetak eta izerdi-jertseak

- Iradi Belategi Fernandez (Arrasate)
- Luis Ginart Zubizarreta (Arrasate)
- J.Mari Elkorro Iturriaga (Arrasate)
- Fernando Iñurritegi (Arrasate)
- Olatz Etxabe Okina (Arrasate)
- Gurutz Jausoro Ugarte (Oñati)

Sortuko dira besteak Xabier Lete gogoan kantaldirako sarrerak

- Arantza Ugarte Bolibar (Aramaio)
- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Eider Otxoa Inda (Aretxabaleta)
- Jesus Belamendia Agirre (Elgeta)
- Blanca Lasa Balzategi (Bergara)
- J.Luis Carnicero (Bergara)
- Axier Lopez Kortabarria (Oñati)
- J.Angel Oiangueren Arana (Aretxabaleta)
- Luis Elexpuru Unzueta (Aramaio)
- Juan Ramon Balenziaga Errasti (Arrasate)

Markeliñe taldearen Hareazko ipuinak antzezlanerako gonbidapenak

- J. Mari Lasaga Heriz (Arrasate)

ASTE HONETAKO ESKEINTZAK



SARRERAK
ZEA MAYS kontzerturako sarrerak.
Oñatiko gaztelekuan.
Martxoak 30ean, 23.00etan.
Gonbidapen bikoitza.

PARTE HARTZEKO:
SMS bidez: Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com



OÑATIKO UDALA



KAMISETAK ETA IZERDI-JERTSEAK
KOLOORE etxearen kamisetak eta izerdi-jertseak

PARTE HARTZEKO:
SMS bidez: Bidali KLUBA KOLOORE
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com



www.koloore.es.
ESKAERAK:
koloore@koloore.es.

Atera etekina txartelari

goienakluba 2012



AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99



ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03



AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39



BEGONDO
optika
Aretxabaleta, 943 79 98 21



GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41



ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96



GAES
Centros Auditivos
Entzumen zentroak
GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55



GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.



IKER
SUKALDEAK
IKER
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48



LASTAI
hautzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59



LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71



JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45



MULTIÓPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan
MULTIÓPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75



NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89



RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72



TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00



EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78



IZENADUBA BASOA
parke tematikoa
Mungia, 94 674 00 61

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozuzteza. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA

GORLAKO IGOERA

Gorlan gora ihes eginda bakarrik iritsi zen Ramirez helmugara

- ▶ Kanariarrak 2.26.00 denbora egin zuen atzokoan
- ▶ Mikel Aristi bergarar onena izan zen 03.09ra

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Lasterketa polita jokatu zuten atzo Bergaran. Hainbat ihesaldi egin ondoren, Santiago Ramirez kanariarra bakarrik iritsi zen Gorlako helmugara. Eskuak altxatuta sartu zen helmugan. Atzetik, 40 segundora, Antonio Pedrero taldekidea sartu zen eta baita iaz bigarren egin zuen Aitor Gonzalez ere.

Eroriko larria Zubillagan

Debagoiendarrei dagokienez, zortzi txirrindulari irten ziren atzoko lasterketan: Debabarrena taldeko Hodei Orobengoa, Mikel Aristi, Eneko Lizarralde eta Jon Rivero; eta Kanpanzar Harrobiak taldeko Xabier Umerez, Iker Eskibel, Rafa Cordero eta Alex Aranburu. Lasterketa nahiko lasai hasi zuten txirrindulariek. Lehengo aldiz Gorla igo zutenean taldetxoak sortu ziren, izan ere, denek nahi zuten talde on bat hartu eta atzean ez geratzea. Zubillagan eroriko handi bat izan zen: Hodei Orobengoa eroriko horretan izan zen. Min hartu zuen Orobengoak eta atzean gertzen zebilela ikusita, lasterketatik kanpo utzi zuten epaileek. Bestalde, Comet Pierre frantziarra ospitalera eraman behar izan zuten lepauztaia apurtuta.

DATUA
102
ZIKLISTA
Atzo 81 kilometroko lasterketa amaitu zuten ziklistak 102 izan ziren. 36,9 km/orduko izan zen batz besteko abiadura.

Azken uean ihes egin zuen

Gorla lehenengo aldiz igo ondoren Aizpurutxo igo behar izan zuten txirrindulariek; eta amaitzeko, berriro ere Gorlako mendatea. Bigarren igoera hori gogorra izaten dela esan zuten txirrindulariek bukaeran.

Azkeneko igoera hori egiteko 10 bat laguneko taldea ihes eginda zihoan; tartean, iaz bigarren egin zuen Aitor Gonzalez eta aurtengo irabazle Santiago Ramirez. Gonzalezek amaieran azaldu zuen bera ibili zela tropeletik tiraka eta gainerako guztiak gupilean izan zituela: "Zainduta egon naiz igoera guztian. Irabazi duena nahiko atzean joan da. Igoerako bost kilometro gutxienez tiraka joan naiz eta besteak gur-

pilean izan ditut". Azkeneko kilometroetan Antonio Pedrero-ekin batera ihes egin zuen Gonzalezek, baina behin Gorlako gaina hartuta, Santiago Ramirezek aurre hartu zien bie eta bakarrik iritsi zen helmugara.

Gure txirrindularien lana

Kanariarra pozik zegoen lortutako garaipenarekin: "Ondo irten zait lasterketa". Atzokoan, behin baino gehiagotan entzun behar izan zuen eguzkia berarekin batera ekarri zuela Kanariar irletatik. Hirugarren sailkatua ez zegoen hain gustura: "Hirugarren egitea postu ona da baina pena eman dit aurrerago ez egoteak". Iaz bigarren egin zuen ermuarrak eta aurtengo lehenengo egiteko gogoa zuen. Hain zuzen, taldekideak ondoan izan zituen gogor lanean Debabarrenako txirrindulariak. Taldekideen artean libre samar ibili zena Mikel Aristi bergararra izan zen. Lehengo urtea du Aristik afizionatu mailan eta atzokoan lan bikaina egin zuen: "Ezin naiz kexatu. Uste dut gauzak ondo egiten nabilela eta emaitzek ere laguntzen dute", azaldu zuen amaieran. Eneko Lizarralde bergararendako ere lehenengo urtea da afizionatuetan. Lesio batetik irten berria



Gorlako podiuma: Lizarte izan zen talde onena; Ramirez irabazlea eta mendiko

da eta lasai hartu zuen atzoko lasterketa: "Denboraldia luzea izango dela esan didate".

Jon Rivero, Iker Eskibel eta Alex Anduagarendako ere lehenengo Gorlako igoera izan zen atzokoa. Pozik zeuden helburua bete zutelako: lasterketa amaitzea.

Ereserkia estreinatu zuten

Bergarako Udal Bandak egindako ereserkia entzuteko aukera izan zuten atzo Gorlara joan zirenek. Sari banaketa ekitaldian jarri zuten Lokatzarendako propio egindako abestia. Ramirezek irabazlearen eta mendiko onenaren saria eroan zituen; Aristik bergarar onenaren saria; talde onenaren saria Lizarte talde nafarrak eraman zuen; eta Jon Larrinagak lehendakari sariko maila jantzi zuen.

SANTIAGO RAMIREZ IRABAZLEA

"Ezkutuan ibili naiz eta azkeneko momentuan irten dut"

Kanariarra azkarrena izan zen Gorlako helmugan. Lasterketa lasaia egin zuen, baina amaieran ez zuen barkatu.

Nola joan da lasterketa?

Egia esan, nahiko ondo. Indar handiarekin ikusi dut nire burua, nahiko ezkutuan ibili naiz eta azkeneko momentuan irten dut. Ondo irten zait estrategia.

Azkeneko kilometroan egin duzu ihes.

Bai, mendatearen beheko aldean ihes egin dut eta ondo ateratu da dena.

Zer izan da gogorra gaurko lasterketan?

Azkeneko igoera gogorra egin zait, baina sentsazio onak izan ditudanez ondo igo dut.

Kanariarra izan arren Euskal Herrian jokatzeko duzu azkenaldian.

Bai, gazte mailatik nabil Euskal Herrian jokatzeko eta Gorlara etorri izan naiz gehiagotan ere.




MIKEL ARISTI
BERGARAR ONENA

"Ilusio handia egiten zidan, gogotsu nengoen eta ondo irten zait. Tentsio handiko hasiera izan da, denok aurrean joan gura genuen, aurrealdean joateko lasterketa zen gaurkoa".



IKER ESKIBEL
ESKORIATZA

"Banekien gogorra izango zela. Lasterketa bukatzeko asmoarekin etorri naiz eta lortu dut gura nuena. Sentsazioak hobetzen doaz eta gero eta gusturago nago".



ENEKO LIZARRALDE
BERGARA

"Afizionatuetan lehenengo urtea da; gainera, oraintxe hasi naiz korritzen, lesionatuta egon naiz-eta. Lasai hasi gara, baina Zubillagan gogortu egin da".



ALEX ARANBURU
ARRASATE

"Nire helburua lasterketa bukatzea izan da. Hemen maila handia dagoela argi dago; esaten dute Gorlan irabazten duena profesioletara igotzen dela".



AITOR GONZALEZ
HIRUGARREN SAILKATUA

"Nik gogor lan egin dut eta baita taldeak ere. Pena ematen dit egin duten lanagatik. Hirugarren egitea postu ona da, baina lastima aurrerago geratu ez izana".

FUTBOLA | Ohorezko preferenteko taldeek ez dute lortu garaipenik | 24



Irabazlea; Aristi bergarar onena; eta Larrinaga Lehendakari maillota. | JOSETXO ARANTZABAL

SAILKAPEN OROKORRA

1. Santiago Ramirez	2:26:00
2. Antonio Pedrero	2:26:40
3. Aitor Gonzalez	2:26:40
4. Jon Larrinaga	2:26:40
5. Victor Etxeberria	2:26:40
6. Bergerac Pacher	2:26:40
7. Rafael Marquez	2:26:56
8. Chetout Loic	2:26:56
9. Ruben Alvarez	2:26:56
10. Guerin Alexis	2:26:56
11. Iñigo Ojeda	2:27:16
29. Mikel Aristi	2:29:09
65. Eneko Lizarralde	2:36:00
70. Jon Rivero	2:37:00
78. Iker Eskibel	2:37:00
89. Alex Aranburu	2:39:20



Eriko Muxika helmugara sartzen. | ARANTZAZU EZKIBEL



Irabazlea lore sortarekin eta garaikurrarekin Uzarragan. | A.E.

UZARRAGAKO IGOERA

Uzarragako maldetan onena, Eriko Muxika

Jokin Etxabe bergararra laugarren sartu zen, 29 segundora

A.E. | ANTZUOLA

Helmugara bakarrik sartu zen Caja Ruraleko Eriko Muxika txirrindularia. 1.59.30 denbora behar izan zuen Itsasondokoak 81 kilometroko ibilbidea egiteko. Sagastin hasi zen lasterketa eta amaitu, ostera, Uzarragako malda gogorretan.

Hasieratik, ihesaldiak

Lasterketa nahiko lasai hasi zen. Antzuolatik Oñatira hartu zuten txirrindulariek eta aurreneko itzuli horretan lehenengo ihesaldia egin zuten. Sei txirrindulariz osatutako taldeak aurre hartu zien gainerakoei: "Sei ziklista joan gara aurrera baina Sumofic taldeko bat bera ere ez da sartu ihesaldian. Hala, atzetik tiraka hasi dira eta harrapatu egin gaituzte", azaldu zuen amaieran Muxika irabazleak. Bigarren itzulian, Oñatin, beste taldetxo batek egin zuen ihes tropel nagusitik: "Bigarren ihesaldian ia talde

guztietako txirrindulariak sartu gara", esan zuen Muxikak. Ihes egindako taldeak aurrera egin zuen eta Antzuolan zehelada Muxikak taldetik ihes egin eta helmugara bakarrik iristea lortu zuen. Bigarrena eta hirugarrena, Mikel Matxinea eta Imanol Iraola, 10 segundora sartu ziren; eta Sumofic taldeko Jokin Etxabe laugarren, 29 segundora. Eguraldia lagun, jende asko joan zen lasterketa ikustera zapatuan.

Lehenengo garaipena

Denboraldiko lehenengo garaipena eskuratu zuen modu horretan Muxikak. "Gazte mailako bigarren garaipena da hau, iaz beste lasterketa bat irabazi nuen", adierazi zuen. Esan behar da Erikori familiarik datorkiola ziklismoarekiko zaletasuna. Joxe Kruz Muxika txirrindulari ohiaren semea eta Jokin Muxika txirrindulari ohiaren iloba da Eriko.



Urtzi Bagues Kanpanzarreko autoari begira. | XABI URTZELAI



Mikel Aristi helmugara sartzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Txirrindulariak Gorkako mendatean gora. | XABI URTZELAI



Bikuña baloiarekin Urolako jokalarien artean. | JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

Partidu eskasa jokatu eta puntu barik geratu da laugarrenez Aloña Mendi

Ezinean ibili zen partidu guztian; Urolak, aldiz, golak egiten jakin zuen

EMAITZA

ALOÑA MENDI

0-2

UROLA

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ezinean, halaxe ibili zen Aloña atzo Azkoagainen zaleen aurrean. Urolako mutilek ere ez zuten aparteko ezer egin, baina Aloña-koen akatsak aprobetxatuta mendean hartu zituzten.

Lehenengo zatian oso parekatuta ibili ziren bi taldeak, eta zelai erdiko jokoa izan zen nagusi. Zumarragoak samurrago iristen ziren Idigorasen atera baina aukera garbirik eta arrisku handirik

sortu barik. Asier Ugartek aukera polita izan zuen Bengoak bidalitako baloi luze bat jasotakoan, baina jokoz kanpo adierazi zuen epaileak. Urolako defentsek, gainera, txukun egin zuten lan eta baloiak samur mozten zituzten. Hala, husnako berdinketarekin joan ziren atsedenaldira.

Golak bigarren zatian

Bigarren zatiaren hasiera lehenengoaren jarraipena izan zen, hau da, aukera garbi barik eta joko eskasarekin. Hala ere, Aloña-ko gola sartzeko aukera galdu zuen, Palaciosek baloia bidali Ugarteren hanketara eta horrek gurutzatuta kanpora jaurti zuenean. Ondoren, Aloña-ko atezainaren hutsegite batzuk izan ziren, baloia behar bezala aldendu ez izana, tartean;

zorionez ez zuten ondorio larririk izan. Azkargorta entrenatzailea, bien bitartean, haserre zebilen joko motela egiten zebiltzalako mutiak: "Bultza, bultza..." egiten zien oiuhu behin eta berriz.

Eta Aloña bizkortzen hasita zegoela zirudienean, zumarragarraren gola etorri zen. Mendozak alboko saka atera eta baloia Zubiaren hanketara bidali zuen, baina argi zegoen Urolako Alejandrok kendu eta bizkor baino bizkorrago ateraino iritsi zen. Han, zelairatu berri zen Nuñez zegoen errematatze eta ez zuen hutsik egin; jaurtiketa indartsu bati esker baloia barrura. Hala, aurretik jarri ziren kanpokoak 72. minutuan.

Oñatiarrek, baina, ez zuten erreakzionatzen jakin eta handik

hamar minutu pasatxora Urola-koen bigarren gola iritsi zen beste kontraeraso batean. Asier desmarkatu, baloia jaso eta Arizmendiri pasatu eta honek gola. Hala, erabakita geratu zen ezinean hasi eta ezinean bukatutako partidua.

Mondraren aurkako derbia

Aloña Mendiren laugarren porrota da jarraian eta aste bukaeran ere ez dauka partidu samurra, Mondraren etxera joango delako. Derrigor behar ditu puntuak Mondrak sailkapeneko zulotik ateratzeko eta gogor borrokatuko du horien alde.

Apirilaren 15ean, ostera, elurragatik atzeratutako partidua jokatuko dute Azkoagainen, Pasaiaen aurka.

FITXA TEKNIKOA

Aloña Mendi: Idigoras, Mendoza, Agirre, Bengoa (Moreno, 80. min), Garmendia (Zubia, 70 min), Palacios, Ugarte, Juaristi (Lizarra, 70 m.), Millas (Idigoras, 55. m.), Olalde (Markinez, 85. min) eta Bikuña.

Urola: Gabriel, Pablo, Iñigo (Ayuso, 88. m.), Alejandro (Asier, 81 m.), Zufiria, Ander, Julen, Aitzol (Nuñez, 71. m.), Arizmendi (Andoni, 86 m.), Rober eta Imaz.

Bestelakoak: Epailea, Letamendi. Txartel horiak: Aloña-ko Agirrerri eta Urola-ko Iñigori. Jendetzarik ez.

ANDER MENDOZA
ALOÑAKO JOKALARIA

"Astean landutakoak ez ditugu bete eta ezinean ibili gara"

Burumakur zegoen Mendoza partidu ostean.



Partidu kas-

karra.

Ez dakit eguzkia izan den edo zer, baina bai, partidu txarra. Astean landutakoak ez ditugu bete eta ezinean ibili gara.

Aukeratxo bat edo beste izan duzue baina...

Lehenengo zatian pare bat aukera izan ditugu baina sartu ez.

Eta bigarren zatian Urola-koen golak iritsi dira.

Bai... Alboko sakanen neuk egin dut akatsa eta lehenengo gola etorri da hortik. Gero sistema aldatu dugu hiru defentsekin, baina Urolaren bigarrena etorri da gero eta kito.

Urolak ere ez du aparteko ezer egin...

Ez, ez du asko ukitu, zuzeneko baloiak gehiago. Baina akatsak gureak izan dira, komunikazio falta behar bada...

PREFERENTEA

Bost gol sartu zituen Antzuolak zaleak asetzeko

Gol zaparradarekin eman dio buelta Antzuolak azken jardunaldiotako bolada kaskarrari; izan ere, azken lau partiduak irabazi barik zegoen. Zapatuan llinxari sartutako bost golekin (5-0) indarrak berreskuratu eta Zumaikoren aurka etxean jasotako jipioa ahaztu eragin zien gerturatutako zaleei.



JOSETXO ARANTZABAL

OHOREZKO ERREGIONALA

UDA eta Mondra esku-hutsik itzuli dira, Bergara puntu batekin

Anaitasuna liderraren etxera joan zen Aretxabaletako taldea eta sailkapeneko burua zergatik den erakutsi zion 3-1 irabazita. Mondrak ere emaitza berdinarekin galdu zuen Pasaian (3-1). Talde arrasatearrak ez du irabazi partidurik azken bost jardunaldiotan eta sailkapeneko azken postuan dago orain. Zazpi jardunaldi geratzen zaizkio horri buelta eman eta puntuak eskuratzeko, mailari eustea gura badu behintzat.

Bergarak ere kanpoan jokatu zuen Behobiaren aurka eta golik gabeko partiduan puntu bat ekartzea lortu zuen.

EMAKUMEZKOAK

Mondrak galdu egin zuen eta Arizmendik aise irabazi

Irabazteko gogoz joan ziren atzo Barakaldora Mondrako neskak baina Pauldarrek eskuratu zituzten puntuak (5-3). Lehenengo minutuan sartu zieten gola eta ondoren berdindu arrasatearrek. Halaxe ibili ziren partidu guztian, Barakaldokoek aurrea hartu eta arrasatearrek berdindu. Bigarren zatian, 4 eta 3 zihozela, berdintzera joan ziren Mondrakoak, eta orduan bosgarren gola iritsi zen partidua erabakita utzita.

Arizmendik, ostera, gol zaparrada sartuta irabazi zion Intxaurdiri (0-5) eta orain berdinduta daude biak sailkapenean.

KENPOA

Lagun giroa eta norgehiagoka bat eginda kenpo txapelketetan

- ▶ Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak izan dira
- ▶ 120 jokalarik elkartu dira Eskoriatzako kiroldegian

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

III. Kenpo Txapelketak jokatu ziren zapatu goizean Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak batera jokatu zituzten denbora eta dirua aurreztearren eta 120 bat jokalarik jardun zuten norgehiagokan harmailetakoz zaleen oihuen artean.

Etxeok borrokan nagusi

Eskoriatzan Rafa Carriet irakasleak abian jarritako eskolako jokalariek eta Oiartzunen egoitza duen Kenpo Kai eskolakoek bat egin zuten kiroldegian. Uste baino jokalarik gutxiago elkartu ziren, antolatzaileen esanetan: "Asko daude min hartuta eta azken orduan ez dute etortzerik izan". Hala ere, 120 bat elkartu ziren eta giro bikaina sortu zuten.

Jantzi beltzarekin Eskoriatzako Atama elkarteok eta Arrasateko Ziorlakoak zeuden (biak eskola berekoak); zuriare-

kin, ostera, Oiartzungoak. Eta norgehiagoka biziak jokatu zituzten elkarren artean: "Gure jokatze era eta Oiartzungoena apur bat ezberdina da, teknika ezberdinak erabiltzen ditugulako", azaldu zuen Iker Letona jokalaria arrasatearrak.

Hiru tatami edo gunetan banatuta jardun zuten: lehenengoan, gaztetxoek eta hurrengo bietan helduek. Kata edo kenpo tekniken erakustaldiarekin hasi zuten txapelketa; gero defentsa pertsonaleko tekniken erakustaldia izan zen; eta bukatzeko, borrokak egin zituzten. Bi eratako borrokak: ukipenekoak –ukituz gero bukatzen direnak– eta erdi-kontaktukoak –geratu bako borrokak–. "Eskoriatzako eskolakoak borrokan oso ondo ibili gara, gure espezialitatea dela esango nuke. Kata eta defentsa pertsonalean, ostera, ez gara hain ondo moldatu", adierazi zuen Letonak. Izan ere, Kenpo Kai taldeko kideak

datorren astean Europako txapelketa jokatzera joango dira Estrasburgora eta ondo entrenatuta etorri ziren: "Denbora luzean dabilta hori prestatzen eta igarri egin da". Hala ere, Josu Letona arrasatearrak eutsi egin zion Euskadiko txapeldun tituluari eta beste hainbatek ere jaso zituzten garaikurrak, tartean Iñaki Zubillaga, Jose Luis Maqueda, eta Carla Zabala helduek eta Mikel Galvez eta Nahia Pascual gaztetxoek.

Ilusio handia duen taldea

Karate federazioko presidente Javier Manceras ere hurreratu zen txapelketara, kenpoa karate barruan dagoelako sartuta: "Orain dela hiru urte hasi ziren norgehiagokak jokatzen baina ilusio handia daukate eta aurrera doaz. Kenpoa bultzatu eta zabaltzea gura dugu", zioen bukaeran. Antolatzaileak ere pozik agertu ziren txapelketek emandakoekin.



Kenpo jokalarik bi, borrokan. | JOSETXO ARANTZABAL



Kenpo jokalarik guztiak tatami gainean sariak jasotzen. | MIRARI ALTUBE

NAHIA PASCUAL
KENPO JOKALARIA



"Bi kata erakustalditan eta defentsa pertsonalean jardun dut eta pozik nago, nahiz eta defentsan jausi. Lau bat urterekin hasi nintzen kenpoan eta gustura nabil".

IKER LETONA
KENPO JOKALARIA



"Txapelketa kaskarra egin dut; urtebete min hartuta egon naiz eta azken hilabetean entrenatu arren ez naiz ondo jardun; nerbioek ere ez didate lagundu, gainera".

JAVIER MANCERAS
FEDERAZIOKO PRESIDENTEA



"Oso pozik gaude kenpoak izan duen bultzadarekin. Hain zuzen, Espainiako txapelketan lortutako emaitzarik garrantzitsuenak hemendik irtendakoak dira".



SASKIBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

Larri eta estu Soraluze BKE garaile

Denboraldia bukatzean dagoela partidu guztiak dira finalak Bergarako taldearendako. Hala, irabazi beharra zuen derrigorrez: batetik, puntuak eskuratu eta sailkapeneko zulotik irten ahal izateko; eta bestetik, joan den asteko emaitza txarra ahazteko. Eta larri eta estu izan bazen ere, irabazi egin zion Hernaniri (61-60). Irabazteko gogoz etorri ziren hernaniarrak ere, horregatik Soraluze Bergarako mutilek guztia eman behar izan zuten puntuak etxean gera zitezten.

SASKIBALOIA

Hirugarren partidua irabazi du MUK aurkari zuzen baten kontra

M.A. | ARRASATE

Ordizian jokatu zuen lehen nazional mailan dabilen MUKo taldeak aurkari zuzena duen Biok Zerbitzuen aurka; baita irabazi ere (72-80). Hala, aurretik jarri da sailkapenean eta pauso garrantzitsua izan da mailari eusteko.

Bazekiten errebotean eta banan-banako defentsan zirela indartsuak ordiziarrek eta horiei aurre egin nahian joan ziren Burgosos. Partidu gogorra jokatu zuten: "Barruko jokoan dira indartsuak eta hori jakinik, euren parean jarri ginen aurre egiteko", zioen Josu Larreategi entrenatzaileak. Hirugarren

zatia berdinduta bukatu zuten eta laugarrenera guztia ematera atera ziren MUKo mutilek garaipena etxera ekartzeko: "Taldearen nortasuna indartu dela esango nuke eta pauso bat aurrera ematea lortu dugu", zioen Larreategik.

Natra Oñatik galdu

Bestalde, Eba ligan jokatzen dabilen Natra Oñatik galdu egin zuten Burgosos, Miguel Antonio Robleda taldearen aurka (82-76). Mailari eusteko aukera guztiak galdu zituzten joan zen astean Oñatiko mutilek, eta Burgosko talde indartsuaren aurka ere ezin izan zuten irabazi.



Kiroldegiko kantxa spinning zaleekin beteta, zapatuan. | JOSETXO ARANTZABAL

SPINNINGA

Izerdi patsetan baina gustura jardun dute spinning-ean

142 lagunek eragin zien hankei geratu barik zapatuan Oñatin egindako II. Spinning Maratoian

MIRARI ALTUBE | OÑATI

Oñatiko kiroldegia spinning zaleen topaleku izan zen zapatu arratsaldean. Musika topera –baita dultzaineroak ere zuzenean–, Egoitek enpresako monitoreak uneoro animatzen eta lagun arteko giroa nagusi zela, nekea eta beroa uxatu, eta gustura baino gusturago eragin zieten hankei elkartutako 142 lagunek.

"Ez genekien kantxa beteko genuenik eta begira. Iazko ekitaldiak arrakasta izan zuela baina... aurtengoak handiagoa", zioen Oskar Carrascal kirol teknikariak.

Gainera, hainbat laguni ezezkoa eman behar izan zieten lekurik ez zutelako. Oñatikoekin batera inguruko herrietakoak elkartu ziren, tartean arrasatearrak, eta Donostiatik eta Madriletik etorrikoak ere bazeuden.

40 minutuko lau saio egin zituzten, 10 minutuko atsedean tarteekin, fruta jan eta ura eta edari freskagarriak hartzeko. Bero egin zuen, kiroldegi barruan handia gainera, baina inolako ezusteko barik eta oso gustura bukatu zuten kirolari guztiek ekitaldia.

XABIER AZKARATE
BEGIRALEA

"Spinning zaleon ospakizuna da eta arrakasta handia izan du"

Kirol jardueren ardura duen Egoitekenpresako begiraleak topaketaren nondik norakoak azaldu zizkigun.



Topaketa arrakastatsua...
Bai, sekulakoa izan da. Iaz asko elkartu ziren baina aurten gehiago. Ezetza ere eman behar izan dugu leku faltagatik.

Zein da hiru orduko maratoni honen helburua?

Ospakizun bat da: batetik, spinning jarduera egiten dutenen arteko topaketa; eta bestetik, jarduera hori ezagutzera emateko modua.

Eta emakumeak nagusi...

Bai, baina ez bakarrik gaur, barruko kirol jarduera gehiengan legez. Hala ere gizonezkoak animatzen hasi dira.

Bero dago gaur, ezustekorik izan da?

Ez; 40 minutuko saioen ondoren 10 minutuko atsedendialdiak ditugu eta ura eta fruta eskura dituzte.

ESKUBALOIA

Partidu polita egin arren galdu egin du Soraluze BKEk, baita Ford Mugarrik ere

M.A. | BERGARA

Mailari eusteko puntu baten beharra dauka Soraluze BKE taldeak baina ezin lortu dabil. Atzo partidua polita egin zuen Hondarribian: "Erasoan ondo eta defentsan ere bai, baina penaltietan egin dugu huts eta hor galdu dugu partidua", zioen Josetxo Muniategi entrenatzaileak. Lehenengo zatian atzetik

geratu ziren (20-15), baina bigarrenean berdintzea lortu zuten (30-30). "Orduan aurretik jartzeko aukera ez dugu aprobetxatu", zioen; hala, Hondarribia izan zen garaile (38-34).

Ford Mugarrik ere galdu egin zuen Elgoibarren (32-29). Lehenengoaren eta bigarrenaren arteko norgehiagokan, etxeko taldea nagusitu zen.



GINNASIA ERRITMIKOA

JOSETXO ARANTZABAL

Gimnasta txikiak protagonista

Labegarrietako kiroldegia Gipuzkoako gimnasten topaleku izan zen atzo, eta neska mordoak elkartu zen bertan; tartean Bergarakoak, Arrasatekoak, Zarauzkoak, Tolosakoak eta Irungoak. Amateur mailako eta Eskola Arteko A mailako txapelketaren azken saioa jokatu zuten –bakarkako saioak eta taldekakoak– eta Gipuzkoako finala zeintzuk jokatu duten geratu zen erabakita.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Qiartzun-Elgoibar	1-0
Behobia-Bergara	0-0
Roteta-Hondarribia	2-1
Aurrera-Trintxerpe	5-0
Pasaia-Mondra	3-1
Aloña Mendi-Urola	0-2
Anaitasuna-Aretxabaleta-Berio-Tolosa	1-1
Beti Gazte-Real Union	2-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	55	27
2 Pasaia	51	26
3 Real Union	48	27
4 Tolosa	48	26
5 Qiartzun	45	26
6 Aretxabaleta	43	26
7 Beti Gazte	42	26
8 Berio	42	27
9 Bergara	38	26
10 Aloña Mendi	34	26
11 Urola	32	26
12 Aurrera	32	27
13 Trintxerpe	31	26
14 Hondarribia	29	26
15 Behobia	26	27
16 Elgoibar	23	26
17 Roteta	20	27
18 Mondra	20	26

HURRENGO JARDUNALDIA

Qiartzun-Beti Gazte
Elgoibar-Behobia
Bergara-Roteta
Hondarribia-Aurrera
Trintxerpe-Pasaia
Mondra-Aloña Mendi
Urola-Anaitasuna
Aretxabaleta-Berio
Tolosa-Real Union

EMAKUMEZKOEN BIGARREN MAILA

Pauldarrak-Mondra	5-3
-------------------	-----

ERREGIONAL PREFERENTEA

Aretxabaleta B-Zumaia	3-1
-----------------------	-----

Antzuola-Ilintxa	5-0
------------------	-----

I. ERREGIONALA, IGOERA FASEA

Vasconia-Mondra B	1-0
-------------------	-----

I. ERREGIONALA, KOPA

Aretxabaleta C-Irauli	2-1
-----------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Añorga-Bergara	2-0
----------------	-----

Aloña Mendi-Aurrera	1-1
---------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Bergara-Kostkas	3-2
-----------------	-----

SANSE-Aloña Mendi	1-6
-------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Mondra-Lengokoak	2-3
------------------	-----

GAZTEEN I. MAILA, KOPA

Aloña Mendi-Bergara	0-0
---------------------	-----

Aretxabaleta B-Arizmendi	5-0
--------------------------	-----

OHOREZKO KADETEAK, KOPA

Aloña Mendi-Bergara	0-0
---------------------	-----

Aretxabaleta UDA-Antiguoko	1-6
----------------------------	-----

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

Intxaundi-Arizmendi	0-5
---------------------	-----

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPEL. GIZON.

Deusto Loyola-Ford Mugarri	32-29
Hondarribia-Soraluze BKE	38-34

LURRALDE TXAPELKETA

Aloña Mendi-Eibarko Haritza	26-30
-----------------------------	-------

FEDERAZIO SARIAK. GAZTEAK

Aloña Mendi-Usurbil	36-32
Ordizia-Bergara	40-28

FORU ALDUNDIKO SARIA.

Karibe Zaharra-Aloña Mendi	31-32
Karibe Zaharra-Arrasate	30-35
Soraluze Bergara-Urola	30-30

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Migel Antonio-Natra Aloña	82-76
---------------------------	-------

LEHEN NAZIONAL MAILA

Biok zerbitzuak-MU	72-80
--------------------	-------

SENIOR GIZONEZKOAK

Soraluze-Hernani	61-60
Erroibide-Mondragon	79-50

SENIOR. BIGARREN MAILA

Atle. San Sebastian-Aloña Mendi	89-52
---------------------------------	-------

SENIOR. HIRUGARREN MAILA

Ruibal-MU B	77-51
-------------	-------

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Tecnun	46-46
-------------------	-------

GU RE KI RO LA



GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **YULEID**

KENPOA

Iker Letona | Kenpoka

"Estresa kentzeko bikaina da kenpoa, eta edonori gomendatuko nioke"

- ▶ Iker Letonak kenpo eskolak ematen ditu anaiarekin batera Zigorrolako gimnasioan
- ▶ Ohiko kirola ez den arren, gure bailaran bi eskola daude: Arrasaten eta Eskoriatzan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Asteburuan jokatu dira, Eskoriatzan, Gipuzkoa eta Euskal Herri mailako kenpo txapelketak. Horietan hartu du parte Iker Letonak; izan ere, hamahiru urte daramatza kenpoa praktikatzeko, baina gu ez gara txapelketek jardun harekin, borroka artearen beraren gainean baizik.

Kenpoa ez da oso kirol ezaguna. Zer da kenpoa?

Defentsa pertsonalean oinarritutako borroka artea da eta esan daiteke nahasketa bat dela. Izan ere, arte martzial mota bana eza gutzen zuten bi monjek garatutako borroka artea da. Zehazki, Txinatik ihesi Japoniara joan zen monje bat monje japoniar baten lagun-min egin zen eta elkarri erakutsi zioten norberak zekien borroka artea, eta hortik garatu zuten kenpoa. Ondoren, monje japoniarrek belaunaldiz belaunaldi transmititu zuten ezagutza. II. Mundu Gerraren garaian, baina, gainerakoei ere erakusten hasi ziren, eta hortik hedatu zen mundu guztira.

Zeintzuk dira kenpoaren ezaugarri nagusiak?

Uneoroko bilakaera da ezaugarri nagusia. Borroka arte tradizional batzuetan ez da bilakaerarik izaten. Gu, berriz, gauzak hobetzen eta aldatzen joaten gara; pertsonaren gaitasunetara egokitzen da kenpoa. Adibidez, norbaitek elastikotasunik ez bada, ezin diozu buruan ostiko bat ematen erakutsi. Bilatzen dena da nork bere dohainak esplotatzea.

Bestalde, beste borroka arte batzuk, adibidez judoa, lehiaketetara bideratzen dira. Guk ere lehiatzen dugu, baina ez da hori xedea.

Borroka gogorra da?

Kenpoaren beste oinarrietako bat proportzionaltasuna da; parekotasuna bilatzen da. Arerioaren gogortasunaren arabera, irmoago jokatzeko duzu edo ahulago; parekatu egiten da joko.

Zuk zeuk nola ezagutu zenuen?

Kasualitatez. Behin, lanean nengoela, gizon bat gerturatu zitzaidan (Pedro Martin) ea kenpoa egitera ausartuko nintzatekeen galdezka. Niri beti gustatu izan zaizkit borroka arteak; esaterako, karatea eta judoa eginda nituen aurretik ere. Baina, egia esan, ez nekien kenpoa zer zen. Hala ere, baiezkoa eman nion eta hala hasi nintzen eskolak hartzen Eskoriatzan Martinekin. Hasiera



Iker Letona, Zigorrolako gimnasioan, kenpoa egiten. | IRATI GOITIA

"Bi monjek garatutako borroka arte eredu da kenpoa"

"Aberasgarria izan da niretako kirol hau praktikatzea; lagun asko egin ditut"

Hainbat modalitatetan lehiatzen dira

Kenpoko txapelketetan hainbat arlo baloratzen dira:

Borroka: arerioaren puntu gako bat ukitzean, borroka gelditu egiten da eta puntuatu egiten da. Kolpeak kontrolatua izan behar du, zehatza. Bada erdi-kontaktu deituriko beste maila bat ere, eta hori uneoroko kontaktuan oinarritzen da, baina ez da KORik bilatzen.

Defentsa pertsonaleko formak: simulazioak planteatzen dira; adibidez, ukabil edo ostiko bati nola aurre egin, eta teknika erabili behar da bestea gelditzeko.

Katak edo formak: kateatutako mugimenduak dira teknika erakusteko.

hartan, lau katu besterik ez ginen, baina lan handia egin da; besteak beste, nire oraingo maisu den Rafa Carrietek. Eskertzekoa da egin dutena. Euren egindakoari esker, egun ezagunagoa da kenpoa. Hamahiru urte pasa dira ordutik eta lagun handiak egin ditut kirol honi esker. Oso aberasgarria izan da niretako.

Gure bailaran non egin daiteke kenpoa?

Eskoriatzan Kenpo Klub Atama dago eta hemen Arrasaten Ziorla Kenpo taldea dugu. Bestalde, Iñaki Zubillagak eskolak ematen hasi behar du Oñatin. Guk praktikatzeko dugun metodoa da *Kenpo Full Defense*. Baina *Kenpo Kai* ere egiten da Euskal Herrian, eta askoz ere hedatuago dago, eskolak daude: Oiartzunen, Legazpin, Donostian, Nafarroako toki askotan... Txapelketetan nahastuta parte-hartzen dugu, ordea, ez gara asko kirol hau praktikatzeko dugunak-eta.

Txapelketek ari zarela. Zuk zeuk ze lorpen izan dituzu?

Lorpenen bat edo beste izan dut, baina oso urduri jartzen naiz eta ez naiz inoiz emandakoaz erabat gustura geratzen. Nik uste dut txapelketak erronka moduan hartu behar direla eta norberaren gainditze bat izan behar dutela. Azken batean, nik ez diot garrantzirik ematen lehenengo postuan geratzeari. Lehia irabaz dezakezu eta eginikoarekin gustura gelditu ez. Edo bosgarren egin eta pozik bukatu.

Kenpoa ez da kirol ezaguna eta laguntzarik ere ez duzue jasotzen. Zerk ematen dizu aurrera jarraitzeko indarra?

Guk, txapelketetara joan behar izaten dugunean, geure poltsikotik jartzen dugu diru guztia eta dirulaguntzarik ere ez dugu jasotzen. Beraz, argi dago ez gaudela hemen diruagatik. Niri kenpoak oso une onak eman dizkit. Laneako estresa kentzeko edo bizitzako une txarrak gainditzeko balio izan dit; kenpoa egitean arazoak kanpoan uzten dira. Estresa kentzeko bikaina da. Horregatik, edonori gomendatuko niokeen zerbait da. Kenpoan ez dago muga fisikorik, ezta sexuaren arabera ezberdintasunik ere. Edonork egin dezake. Futbolak epe motzagoa du, baina honek ez du mugarik. Nik ezagutzen dut 45 urterekin hasi eta txapelketa bat baino gehiago irabazi dituenak.

HEZIKETA

Mintzairaren trastornoak, normalean, konpontzeko modukoak izaten dira

Jabier Agirre pediatrik hainbat aholku eman ditu 'Guraso.com' webgunean

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Umeez pixkanaka ikasten dute hitz egiten, modu gradualean, alegia. Jabier Agirre pediatriaren esanetan normala da, beraz, prozesu luze horretan zehar, zailtasunak izatea. "Zailtasun horiek oso nabarmenak direnean edo denbora luzeegian irauten dutenean, litekeena da mintzairaren arazo bat izatea. Kasu horretan, espezialista batengana joatea komeni da", dio. Azken kalkulu eta estimazioen arabera, haurren %5-7k mintzairaren trastornoak dituztela pentsatzen da gaur egun. Eta kasu horietatik %1 soilik hartu behar da dislalia larri moduan; konpontzeko zaila dena, alegia. Gainerako guztiak nahiko ongi eta erraz konpontzeko dira tratamendu egokiarekin.

Zein espezialista

"Zure seme-alabak arazoak dauka hitzak ahoskatzerakoan? Espre-



Neskatila mingaina erakusten. | GABSIQ

satzeko zailtasunak al dauzka? Edo ez ditu esaldiak modu egokian josten? Ez larritu, arazo horiek guztiak, normalean, konpontzeko modukoak dira-eta", dio Agirrek. Arazoren bat detektatu bezain pronto pediatriarengana jo behar dute gurasoek, pediatra baita

gorreria, ahoko edo hortz-hagine-tako malformazioak nahiz trastorno psikologiko edo neurologikoak baztertzeko espezialistarik egokiena. Lehen azterketa horren ondotik, pediatrik erabakiko du zer-nolako espezialista behar duen haurrak.

Kadete mailako partidu bat bertan behera gurasoek sortutako istiluengatik

Seme-alaben kirol jardueretan ere helduek errespetuzko jarrerak erakutsi behar dituzte

L.Z. | ARRASATE

Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian gertatu da aurreko aste bukaeran; partidua lehen kadete mailako Aretxabaletak eta Eibarrek jokatzeko zuten. Partidua amaitzeko 17 minutu falta zirela utzi zuten bertan behera norgehiagoka "talde bateko eta besteko gurasoen artean izandako istiluengatik (...). Ertzaintzak ere joan behar izan du Ibarrara gaur goizean, zaleak baretzera", irakur daiteke Goienak egindako kronikan.

Helduak eredu

Adingabeek kirol jarduerak egitea oso osasuntsua da, eta helduok argi izan behar dugu ekintza horiek adiskidetasuna

eta errespetua sustatzeko baliatu behar ditugula. Hala, gogoan hartu entrenatzaile eta aurkarietako errespetua erakusten lehenak izan behar dugula helduok. Bide beretik, errespetatu eta baloratu epaileen lana; interesa agertu entrenatzaileen lanaren inguruan, eta ez saiatu bera ordezkatzeko; bultzatu eta baloratu gazteek egindako esfortzua; baloratu talde lana eta nork bere gaitasunak gaitzetzeko egindako ahalegina; ulertu seme-alaben zein taldekideen akatsak, eta ez haserretu; lorpenak zein porrotak, biak onartu; txalotu taldekiko zein arerioetako adiskidetasun keinuak eta irainak saihestu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

Eraikuntza eta eraginkortasuna



Aitor Axpe Oianguren
Arkitektoa eta irakaslea

Aurtengo ikasturtean, Arizmendi Ikastolako eraikuntzako Lanbide Heziketan aldaketa esanguratsuak egin dira. Aldaketa horiek Eraikuntzako Proiektuen zikloan eman dira, curriculumean. Gobernuak Estatu mailan eraikuntzan emandako eredu ez jasagarria ikusirik, LHko zikloak Europar Batasuneko eskakizunetara berriztatu du curriculumea.

Azkeneko hamarkadetan desagertuta egon den kontzeptu garrantzitsu bat berreskuratu dute berrikuntzarekin; eraginkortasun energetikoa, alegia. Pil-pilean dagoen gai hori XXI. mende hasieran hasi zen oihartzuna hartzen, Europaren menpekotasun energetikoa eragozteko ahaleginetan hasi zirenean. Bada, Lanbide Heziketako ikasleak menpekotasun energetiko horri aurre egiteko prestatzen ari dira.

Beraz, aurtengo belaunaldia lehena izango da eraginkortasun energetikoan teknikari titulua lortzen. Etorkizuneko eraikinen eta birgaitzeko dauden eraikinen kontrol energetikoak egingo dituzten lehen adituak aterako dira. Baina aditu izateko, lehenengo, gai horretan oinarritutako formazioa jaso beharra dago. Eta horretan ari dira LHko ikasleak, izan ere, Arrasateko Garagartza auzoan eta lehengo Polmetasa lantegian etxe eta auzo bat eraikitze proiektuan orientazioaren eta klimaren azterketa egin dute.

Hain garrantzitsua den identifikazio eta interpretazio lan hori burutzeko, Olgay anaien Helburua, kurtso bukaerarako, etxebizitza bioklimatiko jasagarri bat gauzatzea da. Ahal den neurrian, ahalik eta material ekologikoenak eta berrerabilienak erabiliz.

Olgay anaien liburuko urratsak jarraituz, jakin dute energetikoki Arrasateko norabide eraginkorrena 30° hego-ekialdea dela. Kasualitate hutsa edo ez, baina gutxi gorabehera Arrasateko alde zahararen norabide bera. Esatera zaharrak dioen bezala "kontu zaharrak berri".

Norabidearen eta klimaren lehen urratsa eginda, auzoaren eta eraikinaren programak zehaztu behar dira, funtzio edo gela bakoitzari leku egokiena aurkitzeko. Gai hori ikasleek amaitu berri dute, eta eraikinaren itxieran instalakuntza eraginkorretan eta energia berriztagarrietan murgilduta daude.

Helburua, kurtso bukaerarako, etxebizitza bioklimatiko jasagarri bat gauzatzea da. Ahal den neurrian, ahalik eta material ekologikoenak eta berrerabilienak erabiliz.

Gure arbasoek, orain dela gutxira arte egin duten bezala. Gaudik zioen bezala "ser original es volver al origen".



Arrasateko norabide eraginkorrena 30° hego-ekialdea da. | ARIZMENDI IKASTOLA

Bitxikeria gisa, Zerrajerako etxe txikiak

Aurreko ikasturte baten Zerrajerako Etxe Txikietan egin genuen azterketa-lan batean ikusten zen etxeak xake taula baten antzera zeudela antolatuta, euren arteko itzalak saihesteko eta baratzak eta etxebizitzak ahalik eta argi izpirik gehien jasotzeko. Hirigintza aldetik ere jabetu ginen garai hartako hazkunde industrialaren herriko hegoaldean egin zela; iparraldean etxebizitzak eraikiz, eta hegoaldean industri eremuak —Zerrajera eta Elma, adibidez—. Horrela iparraldeko haize menperatzaileak haize garbia sartzen zuen etxebizitzetan, hegoaldeko haize kutsatua kanporatuz.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA



Ehun ikasle baino gehiagok 'Jostailugilea' izeneko ipuin musikala taularatu zuten, mozorroa jantzita. | JOSETXO ARANTZABAL

"Gaur kantua irakasten dabiltzanak 50. urteurreneko omenduak izango dira"

- ▶ Abesbatzen Topaketaren 25 urteak ospatu zituzten zapatuan
- ▶ Omenaldiak eta ipuin musikalak eragin zituzten une berezienak

GOIATZ ARANA | ARRASATE

25 urtek askorako eman dute Eskolarteko Abesbatzen Topaketaren historian: Santa Teresan egiten hasi ziren, Amaia antzokira lekualdatu zuten gero eta Uarkape frontoian egiten dute egun; lehiaketa izan zen hasieran, eta topaketa izaera hartu zuen ondoren. Kanturako zaletasuna bultzatzea eta abesbatzen musikak sortzen duen giro goxoa zabaltzea izan du helburu eta lortu du: "25 urte geroago hemen gaude. Haur asko behar dira honetarako eta milaka pasa dira; belaunaldi askotako gazteek gogoratuko dute gaur hemendik pasa izana", esan zuen

Txaro Iraeta Arizmendi Ikastolako zuzendari orokorrak. Eta zera gaineratu zuen, Edurne Erauskini zuzenduta: "25 urte dira ideia burura etorri zitzaizula eta bistan da asmatu zenuela".

Omenaldia 11 laguni

Ideiaren sortzailea, antolatzaileak, zuzendariak eta beste, 11 lagun omendu zituzten zapatu arratsaldean Uarkapen. Aurrekoa dantzatu, bertsoa kantatu eta oroi-garriak banatu zizkieten: sol ikurra zeraman zilarrezko kate bana. "Mila esker guztioi, hunkigarria izan da benetan, ea beste 25 urte betetzen ditugun", esan

zuten trukean; irribarra erakusten zuten ahoan eta malkoari eutsi ezina begietan. Eta bai, lanean jarraitzea da asmoa, hala erakusten dute 50. urteurrenera begira esandako hitzek: "Gaur lanean dabiltzanak orduko omenduak izango dira".

'Jostailugilea' rekin liluratuta

Omenaldiak eragin zuen arratsaldeko lehen une gorena eta *Jostailugilea* izeneko ipuin musikalak bigarrena. Mozorrotutako 100 ikasle baino gehiagok erdira atera eta jostailuak egiten dituen arotz baten istorioa kontatu zuten, ikasleek eurek egindako atrezzo eta deko-

ratuarekin; antzezleak, piano doinuak eta narratzailearen kontakizuna izan zituzten bidelagun.

25. urteurreneko egitaraua hasteko bina kantu abestu zituzten Oñatiko Txantxiku Ikastolako eta Arizmendiko ikasleek; eta topaketa ixteko, egun horretarako propio sortutako kantua abestu zuten denek batera. Tartean, haizeak musika asmatu zuela eta egun baten gure herrira iritsi zela erakusten duen ikus-entzunezkoa eman zuten.

Topaketarako sarrerak 3 eurotan saldu zituzten eta horiekin batutako diruaren %25 Lodosako ikastolara bideratuko dute.

EDURNE ERAUSKIN | TOPAKETAREN SORTZAILEA

"Zaletasuna egotea lortu dugu"

Pertsona askoren lanaren emaitza izan da abesbatzen topaketa aurrera ateratzea, baina Erauskini otu zitzaion ideia. **Arratsalde hunkigarria, ezta?**

Oso polita izan da, eskertzekoa.

Lehiaketa izan zen lehen urtean.

Bai, baina berehala konturatu ginen topaketa bat izan behar zela, umek



Edurne Erauskin. | G.A.

gozatzeko eta urtean zehar egindako lana kaleratzeko.

Nork esan 25 urtez jarraituko zuenik! Zaletasuna badagoela erakusten du horrek eta hori da hasieratik nahi genuena.

Gaurko unerik politena?

Aurrekuarena oso berezia izan da eta ipuin musikala asko gustatu zait, tarteka erreplikatzeko moduko formula.



FELI ETXEBERRIA
OÑATI

"Kantuak eta musika asko gustatzen zaizkit eta zoragarria iruditu zait gaur arratsaldekoa. Bilobak bertan ziren, gainera, eta hori beste begi batzuekin ikusten da! Lan handia egin dute".



IRATI ETA AITANA
ARRASATE

"Lagun bat ikustera etorri gara. Abestu eta antzeztu, bietatik egin du, eta oso ondo, gainera. Ipuin musikala gustatu zaigu gehien. 25. urteurrena izanik, berezia izan da aurtengo topaketa".



IZARO ETA ITZIAR
ARRASATE

"Ipuin musikalean kantatzea izan da gure egitekoa. Ez geunden urduri eta ondo irten da, baina denbora dezente eman dugu entseatzen. Polita izan da oro har, baina gehiegi hitz egin dute!"



Omenduei aurrekoa dantzatu zieten momentua. | J.A.



GORKA, ALBERTO ETA ANDER
ANTZUOLA

"Semea dugu abesbatzan eta familia osoa etorri gara ikustera, emaztea ere hemen dabil. Ezberdina, oso polita izan da. Meritu handia da 25 urtean jarraian halako lana egitea".

Soinua jotzen aitzindari izan dena omendu zuten etorkizuneko musikariek

Debagoieneko musika eskolek kontzertua eskaini zuten egubakoitzean 'Urkiko Magoa'-ren omenez

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Txalo artean, eta nola ez, akordeoi soinuarekin omendu zuten Migel Sagastume *Urkiko magoa* Santa Marina parrokan. Debagoieneko musika eskolek antolatu zuten kontzertua, soinua jotzen aitzindari izan dena omentzeko.

Parrokia bete egin zen

Eliza beteta hasi zuten emanaldia Osintxuko Musiraka dantza taldekoek. Ondoren musikariren eta soinu-jotzaileen txanda izan zen.

Soraluzeko musikariek *Lau teilatu* eta *Aitormena* abestiak eskaini zituzten; eta Arrasate musikalekoek, *Ilargia*. Horiek izan ziren abesti modernoak. Ondoren, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarakoen txanda izan zen.

Ekitaldia Oihan Vega kazetariak aurkeztu zuen. Sagastumeren bizitzaren gainean berba egin zuen Vegak eta elizako pantailetan ikus-entzunezkoak ere jarri zituzten.

Zorionak eta oroigarriak

Une hunkigarria bizi izan zuen Sagastumek Irungo kontserbatorioko seikoteak jo zuenean; tartean zegoen June Martin biloba. Ondoren, Joxan Goikoetxea lagun-min eta soinu-jotzaile apartaren txanda izan zen.

Kontuan hartuta Sagastumek eguenean 81 urte bete zituela, *Zorionak!* abestu zioten emanaldira joandakoek. Gero oroigarriak jaso zituen Bergarako Musika Eskolako eta Bergarako Udalaren eskutik.

MIGEL SAGASTUME OMENDUA

"Musika ekitaldia ederra izan da benetan, mundiala!"

Pozik zegoen Migel Sagastume egubakoitzean. Herritarren omenaldia jaso zuen, eta gainera senitartekoak ondoan zituen. Ekitaldi "mundiala" izan zela azaldu zuen.

Omenaldi polita egin dizute!

Ederra, benetan, mundiala! Oso polita izan da musika. Sekula entzun barik neuzkan hainbeste filarmoniko elkarrekin. Asko gustatu zait.

Gainera, June biloba eta Joxean lagunak sorpresa eman dizute.

Banekien etorriko zirela, beti entzuten da zerbait. Artistak dira!

Zer gustatu zaizu gehien?

Talde guztiak gustatu zaizkit. Tangoak, mexikarrak... jo dituzte. Oso abesti politak izan dira.

Gogoan izango duzun eguna izango da, ezta?

Bai, aurrez ere egin izan dizkirate omenaldiak eta gogoan izaten diren egunak dira. Oso gustura hartzen dira halako ekitaldiak.



Arkada Social 'Beste istorio bat' lanaren aurkezpen kontzertuan. | A.M.

Gaztetxea ia bete egin zen Arkada Social taldearen lan berriaren aurkezpen kontzertuan

Arrasatearren aurretik Bilboko Rat-zinger eta Los 4-40 taldeek berotu zuten gaztetxeko giroa

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Arkada Social talde arrasatearrak *Beste istorio bat* bere lan berria aurkeztu zuen egubakoitz gauean Arrasateko Gaztetxean. Aurretik, baina, etxeko Los 4-40 eta Bilboko Rat-zinger taldeek girotu zuten gaua.

Los 4-40 taldearen lehenengo kontzertua izan zen eta punk-rock abestiak eta bertsoak uztartu zituen.

Ondoren, Rat-zinger taldearen txanda iritsi zen; orain dela lau urte sortu zuten esperientzia handia duten musikariek (Anarko, Zer Bizio?... taldetan ibiltakoek). Punk azkar eta hitz gordinez osatutako emanaldia eskaini zuten, *Kartas Al Vaticano* diskoa osatzen duten abestietan oinarrituta. Ohi bezala, ez ziren falta izan zuzenean jotzen duten Kemando Ruedas eta Motörhead taldeen bertsoak.

Gero, gaueko protagonista igo zen gaztetxeko oholtza gainera: Arkada Social. Taldeak etxean aurkeztu zituen *Beste istorio bat* izeneko azken lana eta baita gitarra-jotzaile berria ere. Aurreneko abestia jotzeaz bat, publikoa lehenengo lerrora gerturatu zen eta jaia ez zen bukatu taldeak *Esos del Barrio* kantua jo zuen arte. Abesti berriak entzuteko gogoz zegoen publikoa; aurreko lanetakoak baino melodikoagoak dira, baina taldearen izaera ez da aldatu, barikuan erakutsi zuten.

Kontzertua, diskorik gabe

Taldeak astearen hasieran diskoa kaleratu behar zuen, baina kopiak egiten ari den enpresak ez du epea bete eta taldeak ezin izan zuten lan berria kontzertuan saldu. Zaleek egun batzuk itxaron beharko dituzte disko berria erosteko.



Migel Sagastumek oroigarria jasotzen herriko alkatearen eskutik. | JOSETXO ARANTZABAL

Aparteko giroa 'Ez da kasualitatea bertso saio musikatu hau!' saioan

160 pertsona izan ziren egubakoitz gauean Oñatiko Santa Ana aretoan

A.M. | OÑATI

Oñatiko Udaleko Berdintasun Batzordeak eta herriko eragile feministak antolatuta, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Ainhoa Agirreazaldegi eta Alaia Martin bertsolariak bertso saio musikatu eskaini zuten Oñatiko Santa Ana aretoan. Bertsolariekin batera, Arantzazu Saiz piano jotzailea eta Iñigo Ugarte tronpeta jotzailea izan ziren lau emakumeek kantatutako doinuak musikatzeko. Egoitz Aizpuruk egin zituen gai

-jartzaile lanak egubakoitzeko emanaldian.

Bertso saioa lasai hasi zen, baina apurka-apurka giroa berotzen eta indartzen joan zen. Lau bertsolariak saioaren hasieratik botatuko bertsoen maila altua mantentzen jakin zuten eta publikoak eskertu egin zuen hori. Musikariek ere aparteko lana egin zuten: bertsoak musikatu zituzten eta entzuleen belarriek gozatu egin zuten Saizek eta Ugartek jotako doinuekin. Antolatzaile-

leen esanetan, egubakoitzeko saioak bete zituen hasieran finkatutako helburuak, bai publikoaren aldetik eta baita saioan entzun ziren bertsoen kalitatearengatik ere.

Saio berezia

Bertso saio musikatuak, normalean, tabernatan egiten dira, giro xumeago batean, baina Egoitz Aizpururen arabera, zerbait berezia sortu zen egubakoitz iluntzean Oñatiko Santa Ana aretoan.



Ainhoa Agirreazaldegi bertsoa botatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Jose eta Juan Salazar anaien rumba doinuekin ezin inor geldirik eta txalorik jo gabe egon

MAIDER ARREGI | BERGARA

Zalantza gabe, asteburuan gehien espero zen zuzenekoetako bat eskaini zuen Los Chunguitos taldeak atzo Bergarako Tartufon. Diskoa apirilean irtengo da labetik eta zaleen egonezina eta irrika bor bor antzeman zitezkeen. Kontzertua hasi aurretik, jendez gainezka zegoen taberna-jatetxea eta ilara luzea kanpoan. Eta Jose eta Juan Salazar anaiek aise gaintu zuten erronka oholtza gainera atera zirenean; bazekiten eskakizun handiko jarraitzaileendako zuzeneko eman behar zutela, eta ederto erantzun zuten.

Rumba eta pop doinuekin

Se escapa diskoak Los Chunguitos haize berria eta freskoa emango dio. Baina, *Dame veneno*, *Mami* edo *Soy un perro callejero* kantu mitiko eta dantzagarriekin eromena eta, noski, gozamina iritsi zen Tartufoko dantza-tokira.

37 urteko ibilbidea

Los Chunguitosek 37 urteko ibilbidea dauka. Atzoko zuzenekoan oraindik sasoiko eta gogotsu dabilzala argi geratu zen. Orain, disko berria aurkezteko eta 80 zuzenekori aurre egiteko prestatuko dira.



Sorginetxe taldeak jantzi zuen txapela; argazkian, Oihane Perea. | M.A.

Sorginetxeren argi printza nagusi finalean

Idatzizkoan, Martin Ttipia gasteiztarra nagusitu zitzaion Aramaioko Ai Ene! taldeari

M.A. | ARAMAIO

Aurtengoan ezin izan da txapela Aramaion gelditu, Gasteizko Martin Ttipiak, 2010eko Arabako Koadrila arteko Txapelketan nagusitu zenak, irabazi du eta idatzizkoan.

Bat-batekoan, aldiz, Aguraingo Sorginetxek jantzi zuen txapela, bere argi printza utzita eta Aiaraldeko Altubepekoak garaituta. Araban bertsoa ez dela bakarkakoa

garbi geratu zen jokotutako finalean. Sorginetxe taldeko Oihane Perek agurrean bota zuen moduan: *Ikusi da bertsoa ez dela Araba bakarlaritza / Sorginetxek ere utzi du bere argi printza / Aiaraldeak betikolez ukitu dit mintza / horrelaxe bizi nahi dugu Araban bertsoarritza / bertsoaren eskutik hemen herria egiten gabiltza*. Perek, txapela jantzita, pozik, baina, era berean

ESANAK

"Denbora gutxian lan handia egin du taldeak"

OIHANE PEREA | BERTSOLARIA

"Emozionatzen nau gazteak bertso eskolan ikusteak"

XABIER AGIRRE | BERTSOLARIA

harritura zegoela kontatu zigen: "Denbora gutxian lan handia egin dugu, gogoarekin gauza asko lortu daitezke". Ofiziok bikain moldatu ziren aguraindarrak; taldekide bakoitzak, baina, bere momentuak izan zituela gaineratu zigen Perek.

Idatzizkoan, aramaiorrek txapela jantzerik izan ez bazuten ere, egindako lanarekin gustura zeudela esan zigen Xabier Agirrek: "Bertsoak prestatzen lan handia izan dugu saio bakoitzean; orain arte asmatu egin dugu eta finalera iritsi gara. Finalean ere lan handia egin dugu, bertsoak landu, taldean diskutitu... besteek hobeto asmatu dute, ordea". "Final polita izan da; azkenera arte zalantza izan dut txapela norendako izango zen", kontatu digu.



Salazar anaiek dena eman zuten zuzenekoan. | JOSETXO ARANTZABAL

Zure etxebizitza prest

2013rako

- Eraikuntza-lanak hasi dira dagoeneko.
- Pertsonalizatu ezazu zure etxebizitza.
- Ordainketa planifikatzeko denborarekin.
- 2013an zure etxebizitza eskuratuko duzu.



ARRASATE

2 LOGELA: 198.000€*

3 LOGELA: 240.000€*

* Gehi BEZ.



LKS

INFORMAZIOA ETA SALMENTA

943 71 22 59

PROMOZIOAREN
FINANTZAKETA ETA
ABAL EMATEA



UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN:

sukia GEDI

SORTUKO DIRA BESTEAK XABIER LETE GOGOAN

**EÑAUT ELORRIETA
MIKEL URDANGARIN
ALEX SARDUI (GATIBU)
PIER PAUL BERZAITZ
ARANTXA IRAZUSTA
PETTI
AMETS ARZALLUS**

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA

Martxoak 31
19:00etan



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Sarrera: 15€
Salmenta: leihatila eta
www.kutxasarrerak.net



TXEMA
SANCHEZ

GURE ARTISTAK



Txema Sanchez 'Concierto Para El@s' irratsaioko zuzendari eta esataria Arrasate Irratiko estudioan. | ANDER MONEDERO

"Musika taldeek entzule gehiago izan ditzaten beharrezkoak gara"

- ▶ Duela bost urte hasi zen irratsaioarekin eta jada 226 programa egin ditu
- ▶ 'Postcast' bidez, irratsaioa mundu osoko entzuleengana heltzen da

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Concierto Para El@s irratsaioa egiten du Txema Sanchez arrasatearrak. Internet bidez etxetik zuzenean emititzen du eta, egun, gaztelaniaz abestutako rock eta metal estiloen zaleentzat erreferente da Txema Sanchez. Irratsaioa bere webgunean www.concierto-paraellos.com edo TNT Radioren bitartez entzun daiteke.

Baron Rojo taldearen *Concierto Para Ellos* abestiaren izena du zure irratsaioak. Nola sortu zen ideia?

Duela bost urte Mostoleseko lagun batek animatu ninduen irratsaioa

egitera. Irratia egin nahi zuen Internet bidez eta programa bat egiteko proposamena egin zidan. Proiektua ez zen aurrera atera, baina nik aurrera egin nuen irratsaioarekin. Saioaren izena, berriz, gidatzen nindoan baten bururatu zitzaidan: irradian abesti horren bertsio bat entzun eta programarako izen aproposa zela pentsatu nuen.

Bost urteren ostean musikazale askoren erreferente bilakatu zara.

Irratsaioa egiten hasi nintzenean, gaztelera abesten duten taldeen

gaineneko saioak falta zirela ohar-tu nintzen. Askotan, tamalez, Ingalaterrako eta Amerikako Estatu Batuetako taldeak bertakoak baino lehenago ezagutzen ditugu eta hemengoek aukera bat emateko apustua egin nuen.

Publikoaren aldetik erantzun ona izan duzu, baina baita taldeen aldetik ere.

Bai, musika talde askok informazioa eta abestiak bidaltzen dizkidate eta, egia esan, izandako harrerarekin harrিতuta nago, nire helburua programa egiten ondo pasatzea besterik ez da.

Dagoeneko 226 programa egin dituzu. Ez zen erraza izango zenbaki horretara ailegatzea, ezta?

Egunez egun noa, gaurkotasunean oinarritzen naiz. Albiste diren taldeak, kontzertuak, kaleratzen diren lan berriak, entzuleen eskaerak... beti dago zerbait! Klasikoak ere jartzen ditut.

Musika taldeentzat ere beharrezkoak zarete...

Gure lana oso garrantzitsua da: musika taldeek entzule gehiago izateko beharrezkoak gara, euren musika zabaltzeko modua da. Latinoamerikako talde pilo baten kantuak jartzen ditut; abesti ederrak egiten dituzte, baina, tamalez, hemen ez dira oso ezagunak. Talde hauek materiala bidaltzen didatenean harritu egiten naiz!

Irratsaioaz gain, 'Concierto Para El@s' jaiak egiten dituzu.

Irratsaioaren hasierarekin gertatu moduan, Burgoseko lagun batek proposatu zidan taberna batean jai bat egitea. Irratsaio antzerako bat egin nuen eta jendeak oso ondo pasatu zuen. Orain, Madrilgo lagun batekin egiten ditut jaiak, gure publikoa ezagutzeko aukera dugu eta beraiekin musikaz hitz egiten dugu garga-gardo batzuk edaten ditugun bitartean.

Aurten zenbat jai egin dituzu?

Dagoeneko sei jai antolatu ditugu eta, eguraldi onarekin batera, gehiago lotuko ditugu. Leku askotatik deitzen digute, baina ez gara honetatik bizi eta ezin dugu gure bizitza pertsonala alboratu.

Zer eskaintzen duzue zuen emaldietan?

Ez ditugu ohiko abestiak jartzen. Publikoari zerbait ezberdina eskaintzeko, asko entzuten ez diren taldeen abestiak jartzen ditugu; hori bai, talde klasikoak alde batera utzi gabe.

Beti abesti berdinak jartzen al dituzue?

Ez, abesti piloa ditugu jartzeko. Bertako taldeak ezagutzeko aukera izaten dugu, beraien kantuak jartzeko eta elkar ezagutzeko. Gainera, beste irrati bateko esatariak gurekin batera musika jarri nahi badute, ez dugu arazorik, aurretik hitz egin eta zerbait polita egiteko prest gaude. **Irrati alternatiboen arteko sarean bat al duzue?**

Ez, baina gero eta harreman estuagoa dugu eta TNT Radioren sarean elkar ezagutzen ari gara. TNTk nirea bezalako programak hartzen ditu eta eduki original bezalako programazioa eskaintzen du; bertan, 24 orduz rock doinuak entzuteko aukera dago.

Internet erabiltzen duzu programa hedatzeko.

Bai, teknologiak gauzak asko erraztu ditu: Arrasate Alacantera, TNTra, zuzenean bidaltzen dut seinalea eta handik mundu guztira hedatzen da. Gaur egun, TNT gaztelera hitz egiten den lekuetan erreferentea da. Gainera, *postcast* bidez, mundu guztia-erentzat dago eskuragarri. *Postcast*-ak aukera polita dira, saioa eguneko 24 orduetan entzuteko aukera ematen dute-eta.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Etxea salgai Matienan (Laudideta). Guztiz berriatua, kalitate handiko altzari eta materialekin. Hegoalde. 3 logela, bainugela, 18 m²-ko egongela balkoiarekin eta sukalde hornitua, balkoi itxiarekin. Prezioa: 246.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615-73 85 52 edo 688-86 18 78. Etorri ikustera!

Arrasate. Aukera paregabea. 204.000 euro. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua. Denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bikomun, egongela eta sukalde. Hiru igogailu eta gas naturala. 650 -01 05 15.

Arrasate. Zigarrola auzoan etxebizitza salgai. 72 metro kuadro. Lau logela, sukalde, jangela-egongela, komuna eta balkoia. Eguzkitsua. Deitu eta ikusi konpromiso barik. 140.000 euro. Negoziagarriak. 688-60 73 79.

Atxondo. 200 m²-ko txaleta salgai. Sukalde, bi egongela, lau logela, hiru bainugela (bata logela baten barruan), trasteleku. Altzariz hornitua. Berogailua, zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m²-ko terrena. Prezioa: 900.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615-70 12 23.

Berriz. Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m². Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukalde, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki batez). Berogailua zoru irradiazalea da. Oso eguzkitsua da. 607-52 24 26.

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua; 3 logela, sukalde-jangela, egongela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m² eta 8 m²-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzita, berogailuaren galdara jarri berria, hormako lau armairu, aluminiozko leihoak, atea eta zoru aldatuta. Garaje eta igerilekuarekin. Deitu telefono honetara: 655-70 46 84.

Elorrio. Salgai estreinatze dagoen 162 m²-ko terraza duen atikoa (73 m²). 2 logela, egongela bat, sukalde eta 2 bainugela. Igogailua eta trasteleku. Oso kokapen ona, eguzkitsua eta bista zoragarriekin. Aukera paregabea! Deitu telefono hauetara: 615-75 59 85 (goizez) eta 636 -22 49 02 (arratsalde).

Elorrio. Elorrio erdialdean 75 m²-ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta 8 m²-ko trasteleku. Sukalde ekipatua, 2 armairu horman sartuak eta igogailua. 230.000 euro. Garajea aukeran. 634-45 72 01.

Esakoriatza. Erdigunean etxebizitza ia berria salgai. 102 metro koadrokoa. Duplexa. Bi logela, ikasteko gela, bi komun, sukalde, eta egongela handia. Garajea eta trasteleku. Beharpen oso handiarekin. 245.000 euro. 675-71 16 93 / 688-67 63 96.

Gasteiz. 57 m², egoera onean, kalefakzioa eta ura elektrikoak dira, hegoaldeko begira, 1. solairua, 5 ate pisu bakoitzeko, igogailua, eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu, 2 logela, 2 komun (biak bainarekin), sukalde (garbigailua, mikroondasa, etab.), balkoia, moketa logeletan, parketa egongelan eta baldosak gainontzekoan, banakako

garajea, itxia, eskiak gordetzeko tokia, piszina eta belardia urbanizazioaren barnean, aurrean plaza bat dauka, kolunpioekin etab., orain dela urte bat hormak margotu ziren eta zoru aldatu zen, altzariekin. Telefonoa: 665 -75 78 07. Posta: marian.formigal@gmail.com.

Lurreta. Pisu bat salgai Arriaurdin, lurretan. 78.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. Deitu telefono honetara: 675-71 72 83.

Otxandio. Otxandion 90 m²-ko pisua salgai. Oso eguzkitsua, 4 logela, egongela, sukalde, komuna eta balkoia. Berritua. 150.000 euro. Deitu telefono honetara: 675-90 52 27.

Zaldibia. Salgai: Zaldibian etxebizitza berriak martxan, 169.500 eurotik aurrera, garajea eta trasteleku barne. Interesatuek deitu, 669-82 70 96 telefono zenbakira.

Zumarraga. Zumarragan Abeltxe baserria salgai. 252.000 euro. Deitu 618-98 98 56.

102. EROSI

Durango. Baserri bifamiliar osoa erreformazten dizut, baserri erdiaren truke, durangaldean. Beste proposamenen bat badaukazu, kontutan hartuko dut. 618-93 62 14.

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Aita Gabirel Jauregi kalean etxebizitza errentan edo salgai. Bi logelakoa. Ruben. 679 45 57 62

Aramaio. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Bi komun. Argitsua. Prezio onean. Deitu telefono hauetara: 647-22 09 38 / 665-72 28 46.

Aretxabaleta. Erdigunean estudio txikia ematen da errentan, emakumezko batentzat. 616-75 41 30.

Arrasate. 80 m²-ko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi logelakoa. Berritua. 659-59 71 21.

Bergara. 90 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Bi plazako garaje itxiarekin. 618-62 79 89 / 663 -86 11 37.

Bergara. Erdigunean 72 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Eguzkitsua. 606-65 58 08 / 660-04 25 25.

Bergara. Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 608-17 77 55.

Durango. Durangoko alde zaharrean etxebizitza errentan ematen dugu. 78 m², 3 logela, sukalde, egongela eta despentsa (700 euro). Harremanarako deitu 686-21 49 64 mugikorrera.

Esakoriatza. Etxebizitza ematen da errentan, erosteko aukerarekin, San Pedro auzoan. Hiru logelakoa. Oso eguzkitsua. 639 03 25 97

Hondarribia. Gela bakarreko apartamentua alokatzen da Hondarribian aste santu eta pazko astean, hondartzaren parean. Deitu telefono honetara: 617 55 25 43

Iruia. Iruian pisu berritua, ederra, alokairuan, 500 euro (eskuridun). Bankuko abala edo aseguru beharrezkoa. Etxea guztiz berri dago, estrenatzeko, toki lasai eta eder batean kokaturik. Konpromisorik

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. - Profesionalen modulua.

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com

gabe ikus ezazu. Jabe eta bizilagun euskaldunak! 85m², 3 logela, wc 1, balkoi 1, trastero 1, hornitua, konponketak eginda. Tel.: 676-05 18 85. joxialberdi@hotmail.com

Lakuntza. Logela batekoa, oso polita eta apaina. Herriko etxe batetan kokatua. 679-50 54 64 Itziaz.

Oñati. Bidebarrieta kalean 80 m²-ko etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi komun, sukalde eta logela. Balkoiarekin. Jantzia. 695-75 85 26.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. Partikular artekoa. Deitu 634 12 56 87 telefono zenbakira.

Durangaldea. Pisu edo apartamentu baten bila nabil durangaldean. 645-00 96 02.

Elorrio. Alokatzeko pisu bila nabil Elorrian. Altzariekin. Tel.: 94-658 21 91.

105. ETXEA OSATU

Antzuola. Baserri baten logela ematen da errentan, sukalde eta komuna erabiltzeko aukerarekin. 679 34 00 45

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan Araba ibilbidean.

KOMERTZIALA

Bergaran dagoen eta elikadura alorrean lan egiten duen enpresa batek Debagoienarako esperientziadun komertziala behar du. Deitu, asteartetik ostiralera, 09:00etatik 11:30era: 662 170 260

Mutil batentzat. Kontratuarekin. 678-73 66 54.

Arrasate. 36 urte neska pertsona baten bila etxebizitza osatzeko. 680-74 67 80.

Arrasate. Pertsona bat behar da Altamira auzoan 4 logela eta 2 bainugela dituen etxebizitza osatzeko. Etxea oso ondo dago eta langileak bizi dira bertan. 653-71 44 57.

Bergara. Logela ematen da errentan etxebizitza osatzeko. Erdigunean. 608-17 77 55.

Bergara. Logela ematen da errentan gela komunak erabiltzeko aukerarekin. Prezio onean. Erdigunean, toki egokian. 655 71 41 24

Durango. Logela bat alokagai Durango. Deitu telefono honetara: 630-76 18 28.

Durango. Logela bat alokatzen da Durango. Tabira auzoan. 645-00 96 02.

Errenteria/Oretea. 33 urte-tako neska pisukide bila errenterian. Pisu zentruan dago eta hileko 300 euro ordaindu beharoko lirateke. Nahiago emakumea. Kontakua: 662-41 36 53.

Lurreta. Pisu batetan logela alokagai, lurretan, neska euskaldun batentzat. 200 euro. Tel.: 633-23 38 48.

106. BESTELAKOAK

Trukea. Saloun (Pineda) daukadan etxebizitza trukatu nuke Arrasateko etxebizitza bategatik. Erdi berria. Urbanizazio pribatua. Hondartzatik 300 metrora. Deitu 943 79 45 74 telefono zenbakira.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 15 metro koadroko garaje itxia salgai Espolain. 20.000 euro. Deitu 19:30etatik 22:00etara zenbaki honetara: 606 74 15 32

Berriz. Garaje itxia salgai. 42 m². Ate automatikoagaz. Ur eta argiaren instalazioak, iaztik. Komuna eta bodega txiki bat. 2-3 kotxe. Txokoa sukaldeagaz. Tel.: 615-75 21 36.

Berriz. Berrizen, Learreta-markina kalean garajea salgai. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m². Tel.: 663-39 75 88.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean, 20.000 euro. Tel.: 660-45 87 56.

Oñati. Garaje itxia, 17 metro koadrokoa, salgai Arantzazu kalean. Prezio onean. 635-06 24 79.

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion, pertsiarekin. 675 -71 72 83.

202. EROSI

Durangaldea. Durangaldean karabana gordetzeko garaje itxia edo pabellioa erosiko nuke. 30 eta 90 m² artekoa. 2,5m-ko gutxieneko altuera (atea barne). Sarrera zabalda. Tel.: 691-70 69 13 (18:00etatik aurrera).

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Garaje itxia alokairuan Sasikoa inguruan. 75 euro. Tel.: 688-80 70 92

tsona nagusiak zaintzeko prest. 666-26 07 62.

Arrasate. Neska gertu ospitalean gauak egiteko, garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko. Egoitzatan eskarmentua dut. 693-40 88 86.

Arrasate. Eskarmentudun gidaria lanerako gertu. B, D, DI eta BTP baimenak ditut. Mudantzetan laguntzen ere bai. Nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko gertu. Gurutze gorriaren titulua daukat. 698-59 37 57.

Arrasate. Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbitasuna lanak egiten ere. Ordelegia: 16:00etatik 21:30era. Esperientzia eta erreferentziak. 677-81 10 00.

Arrasate. Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke debagoienan. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauz edo ospitalean ere bai. Angela. 659 -57 93 89.

Arrasate. Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke debagoienan. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauz edo ospitalean ere bai. Elena. 627 -60 49 99.

Arrasate. Nagusiak zaintzen edo denetarik garbitasun lanetan jardungo nuke debagoienan: atari, elkarte, taberna eta abar. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 682 -31 97 37.

Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatu eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

Bergara eta Arrasate. Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbitasuna lanak egiten ere. Ordelegia: 16:00etatik 21:30era. Esperientzia eta erreferentziak. 677 81 10 00

Bergara. Denetarik errekauek eta erosketak egiten dira. Bergaran bakarrik. 666 46 69 69

Bergara. Goizez lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketak egiten. Deitu telefono honetara: 680-77 06 46.

Debagoiena. 10 urte baino gehiagoko esperientziadun lehen mailako igeltsu lanerako prest, alkatuta eta pladur ezagutzat maila handia. Eusebio. 633 68 89 23

Debagoiena. 25 urteko gaztea arotz lanak edo margoketa lanak egiteko prest, prezio onean. 603 61 61 38

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketa lanak egiten (etxebizitza, bulegoak, eskalera...) eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. 671 98 94 34

Debagoiena. Erizaintza laguntzaile tituludun bikotea, baserrietan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bertan bizitzeko aukera. 697 35 62 49

Debagoiena. Esperientziadun gizona artzai lanerako eta baserriko mantentze lanak egiteko eskaintzen da. Ezagutza traktore eta bestelako makinari manejan. Eusebio. Deitu telefono honetara: 633 68 89 23

Debagoiena. Emakume gertu nagusiak zaindu, garbiketa edo bestelako lanetan jarduteko. 671 80 12 89 edo 935 16 94 54

Debagoiena. Erizaintzako laguntzaile tituludun gizon

esperientziaduna, pertsona nagusiak atenditzeko prest. baita ospitalean gauak pasatzeko ere. 697 35 62 49

Debagoiena. Esperientziadun emakumezko batek, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzte. Maite. 650 17 74 87 edo 943 76 48 26

Debagoiena. Gela-zerbitzari tituludun emakumea hotel eta ostatuetan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu telefono honetara: 671 98 94 34

Debagoiena. Gizon arduratsua, pladur montatzaile laguntzaile bezala lan egiteko prest. Esperientziaduna. 677 62 22 21

Debagoiena. Gizezkoa gertu eraikuntza laguntzaile, margoketa, lorazain zein nagusien zainketa jarduteko. 671 80 12 89 edo 935 16 94 54

Debagoiena. Gizezkoa gertu garbiketa lanak egiteko: etxeak, elkarteak, tabernak, atariak eta abar. Eskarmentuduna. Miguel. 634 41 90 51

Debagoiena. Mutil gaztea nekazaritzan esperientziaduna, baserrietako ortuetan lan egiteko prest. 698 38 00 32

Debagoiena. Mutila gertu garbitasun lanak egiten edo nagusiak zaintzeko. 680 95 65 57,

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen edo igeltsu laguntzaile bezala aritu izan naiz. 685 42 72 80

Debagoiena. Mutila prest garbiketa lanak egiteko edota adinezko pertsonak zaintzeko. 680 95 65 57

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauz edo ospitalean ere bai. Angela. 659 57 93 89

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Baita garbitasun lanetan ere. Egunez, gauz edo ospitalean ere bai. Elena. 627 60 49 99

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, baita garbiketa lanetan ere: atarteak, tabernak eta abar. 679 30 65 28

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo denetarik garbitasun lanetan jardungo nuke: atari, elkarte, taberna eta abar. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizizaten. Deitu telefono honetara: 682 31 97 37

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizaintza laguntzaile titulua daukat. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 689 18 04 12

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. 638 59 04 71

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak lagundu eta zaintzeko. 628 52 74 68, 943 53 49 71

Debagoiena. Neska arduratsua umeak zaindu, orduka garbiketak egiten edo nagusiak zaindu zein pasean laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Esperientziaduna. 680 77 06 46

Debagoiena. Neska euskalduna gertu asteburuetan zerbitzari lanak egiteko. Esperientziaduna eta ingelesez ere ondo moldatzen naiz. 649 57 70 59

Debagoiena. Neska euskalduna umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Infor-

 Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Matxiategi 102 m². 4 logela. Igogailua, berogailu eta trastelekuarekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailua eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Artzomendi 70 m². 2 logela. Igogailua eta berogailuarekin. Prezio ona.
- Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailua eta garajearekin.
- Zabaltegi 55 m². Balkoia eta trastelekuarekin. Prezio jaisiarekin. 114.192€.
- Artekale 70 m². 2 logela. Berogailuarekin. 123.707€.
- Justo Garate Plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
- Azkarrentz 75 m². 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243€.
- Zabaltegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€.
- San Lorenzo 80 m². 3 logela. Garajearekin. 228.384€.
- Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoia, igogailua, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
- Zubiaurre 51 m². 102.000€.
- Zabaltegi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona
- Ibargarai 74 m². Igogailua eta garajearekin.
- Burdinarte 53 m². Apartamentua, oso ondo.
- Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
- Zubiate 240 m² ortuarekin.
- Urteagan pisuak estrenatzeko. 195.000€.
- Bidekurutzetan pisuak estrenatzeko. 1,2,3 eta 4 logela. Aukera ona.
- Masterreka 104 m². 3 logela. Estrenatzeko. Trastelekuarekin. 294.495€.
- Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
- Lorentxokan pisuak estrenatzeko. 3 eta 4 logelakoak. AUKERA ONA.

Antzuola:

- Baserri 200 m². 3 logela. Berria. Garaje. Lur sailarekin.
- Buzintzurin apartamentua estrenatzeko. Aukera ona.
- Buzintzurri, Sagasti, Antigua, Zurtegi, Behoko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.

Soraluze: Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:

- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Salvador 90 m². 3 logela

meak ditut. Disponibilitate osoa. 671 35 22 60

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanak, nagusiak zaintzen, sukalde lanetan eta abarretan lan egiteko. Deitu telefono honetara: 610 99 70 46

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 618 04 15 45

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaintzeko, baita etxean bertan bizizaten ere. Umeak ere zainduko nituzke edo garbiketa lanak egin. Baserrietan ere bai. 669 10 13 94

Debagoiena. Neska prest garbiketa lanak egiteko eta haurrak edo adinezko pertsonak zaintzeko. 618 04 15 45

Debagoiena. Orduka zein asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. 659 90 85 13

Debagoiena. Webguneak diseinatzeko lan egingo nuke. Sandra. 618 04 15 45

Durungaldea. Kutxazain, biltegi lanetan, okindegian, harategian edota pastelerian lan egiteko prest. Esperientzia. Nagusien zaintzan ere, orduka. Geriatriako kurtsoa eta administratzioko laguntzailea. 650-37 61 88 Thelma.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketan, segurtasunean, lorezaintzan, okintzan, gurdi-garraiolarri... Lan bila. Tel.: 622-47 39 41. Julian.

Durungaldea. Pertsona nagusien zaintzan, peoi modura, igeltserotzan... Lan bila. 663-62 57 43.

Durungaldea. Basoan, nagusien zaintzan edota laguntzaile modura aritzeko lan bila. Pape-rekin. 681-11 41 62.

Durungaldea. Nagusien zaintzan, mendiko lanetan, lorezaintzan, biltegietan edo edozein fabriketan lan egiteko prest. Esperientzia batez ere mendiko lanetan. 646-41 89 07. Santiago

Durango. Bulegoan, etxean, portalen... garbiketerako edo nagusien zaintzarako lan bila. Jardunaldi erdian, aukeran goizez, astelehenetik zapatu eguerdira. Esperientzia. Tel.: 676-54 66 91 (Lola).

Durango. Durangoko emakume orduka etxeko lanak egiteko prest, informeeekin. Tel.: 94-466 89 26 edo 688-65 90 90.

Durango. Neska gaztea, zerbitzari lanak egiteko eskaintzen da, lan-erdi, lan oso edota asteburuetarako, esperientziaduna. 615-71 62 32.

Durango. Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia handikoa. Tel.: 675-70 32 61.

Durango. Garbiketan zein ume edo nagusien zaintzan lan bila. Lanaldi osoan, orduka edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 618-35 37 18

Durango. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita garbiketa lanetarako eta sukalde lanetarako ere. Tel.: 94-466 82 12 edo 653-33 06 05 (Genevieve).

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako lan bila. Interna, externa edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 696-63 95 21.

Durungaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako lan bila. Interna, externa edota asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 632-99 96 92.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna edo externa. Tel.: 683-47 28 05.

Durango. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusien zaintzarako lan bila. Interna. 632-11 77 23.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxean edo portalen garbiketa, ospitaleko edo etxeko zaintzak... Jardunaldi osoa edo erdia, gauetz, orduka... Esperientzia. 690-68 73 95.

Durango. Garbiketa edo nagusien zaintzarako lan bila. Etxean edo portalen garbiketa, ospitaleko edo etxeko zaintzak... 16:00etatik 20:00etara. Esperientzia. 646-92 52 15.

Durango. Nagusien, umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Jardunaldi osorako, asteburuetan... Erreferentziak eta esperientzia. Deitu telefono honetara: 681-21 82 30.

Durango. Nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketarako lan bila. Interna, externa, orduka edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak. 619-15 58 04.

Durango. Nagusien zaintzan interna modura lan bila. Esperientzia alzheimerdun eta demenziadun nagusien zaintzan. Tel.: 630-25 32 25.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketan aritzeko lan bila. Interna, externa edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 603-95 41 94.

Durango. Pertsona nagusien zaintzarako lan bila. Interna modura. Esperientzia. 632-86 92 82.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 678-80 96 01.

Durango. Neska orduka, lanaldi osoan, interna edo externa modura lan bila. Pertsona nagusien edo umeen zaintzan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 603-07 13 83.

Durango. Pertsona nagusien zaintzan edo garbiketetan lan bila. 09:00etatik 13:00etara. Esperientzia. 633-03 86 09.

Durango. Nagusien edo umeen zaintzan edo garbiketan lan bila. Lanaldi osorako, erdirako edo gauetarako. Erreferentzia onak. Tel.: 650-61 01 94. Rosa.

Durango. Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. Barne-zaintza, kanpo-zaintza, orduka, gauetz edo asteburuetan. Erreferentziak eta esperientzia. 608-65 90 55 (Nieves).

Esperientziaduna lan bila. Neska euskalduna naiz. Esperientzia daukat ostalaritzan, ume zaintzan eta etxeko lana egiten. 6157272 86

Iurreta. Pertsona nagusiak zein gaixo daudenak zaintzeko prest

nago. Urteetako esperientzia daukat. Deitu telefono honetara: 699-74 57 23. Ines.

Lanerako gertu. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Egunez zein gauetz. Eskarmenduna. Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran. 618 00 08 28

Zornotza. Umeak zaintzeko, jantokietan zerbitzatzeko, garbiketarako... lan bila. Esperientziaduna. Tel.: 688-68 66 08 (Geraxane)

Zornotza. Lorezaintza, altzairuen muntaia, elektrizitatea edota pintore lanetarako lan bila. Esperientzia baita fundizioan ere. 678-21 39 67 (Rafa).

Zornotza. Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Esperientzia. Tel.: 688-68 66 08 (Geraxane) eta 678-21 39 67 (Rafa).

5. IRAKASKUNTZA

501. EMAN

Abadiño. 20 urte ditut eta irakaskuntza ikasten ari naiz. Aurten, praktikak egin ditut. Irakaskuntzarekin kontaktu handiagoa izateko, klase partikularrak eman nahi nituzke. 688-86 38 34. E-posta: deiene.malaxetxebarria@gmail.com

Durango. Umeak zaintzeko edo partikularrak emateko prest. Magisteritzan diplomatu. Ingelesko eta euskerazko titulazioekin. Esperientzia. 657-77 61 71.

Durango. Irakasle euskalduna klase partikularrak emateko prest; Lehen Hezkuntza zein DBH. Tel.: 653-70 24 9.

6. MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana. Oso egoera onean dagoen autokarabana salgai. Benimar, 6 plaza, 2,8 TD. 10 urte. 18.000 euro. 629 43 27 19, 943 76 56 96

Autokarabana. Autokarabana. Perfilatua. Citroen jumper moncayo halcon 455 hdi 130 zp. Beti garajea. 55.000 km. Matrícula: 2674 crd.4 bidaiari. Airbaga gidariarentzat. Telebista estrenatu gabea. Antena parabolikoa. Atzeko kamera. Alarma. Eguzki plakak. Motorra eramatekoa. Lau

bizikleta eramatekoa. Ordenagailua. Toldoa. Gurrpil berriak. Tapizeria estrenatzeko. Extrak. 653-73 08 04.

Citroen Jumpy 120zp 11h1 2.Ohdi. Prezioa: 11.000 euro (BEZa barne). Motorra aldatua orain dela 20.000km auto-etxean. Errebizioak eguneratuta. Potentzia: 120zp. Gurpil berriak. Aire egokitua, abiadura mugagailua eta erregulatzaila, cd-mp3. Telefonoa: 653-71 25 74. Posta: xabier@eguenak.com.

Fiat punto salgai. Fiat punto salgai. 2007. Urtekoa. 48.425 km. 8.000 euro. Tel.: 665-74 56 03.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzumeak salgai. Ahuntzume bi saltzen dira Mallabiko Elgetzu baserrian. Tel.: 606-70 91 18.

Ahuntzumak salgai. Hauntzumak haurdun. Azpizuri eta azpigorria. Mugikorria: 688-60 95 60. Tel.: 94-466 81 37.

Ardiak salgai. Haurdun dauden ardiak salgai. Gorbeiaiko larreen ibilitakoak. Tel.: 94-631 71 17 edo 690-73 27 01. Cecilio.

Artzai txakurra salgai. 3-4 urteko euskal artzai txakur mantsoa salgai. Tel.: 692-81 90 35. Amaia

Astoak. Zazpi asto gazte, emeak, salgai. 635-73 35 15.

Seter txakurkume ehiztariak salgai. Seter txakurkume ehiztariak salgai. 150 euro. 695-71 00 68.

Txakurak salgai. Urtarilaren 17an jaiotako pitbull kumeak salgai. Arrak eta emeak ditut. Beltzak batzuk eta besteak tigre itxurakoak. Gurasoak ondo hezitakoak, jatorrak eta mantzoak. Deitu konpromiso barik. 688-69 87 56.

703. EMAN

Txakurkumeak opari. Azaroan jaiotako txakurkume opari nahi ditut. Ama labradorra da. Txakur bat, marroia, arra da. Etabeste, beltza, emea. Tel.: 638-98 59 30

Txakurra erdi opari. Mastin arrazako txakurra erdi oparitzen da. 4 urte, arra. Oso esanekoa, ona. Tel.: 616-91 90 61.

Txakurra opari. Arratoi txakur bat oparitzen da. Tel.: 645-71 48 59.

8. DENETARIK

801. SALDU

Abadiño. Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Srzubia kalean, 2.000 m2, erreka ondoan eta bide ertzean. Apropoa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. 658-75 65 12.

Agria motokultorea salgai. Agria 2700 motokultorea salgai. Diesela. 94-682 45 90. Luis.

Arrasaten panteoia salgai. Panteoia saltzen da Arrasateko hilerrian. Lau leku dauzka. Erabili gabea. 685-77 66 63.

Baserritar jantzia. Mutikoarendako baserritar jantzia salgai. 1-4 urte bitarteko umearentzat. Praka, alkandora, blusioa, txapela, galtzerdiak eta abarkak. 50 euro. 653-72 22 54. marysea15@hotmail.com.

Baxuarendako amplifikagailuak. Bi amplifikagailu. Peavey eta academy etxekoak. Prezio oso onean. 652-71 38 28.

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, Bernedon. Gasteizetik 40km-tara dago, eta izkiko golfetik 3minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana)

Berogailu ekologikoa debagoienan. Pelet sistema darabilen berogailu ekologikoa salgai, egoera onean. Interesa izanez gero idatzi mitartegara@euskalnet.net helbidera edo deitu telefono zenbaki honetara: 943-79 17 51.

Bixkiendako silleta saltzen da. Maclaren technotwin beltza osagarri guztietekin. 2010ean erosi. Gutxi erabilia. Kontakua: 636-15 53 55.

Bizikletarako umeen aulkia salgai. Bizikletarako umeen aulkia salgai. Ume txikia atzean eramateko, eroso. Oso gutxi erabilia, eta merkea. 648-63 58 06.

Chaise longueak debagoienan. Banakako 2 chaise longue. Beltzak. Tamaina ezberdinak. Leku faltagatik saltzen dira. Berriak. Prezio interesgarria. 635-71 80 28.

Eskiatzeko materiala. 10-12 urteko umearendako praka, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai. 1,25 neurrikoa, lokailuekin. 656-78 64 64.

Gimnasia bonoa. Bibono saltzen dira Arrasaten. 17 hila-beterako. Egunerokoan zaitzke, astelehenetik larunbatera, eta edozein eskolatar. 320 euro bakoitza. 607 06 22 20, anuiciointer@yahoo.es

Isolatzaila salgai. Isolatzaila (kortxo beltza) salgai Elorion. Teilatuak, paretak eta lurra aislatzeko balio du. Prezioa negoziagarria da, erondako kopurua araber. Deitu telefono honetara: 661-82 93 59.

Kristalezko mahaia. Bulegorako kristal eta altzairuzko mahaia salgai debagoienan. 160x78x76 neurrikoa. Egitura altzairu eta kristal tenporizatuzkoa. 619-87 95 57.

Mahaia eta aulkia salgai. Egurrezko lau mahai eta aulkia salgai. Txoko baterako egokiak. 695-76 84 21.

Mountain bike-a salgai. Mountain bike horia salgai. 3 plato eta 8 pinoi. 6tik 10era urteko ume batentzat. 75 euro. Tel.: 94-682 07 67 (Igor).

Ohe egiten den sofa. Bi lagunentzat ohe egiten sofa. Ikea ps lovas markakoa, beltza

arraia zuriekin (koltxoia barne). 160x205cm. Berria. Leku faltagatik saltzen da. Prezio interesgarria. 635-71 80 28.

Ohe elektrikoak salgai. Pertsona ezinduentzako, ospitaleen motako ohe elektrikoak saltzen dit. Berri-berria. Akaroen kontrako koltxoia, oheburuko eta segurtasun barra. Mandoak zortzi botoi ditu. Lurretik 30 cm-tara jaitsi daiteke eta 95 cm-tara igo. Ikusi, konpromiso gabe. 700 euro. Deitu telefono honetara: 636-43 00 20.

Puff-a pistatxo kolorekoa. Puff-a. Pistatxo koloreko puff-a (materiala: polipiel). Leku faltagatik saltzen da. Berria. Prezio interesgarria. 635-71 80 28.

Sofak eta mahaia. Hiru plazako sofa bat, plaza bakarreko bi eta egurrezko mahia salgai. Denak rustikoak. Egoera onean. 300 euro. 943-77 08 49.

Trabesiak botak. Trabesiako eski botak salgai. Dynafit zzero3 modeloa, 28 neurria (43), laranja kolorekoa. 2 urte pasatxo. 160 euro. 670-48 91 49.

Txakurrendako karroa. Txakurramateko karroa salgai. Egoera oso onean. Alzaga etxekoa. Lau txakur eramateko modukoa. 360 euro. Deitu 19:00etatik aurrera. Jabi. 695-75 52 70.

Umea eramateko motxila. Vaude jolly light umea eramateko mendiko motxila salgai. Estreintzeko, etiketa eta guzti. 100 euro. 94-603 25 02.

Xurgagailua (aspiradora). Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49

802. EROSI

Lursaila. Lursaila erosiko nuke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 87 95 57

Sevillana soinekoa. Sevillana soineko bat erosiko nuke, hau probatzeko aukera izanda. Bidali argazki eta prezioa mesedez: alazne.pst@gmail.com.

Sofak eta mahaia. Hiru plazako sofa bat, plaza bakarreko bi eta egurrezko mahia salgai. Denak erustitakoak. Egoera onean. 300 euro. Deitu 94377 08 49 telefonora.

Soinu txikia erosi. Soinu txiki bat erosiko nuke. Tel.: 650-72 27 47.

Txanponak. Zilarrezko eta urrezko txanponak erosiko nituzke. 656 75 76 98

Zilarra erosten ditut. Zilarrezko gauzak erosten ditut: txanponak, etxeko kuberteria eta abar. Harremanetan jartzeko, deitu: 657-70 43 16. numipega@gmail.com.

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua boliviara. Bidali zure ordenagailua Boliviako eskolatar. Ordenagailuak hondatuta badaukazu, zaharra bada edo zaborretarabota behar baduzu, nikjaso, konpondu eta kainaberaren bitartez bialduko dugu Boliviako bigarren mailako eskolatar. Tel.: 655-71 76 66.

806. GALDU

Belarritakoa galdu. Aretxabaletako Errekabarren eta Durana kalean ardean galdu nuen urrezko belarritakoa otsailaren 13an. Sarituko da. Deitu telefono honetara: 628-89 30 68.

Betaurreko graduatuak galdu Aretxabaletan. Aretxabaletan galdu nituen, arastute-domekan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez. 628-69 93 82.

Eskumuturrekoa Bergaran. Ibarra kalean martxoaren 11n zilarrezko eskumuturreko galdu nuen. Eskertuko nuke norbaitek aurkitu badu deitza: 943-76 70 95 / 661-10 29 66.

Telefonoa Urkulun. Martxoaren 22an, arratsaldean, Urkulun karkasa morea duen mobil beltza galdu dut. Aurkitu baduzu mesedez deitu zenbaki honetara. Mila esker aldez aurretik. Deitu telefono honetara: 685 72 19 86,

Umearen txamarra. Aretxabaletan. Aratuste-domeka arratsaldean galdu nuen. Marroia da, Quiksilver etxekoa eta 4 tailakoa. 659 35 89 92

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasatetik Donostiara autoan. Eguneroko Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzeke jende bila nabil. Arrasatetik 8:30ean iristen zena eta Donostiara 17:30etan. Imanol. 669-13 20 08.

Durangotik Tolosara autoa konpartitzeko. Durangon bizi naiz eta Tolosan egiten dut lan. Kotxea konpartitzeko pertsona bila nabil. durangotolosa@gmail.com. Tel.: 680-58 41 25.

Mutil euskaldun jator baten bila Bilbon. 50 urteko neska euskalduna naiz. Alai, irekia, berriketari ona, lagun zintzoa. Gustuko dut igeri egitea, senderismoa (baina oso suabea, jeje), zinea, kantatzea, euskal kulturaren mundua, hondartzak, bidaiatzea, lagunekin irtetzea, txangoak egitea... Bizitzaz disfrutatzea. Nire antzeko mutil bat ezagutu nahiko nuke, bi oso zenbaki polita delako. Harremanetan jartzeko nire telefono zenbakia 606-25 05 84 da.

Etxebila
higiezinak

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

ALOKAIRUAK

ANTIGUA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora. 650€.

PASAI DONIBANE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 650€.

LEZO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Igogailua. Balkoia. 690€.

LOIOLA Erdialdean. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 675€.

HERNANI Logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza 15 m2. Oso polita. 650€.

AMARA Altua. 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Terraza. 850€.

ULIA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Berogailua. Parkinga. 825€.

SALGAI

AMARA 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Terraza. Eguzkitsua. 234.334€.

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Eguzkitsua. 249.780€.

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Altua. 299.900€.

AMARA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Garajea. Trasteleku. 291.490€.

ERDIALDEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. Balkoia. 187.515€.

ANTIGUA 70 m2. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. Oso polita. 300.445€.

EGIA Mandasko Dukea. 75 m2. 2 leiho Mandasko Dukearen kalera. 197.932€.

EGIA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Igogailua. 180.000€.

HERRERA 2 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Berritua. Kalera. 180.000€.

MARTUTENE 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Kanpora. Parkinga. 167.982€.

PASAI ANTIXO 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Berritua. Balkoia. 170.000€.

PASAI DONIBANE Herriko plazan. Etxebizitza eta ganbara. 100 m2. Terraza. 180.000€.

LEZO Oso polita. 80 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Dena kanpora. 210.000€.

LEZO 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. Berritua. 124.800€.

ASTIGARRAGA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Kanpora. 156.203€.

ERRETERIA Altua. Igogailua. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 180.000€.

LEITZA 85 m2. Igogailua. 3 logela, sukaldea, egongela bikoitza, bainugela. Balkoia. Berogailua. 156.200€.


www.etxebila.net
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

www.inmosalbide.com

Salbide
SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Eraikuntza berria. 3 logela, 2 bainugela eta 127 m2ko terraza. Oso prezio onean 39.000,046 pezetak!

Aia. Baserría berritu berria. 125 m2-ko bi solairu ditu



Pinteresten hazkunde grafikoa. | SOCIALMEDIA

Hazi eta hazi jarraitzen du Pinterest-ek, modako guneak

Sarea, gehienbat, emakumeek erabiltzen dute, eta gazteek; erabiltzaileen %30ek 25 eta 34 urte bitartean dauzkate

JON BEREZIBAR | ARRASATE

12 milioi erabiltzailearekin, honezko gutxiak jartzen dute zalantzan Pinterest guneak duen arrakasta. Iazko maiatza ezkerko bisitari kopurua eta bisitariak webgunean emandako denbora ia hamar bider hazi da. Konparatuz, bi urte bete berriant, 10,4 milioi erabiltzaile zituen Pinterestek eta epe berean Facebookek 6 milioi erabiltzaile zituen eta Twitterrek, 3.

Gazteak eta emakumeak

Shareaholic guneak emandako datuen arabera, sare sozialetan ematen diren lotura eta erreferentzien %3,61 ematen da Twitterren, eta Pinteresten ia kopuru bera da: %3,6. Facebookek erreferentzia trafikoa %26,4 bideratzen zuen eta Google+ sareak, %0,22, urtarileko datuen arabera. Twitterrek beste bideratzen du trafikoa, alegia.

ComScore erakunde ezagunak ere azterketak kaleratu ditu modako sare sozialaren ezaugarri berezietan buruz, profil demografikoa zehaztuaz; Ameriketako Estatu Batuetako erabiltzaileena, kasu honetan. Adinari dagokionez, 25 eta 35 urte artekoa da erabiltzaileen %30 eta bigarren adin tarte nagusia 35 eta 44 artekoa (%325) eta gehiengo zabalak emakumezkoa da: zehazki, %80.

Apirilean aurkeztuko dute udazkenerako salgai egongo den Windowsen bertsio berria

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Zeresana pizten dabil Windowsen bertsio berria, diotenez, mugarrizango dena eta gailu eramangarrietarako bereziki prestatu dutena. Lehen aurkezpen eta hasierako *testing*-ak eginda daude eta erabiltzaile askok izan dute dagoeneko proba egiteko aukera, baina garatzaileek lanean jarraitzen dute. Asmoa da udazkenerako salgai jartzea; zehazki, urrian.

Garatzaileendako beta bertsioa dagoeneko banatu da eta kontsumitzaileentzako bertsio definitiboari azken ukituak ematen dabilta, Microsoftetik

iragarri dutenez. Windows 8-ekin pantaila ukigarrien merkata bereganatu gura dute; orain arte nahiko utzita izan duten alorra, hain zuzen.

ARM eta Intel

Sistema eragile berria ARM eta Intel X86 sistemetarako egongo da prestatuta, eta apirilean emango dute, zurrumurruren arabera, xehetasun tekniko guztien berri. Smartphone, tableta eta gailu ukigarrientzako berezia izango da, eta bateragarria mahai-gainekoekin eta eramangarriekin.



Windows 8, ordenagailu baten. | TECNOLOGIA

Banda zabalak garesti segitzen du Espainiako Estatuan

J.B. | ARRASATE

Banda zabalera txikiena duten herrialdeetan bogarrena da Espainia Europako Batasunean; eta garestien artean, ostera, zortzigarren postuan dago. Internauten Elkarteak ikerketa konparatiboa kaleratu berri du. Erosteke ahalmena kontuan hartuta, seigarren garestiena da Espainiako Estatu ADSLaren prezioari dagokionez.

Elkartearen salaketak ez dira hor geratzen, eta aditzera eman dute urtebetean operazioak ez direla ia moldatu, eta, egin dutenen kasuan, %1 besterik ez da merkatu. European ADSL konezioaren batez besteko prezioa hileko 33,44 euro da eta Espainia horren gainera dago. Portugal da banda zabal merkeena duen herrialdea, 14,99 euro, eta garestien poloniarrek ordaintzen dute, 64,53 euro. Internauten Elkarteak azaltzen du Espainiako arazoa dela enpresa hornitzaile eta operadoreek zerbitzuak berriro saldu egiten dituztela eta berezko garapenetan ez dutela inbertitzen. Salatzen dute, era berean, oraindik orain banda zabala ez dutela abonatu guztiek eskuragarri.

Megauploadeko erabiltzaileak salatzekotan egi da Hollywood

J.B. | ARRASATE

FBIkoek operazioa egin zutenean datu guztiak ezabatuko zituztela zabaldu zen baina momentuz ez dute halakorik egingo. Estimaten da 65 milioi direla Megaupload-en kontua zeukaten erabiltzaileak eta haien datuak eta fitxategiak zerbitzarietan jarratzen dute. Wired agerkari ezagunari filtratutako gutun baten bitartez jakin da Estatu Batuetako Film Elkarteak, MPAA delakoak, asmoa daukela egile eskubideak urratu dituzten erabiltzaileak ikertu eta salatzeke.

Hasiera baten, zerbitzua itxi eta gero, mantenu kostuak zirela-eta asmoa zen datu guztiak ezabatzea. Honen aurrean ehunka mila erabiltzaile salaketak jarri zituzten eta Dotcom bera ere, zaintzapeko askatasunean, horren auka azaldu zen. Filtrazioarekin, baina, jakin da artxiboak mantentzearen atzean benetan MPAA elkarte zegoela, aukera baliatu nahi baitzuten erabiltzaileak zuzenena salatu ahal izateko.

Bateriaren %75 erabiltzen dute doako aplikazioek

J.B. | ARRASATE

Publizitatea txertatzen duten mugikorrek doako aplikazioek bateriaren iraupena murrizten dutela erakutsi dute ikerketa baten bidez. Bateria aurrezteko, ordaindutako aplikazioak erabiltzea gomendatzen da beraz.

Android mugikorretan egin dute frogua Purdue unibertsitatean, Indianan, Estatu Batuetan, eta ikusi dute aplikazioek erabiltzeko bateria indarraren %75a iragarkiak jaso eta bidaltzeko erabiltzen dela. Aplikazio bakar bat martxan izatean 90 minutu ken diezaizkioke batz beste bateriaren iraupenari.

Angry Birds bideo-joku ezaguna ipini dute adibide moduan. Kasu honetan bateriaren %20 erabiltzen da jolasarako, %45 erabiltzailearen kokapen datuak bidaltzeko GPSaren bitartez. 3G konezioak 10 segundu behar izaten ditu kokapen datuen transmisioa egiteko eta gainontzeko publikitatea txertatzeko erabiltzen da. Eraginkortasun falta salatu dute ikerlariek.

SEO teknika lar duten guneak zigortuko ditu Google-ek

J.B. | ARRASATE

Google-en bilatzailean emaitzak posizionatzeko teknikak ezagunak dira. Bilatzaileak bere logaritmoa darabil bilaketan emaitzak ordenatzeko baina badaude zenbait teknika postu hobeak lortzen laguntzen dutenak, linkak erabiltzea edo hitz gako egokiak erabiltzea.

Google-ek orain benetako erreferentzia duten emaitzak eman gura ditu eta ez posizionatzeko teknikak ondoen erabiltzen dituztenak eta, horrela, posizionamendu teknika larregi erabiltzen dituzte webguneak zigortuko ditu zerrendan postuak kenduta.

Bilaketa motoreen optimizazioa bilatzen dute Google-ekoek eta arauak aldatuko dituzte aurki. Hitz-gako larregi edo barne-lotura gehiegi dituzten webguneak arretaz begiratuko dituzte. Ingeniari lantalde bat lanean dabil dagoeneko, iragarri dutenez, baina momentuz ez dute esan zehazki nola penalizatuko dituzten webgune susmagarriak.

Androiderako Kindle-en bertsioa eguneratu egin dute

Kindle eta Android gailuen arteko bateragarritasuna hobetu nahi izan dute eta dagoeneko deskargatu daitezke irakurgailuaren aplikazio berria *Send-to-Kindle* aukerarekin, gainera. Postako edozein dokumentu Kindle irakurgailura erraz bidal daitezke aurretiaz eta bateragarritasuna erabatekoa da.

Gainera Google Play sistemaren bitartez egindako erosketak eta deskargak ere bateragarriak izango dira bertsio berriarekin.

LibreOffice ofimatika suite librea, mobiletarako bertsioan

Dokumentuak editatu eta partekatzeko bulegorako software sorta libreak apirilean izango du bere bertsioa gailu eramangarrietan erabiltzeko moduan.

Androiderako bertsioa ia prest daukate osotasunean eta alternatiba multiplataforma batekin dabilta lanean orain. Asmoa da apirilean bertan integrazio osoa ekarriko duen bertsioa aurkeztea eta eskuratzeko moduan jarri ahal izatea, doako deskarga bezala.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON



Zuzenekoekin liluratuta

Jakin berri dugu 3Koma ekoiztetxea *Kantuan* emankizuna prestatzen ari dela ETB1eko larunbat gauerako. Julian Iantzik aurkeztuko du musika-ekitaldia, eta Euskal Herriko audientziak saioan parte hartu ahal izango du, bere musika zaletasuna erakusteko. Hedabideek azaldu dutenaren arabera, "rantxerak, baladak, euskal musika, habanerak eta azken hamarkadetako pop-rock nahiz dance estiloetako hit handiak" antzetzuko dira larunbat gaueko emankizuneari.

Atzera begira jarri eta 90eko hamarkada hasieran emititzen zen *Funtzioa* saioaz oroitu naiz, Xabier Otaegi eta Jose Ignazio Antsoenak aurkezten zuten umore eta musika saioa. Pentsatu dut zein xarmagarriak ziren ostiral-gaubelak *Funtzioa*-rekin; gero konturatu naiz hogei urte pasa direla harrezkeroztik...

Erronka ederra da ETB1ena *reality*-en garaian zuzeneko emankizunari helzte.

Asmatu dute, behintzat, ordutegiarekin, aspaldiko doinuaren melankolia piztuko diote eta bati baino gehiagori.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 26



Xabier Leteri omenaldia

20:12

Sortuko dira besteak Leteren omenezko ekitaldiaren berri emango digu Joxe Anjel Arbelaitz kantaldiko antolatzaileak.

12:30 Magazinea
13:30 Onein
14:08 Altxor Txokoa
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:08 Ur eta lur
15:31 Goierri Creation Center
16:06 Organo kontzertua
16:38 Berriak
16:58 Eguraldia
17:03 Walker
17:33 Onein
17:55 Berbaz
18:55 Ikusmira
19:17 AsteON
19:47 Berriak
20:07 Eguraldia
20:12 Magazinea
20:57 Berriak
21:22 Eguraldia
21:27 Harmailatik
22:12 Magazinea
22:57 Harmailatik
23:42 Berriak
00:07 Eguraldia

MARTITZENA, 27



Familia hartzaileak

20:17

Umeak hezteko hartzen dituzten familien berri izango dugu martitzenean. Halako familia bateko kide bat etorriko da.

12:30 Magazinea
13:15 Harmailatik
14:00 Beranduegi.tv
14:18 AsteON
14:48 Berriak
15:08 Eguraldia
15:13 Ikusmira
15:24 Harmailatik
16:09 Onein
16:44 Berriak
17:09 Eguraldia
17:14 Bizitegia
17:44 Harmailatik
18:29 Altxor Txokoa
19:02 Goierri Creation Center
19:35 Beranduegi.tv
19:52 Berriak
20:12 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Berriak
21:22 Eguraldia
21:27 Harira
22:27 AsteON
22:57 Magazinea
23:42 Berriak

EGUAZTENA, 28



'Ekogune' saio berria

22:29

Besteak beste, olioak birziklatzeak daukan garrantziari buruz jardungo dugu iraukorktasunari buruzko saioan.

12:15 Magazinea
13:00 Harira
14:00 Beranduegi.tv
14:18 Ekogune
14:48 Berriak
15:08 Eguraldia
15:13 Gipuzkoa kultura
15:43 Onein
16:06 Berbetan
16:41 Berriak
17:01 Eguraldia
17:06 Iruñeko Hotsak
17:31 Harmailatik
18:16 Organo kontzertua
18:48 Ekogune
19:18 Walker
19:47 Berriak
20:07 Eguraldia
20:12 Magazinea
21:01 Lehiaketa
20:57 Berriak
21:22 Eguraldia
21:27 Beranduegi.tv
21:44 Magazinea
22:29 Ekogune
22:59 GCC
23:32 Berriak
23:57 Eguraldia
00:02 Planik bai?

EGUENA, 29



Erakusketa bat ikusgai

22:17

Koldo Mitxelena *Leizeak irudiaren labirintoak* erakusketa dago, eta gertutik ezagutzeko aukera izango dugu.

12:30 Magazinea
13:15 Ekogune
13:45 Ikusmira
14:07 Mendialdean bizi
14:32 Ikusmira
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:08 Bizitegia
15:38 Berbaz
16:43 Berriak
17:03 Eguraldia
17:08 Iruñeko Hotsak
17:33 Beranduegi.tv
17:51 Ikusmira
18:13 Altxor Txokoa
18:45 Ur eta lur
19:06 Ekogune
19:36 Planik bai?
19:46 Berriak
20:06 Eguraldia
20:11 Planik bai?
20:21 Magazinea
21:11 Berriak
21:36 Planik bai?
21:46 Eguraldia
21:51 Ekogune
22:17 Gipuzkoa kultura
22:47 Magazinea
23:32 Berriak
23:57 Eguraldia
00:03 Berriak
00:27 Eguraldia
00:32 Planik bai?

EGUBAKOITZA, 30



Astebururako planak

21:43

Asteburuari begira jarriko gara *Planik bai?* saioarekin. Asteburuko hitzorduen berri jaso ahal izango duzue.

12:30 Magazinea
13:15 Gipuzkoa kultura
13:45 Iruñeko Hotsak
14:10 Onein
14:33 Planik bai?
14:43 Berriak
15:03 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:18 Bizitegia
15:48 Berbaz
16:48 Berriak
17:08 Eguraldia
17:13 Planik bai?
17:23 28 Klip
17:49 Harira
18:49 Berbetan
19:24 Beranduegi.tv
19:43 Berriak
20:03 Eguraldia
20:08 Planik bai?
20:18 Harira
21:18 Berriak
21:38 Eguraldia
21:43 Planik bai?
21:53 AsteON
22:23 Esatea libre
23:23 Planik bai?
23:33 AsteON

ARRASATE IRRATIA

Sharon Stoner musika taldearen kontzerturako sarrerak

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, aste honetan Sharon Stoner taldeak emango du kontzertua gaztetxean. Egueneko greba dela eta, eguaztenean izango da kontzertua. Bertara joateko sarrerak lortu nahi badituzue, deitu 943 25 05 05 era edo idatzi irratia@goiena.com helbidera edo [@arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena)-ra. Zorte on.

Hilaren 29ko grebaren gainekoak jasoko ditugu 107.7an

Eguenerako deituta dagoen greba egunaren nondik norakoen berri jaso ahal izango duzue Arrasate Irratian aste honetan. Grebaren aurreko eta osteko notiziak gertu-gertutik eskainiko dizkizuegu eta grebaren oihartzuna zein izan den ere jakin ahal izango duzue *Igo autobusera!* saioa entzunda. Beraz, jarraitu gurekin grebaren nondik norakoak.

Zea Mays taldearen kontzerturako sarrerak ditugu zozketan

Egubakoitzean, hilaren 30ean, Zea Mays taldeak kontzertua eskainiko du Oñatiko gaztelekuan, gaueko hamaiketan. Bertara joateko sarrerak nahi badituzu, hartu parte Arrasate Irratiko zozketan eta lortu sarrerak gurekin. Deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira edo bestela idatzi irratia@goiena.com-era edo [@arrasategoiena](https://twitter.com/arrasategoiena)-ra. Hartu parte zozketan eta zorte on.

TELE-ALBISTEAK

Astean gertatutako albisteen errepasoa 'AsteOn' saioan

Erreportajea, zappinga, kale inkesta eta bideo iritzia dira saioaren atal nagusiak

Arritxu Barruso, *AsteOn* saioko aurkezlea. | A.T.

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

AsteOn saioa egubakoitzean eskaintzen hasi garen saioa da, eta bertan, astean zehar gertatzen diren albiste esanguratsuenen laburpena egiten da.

Hainbat atal dauzka saioak eta Arritxu Barruso da aurkezlea.

Saioaren atalak

Asteko gai bat hartuta, erreportaje zabala lantzen da *AsteOn* saioan. Goiiena telebistan emandako asteko albisteen zappinga ere egiten da, irudi eta adierazpenak batuta. Zeresana ematen ari den gai bati buruzko kale inkesta ere egiten da, herriarren iritzia entzun ahal izateko, eta bestelako bideo-iritzi batendako tartea ere badauka *AsteOn*-ek. Bideo-iritzi horren tartean euren kezka azalduko dituzte, besteak beste, Itxaro Zubillagak, Oihan Vegak eta Aratz Losadak.

Astean gertatutako notizien berri jasotzeko saioa proposa da, beraz, *AsteOn*. Egubakoitzean 21:53an eskainiko dizuegu.

Beñat Herce Eskoriatzako alkatea izango dugu martitzenean 'Harira'-n

Herriko alkateak zuzenean erantzungo die ikus-entzuleen galderei eta kezkei

A.T. | ARRASATE

Astero Debagoieneko alkate bat gonbidatzen dugu *Harira* saioa, eta bihar, martitzena, Eskoriatzako alkate Beñat Herce izango da Goiiena telebistan.

Herriko kontuak izango dituzte hizpide alkateak eta Eneko Azkarate aurkezleak. Horrez gain, ikus-entzuleek saioan parte hartzeko aukera izango dute, alkateari galderak eginda. Alkateak zuzen-zuzenean erantzungo ditu.

Egin galdera alkateari

Hainbat modutara helarazi ahal izango diote alkateari

galdera edo kezka ikus-entzuleek: zuzenean, galderak bi modutara egin ahal izango dira: telefonoz deituta 943 25 05 05 zenbakira edo Twitter bidez [#harira](https://twitter.com/harira) traola erabiltuta; *Goiena.net*-en *streaming* bidez ere eskainiko da saioa, eta galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute erabiltzaileek.

Edozelan ere, galderak aurretik bidaltzeko aukera ere izango da: posta elektronikoz harira@goiena.com helbidera. Horrenbestez, animatu eta bidali zure galdera edo kezka alkateari.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Olatz Arregi Eguren
Martxoaren 31n, 7 urte.
Zorionak eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik!
Ondo-ondo pasatu Erramu Zapatu eguna!



OÑATI
Iñaxio Inza
Martxoaren 31n, 63 urte.
Zorionak eta urte askotarako, aittaita!
Etxeko danon partetik mila kilo zorion batez be Unax, Uxue eta Elaiaren partetik. Jarraitu oin arte moduko umoretsu!



ARRASATE
Narrea Balerdi Berezibar
Martxoaren 31n, 6 urte.
Zorionak etxeko sagutxoari!
Jarraitu horrela! Pablo, Aner, Malen, Martin, June eta Noraren partetik.



BERGARA
June Contreras Arakistain
Martxoaren 30ean, 2 urte.
Zorionak, artista!
Patxo eta besarkada handi bat familiakoen partetik. Oso ondo pasatu zure egunean.



BERGARA
Naia Murgiondo Kortabarria
Martxoaren 30ean, 3 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik ondo pasatu eguna eta muxu handi-handi bat!



OÑATI
Argider Isasti
Martxoaren 29an, 35 urte.
Zorionak eta urte askotarako, aitta.
Ondo-ondo pasa ezazula zure urtebetetze eguna eta laztan asko etxeko danon partetik. Muxu bereziak amatxo eta nere partetik. Izar.



URRETXU
Markel Zabaleta Artolazabal
Martxoaren 29an, 4 urte.
Zorionak eta marrubizko muxu potolo-potoloak Antzuolatik Urretxura. Ongi pasatu zure urtemuga familia eta laguntxoekin. Besarkada handi bat tio, tia, Edurne eta bereziki zure arrebaitzaren partetik.



ARRASATE
Irati Hernandez Iturbe
Martxoaren 27an, 7 urte!
Zorionak, edertasun, urte askotarako. Oso ongi pasatu zure egunean. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Ariane Sanchez Corbella
Martxoaren 27an, 5 urte.
Zorionak! Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat! Familiaren partetik.




ARRASATE
Ixone Garitaonandia Uriarte
Martxoaren 27an, 8 urte.
Handitzen, handitzen... heldu da zure 8. urtebetetzea. Oso ondo pasatu eta zortzi mila patxo etxekoen partetik. Zorionak.



OÑATI
Auritz Esnaola Osinaga
Martxoaren 27an, 5 urte.
Zorionak, txapelak!
Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi-handia etxeko danon partetik, baina bat espeziala Eneritz, Malen, Lier, Ane eta Intzaren partetik.



ARETXABALETA
Ager Lanzos
Martxoaren 26an, 8 urte.
Zorionak, guapa!
Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partetik. Mua!



OÑATI
Igor Tome
Martxoaren 26an, 21 urte.
Zorionak, txupetons!
Geretak maite zaitu! *A tii te gustaa... el pi piripipi de la bota enpiná pa parabapapa.....* Ondo pasatu, voz de trueno! Muxuak!



BERGARA
Erik Ezenarro Ostolaza
Martxoaren 25ean, 3 urte.
Zorionak, maitxia! Ondo pasatu zure egunian eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik!



ARAMAIO
Edurne Ormaetxea Arriaran
Martxoaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, Edu! Ze ondo ospatuko douen zure eguna txuleta eta guzti!
Ondo-ondo pasatu eta aber opari asko jasoten dozun!
Mila patxo Basautiko danon partetik!



OÑATI
Ixiar Txintxurreta Maiztegi
Martxoaren 23an, 15 urte.
Zorionak, Ixiar, etxekoen partetik.



OÑATI
Sinfonso Madinabeitia
Martxoaren 23an, 94 urte.
Zorionak, aitona Sinfonso, etxeko danon partetik!



BERGARA
Uxue Iriondo Igarza
Martxoaren 22an, 3 urte.
Zorionak eta muxu bat etxeko guztien partetik.




ELGETA
Jon Markiegi Arenaza
Martxoaren 21ean, 5 urte.
Zorionak, Jon!
Ondo pasatu eta patxo handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
Unax Larrea Gantxegi
Martxoaren 21ean, urtebete.
Zorionak, Unaxito! Gezurra dirudi dagoeneko urtetxoa bete duzunik... Muxu handi bat etxeko guztien eta batez ere Nora eta Anerren partetik. Asko maite zaitugu, pottoko!



BERGARA
Uxue Urriza Aranzabal
Martxoaren 20an, 3 urte.
Zorionak, Uxue.
Muxu handi bat eta egun polita pasa dezazula.



ARRASATE
Irati Bengoetxea Olano
Martxoaren 19an, urtebete.
Zorionak, Irati!
Muxu handi bat zure lehen urtebetetzean amatxo eta aitatzaren partetik!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragariko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Josu Lekuona Martinez de Lahidalga

Eskoriatza. 3,110 kilo. Martxoaren 17a. Gurasoak: Nerea eta Luis Miguel. Argazkian, Josu amarekin.



Beñat Ibarluzea Moreno

Arrasate. 2,770 kilo. Martxoaren 18a. Gurasoak: Olga eta Asier. Argazkian, Beñat amarekin.



Ane Enparantza Judez

Oñati. 2,660 kilo. Martxoaren 19a. Gurasoak: Ainhoa eta Ibon. Argazkian, Ane sehaskan.



Elene Goikoetxea Makazaga

Bergara. 3,170 kilo. Martxoaren 19a. Gurasoak: Ainhoa eta Ander. Argazkian, Elene lotan.



Mikel Etxaniz Santiago

Bergara. 3,480 kilo. Martxoaren 21a. Gurasoak: Olga eta Haritz. Argazkian, Mikel sehaskan lo.

Jaiotzak

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta Interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.



Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Maddi Amozarrain Oلابarria

Aretxabaleta. 3,950 kilo. Martxoaren 21a. Gurasoak: Naiara eta Oier. Argazkian, Maddi aitaitarekin.



Alaia Rodriguez Ondarra

Arrasate. 3,210 kilo. Martxoaren 21a. Gurasoak: Lorea eta Antonio. Argazkian, Alaia gurasoekin.




Yamila Rivas Arantzabal

Arrasate. Martxoaren 19a. Argazkian, Yamila jaio berria sehaskan lo.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Ez geza	Irristakor	Arrainak atzemateko
	Altxoa	* FRUITU LEHORRA	Garia jotzeko gunea
	Laxo		
	Zareten horiet		
Itoiti, itogin	Suge itsu		
Ikusmena galdu du	Oslo, bokalik gabe	Interjekzioa	
		1501	
Alemaniakoa			Bokala
Euskal fonema			
	Idiaren okela		
	Rutenioa		
Oinarritzko edari		Nonbait	
Gipuzkoako hiria		Nitrogenoa	Uranioa
		Lege	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

U	V	A	R	A	N	R	I
N	O	N	I	R	U	R	I
A	K	I	D	I	X	T	
V	N	A	M	A	L	A	
A	R	I	T	U	S	I	
E	R	E	Z	I	Z	I	
R	A	B	A	R	Z	A	
L	A	G	A	L	M	A	
S	L	G					

K	G	V	I	Z	A	N	I
V	A	S	T	R	A	V	
R	M	Z	L	O	X	R	
A	X	M	R	H	U	R	
V	M	Z	B	A	N	A	
X	B	Z	T	I	X	O	
K	A	K	T	X	U	F	
P	A	F	G	E	X	R	
F	A	Z	T	A	I	N	

2	6	9	1	2	7	5	8
4	6	9	1	2	5	8	7
8	5	7	3	6	4	1	9
8	4	3	6	2	1	9	7
5	8	9	7	2	4	6	3
1	2	7	6	3	8	5	4
6	4	3	9	5	1	8	2
2	7	5	1	9	3	4	8
8	9	1	4	6	5	2	7
3	6	4	8	7	2	1	9

SUDOKUA

	6		8				5
8					2		
		5		9	3	4	8
6							7
	2					5	
	8	9	7		4	6	3
	3					7	8
9			5			3	
	5			4	6	9	2

HIZKI SALDA


Topa itzazu bost Fruitu lehor

G	A	Z	T	A	I	N	A	F
A	F	G	E	X	N	Y	K	P
T	X	U	F	A	T	A	A	K
X	B	Z	T	I	X	O	L	N
B	H	E	Z	B	A	N	M	A
A	T	X	M	H	U	R	R	A
R	M	E	X	O	R	L	Z	M
A	I	S	T	R	A	U	L	A
P	I	N	A	Z	I	A	G	K

HIEROGLIFIKOA

Nolakoa izan da bixamona?

aztal
gogorra



Hieroglifikoak:
Latzeta..

AI, ENE!

Okela estaltzeko, okela gehiago

Ezin da zalantzan jarri Lady Gagak tendentzia markatzen duela. Nola ulertu, bestela, hirugiharrez egin-dako bularretako hori? www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Hitz egiteko, etxea garbi-garbi eduki behar da, eta hark kakaz beteta dauka"

BELEN ESTEBAN | TELEBISTAKO PERTSONAIA

Aspaldian isil antean zebilen *herriaren printzesa* (zein herri-takoa galdetu behar...), baina bueltan da berriz, eta ez edozeinen kontra: Pedro J. Ramirez zuzendu zizkion hitzok. Erasotua nor den jakinda, *Ahobero* asko ikusten ditugu epe motzera. **Salvame Deluxe (Telecinco)**

EGURALDIA



Max. 23°

Min. 5°

guzkia jaun eta jabe izango da eta tenperaturak ez du gorabeherarik pairatuko. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2012-03-26

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Africa Baeta Jaiotzez kataluniarra eta sentipenez iruindarra, milaka informatibo ordu ditu bizkarrean pantaila txikiko irribarre distiratsuenetakoa duen aurkezleak; baita pasio bat ere: 'The Boss' | TXOMIN MADINA

"Bruce Springsteenek nire erlijioa ematen dit"

1. Kamera baten aurrean lehen aldia izan zen...

Duela 20 urte izango zen, toki hedabide baterako *casting* batean; hartu egin ninduten, gainera! Oso lotsati gogoratzen dut nire burua.

2. Zer da aurkezle moduan zure burutik gehien gustatzen zaizuna?

Oso kritikoa naiz nire buruarekin, baina, luparekin begiratu gero, gehien gustatzen zaidana da ni neu izaten saiatzen naizela beti, ez itxurak egiten dituen aurkezle bat.

3. Jar iezaiozu titularra egun bizi dugun momentu informatiboari.

Trantsizio historikoa bizi dugu, bai Euskadin eta baita munduan ere. Mundu mailan sostengaezina zen sistema erori da, eta orain, berreraiki egin behar da.

4. Eta egoera horretan, zein izan behar du hedabideen zereginak?

Errealitatea erakustea, egia osoa; eta gai ekonomikoak, medio askotan zaila den arren, era objektiboan. Ikuslea inoiz baino kritikagoa da eta informatuagoa dago; gure lana egia esatea da, ikusleek gertatzen dena ikusi eta erabakiak har ditzaten.

5. Berriki itxi dute Canal 4 Navarra, zure lehen etxea. Lanbidea ez dago poztasun handitarako...

Momentu tristea da, bai gizartean, eta baita kazetaritzan ere. Itxi zutenean, aspaldiko lankideak elkartu ginen, eta gehienak langabezian daude. Gogorra da balio handiko profesionalak lan barik ikustea.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Umeei sufrimendua kenduko nieke"

"Umeei sufrimendua kenduko nieke. Umeak errugabeak dira; ez daude gizartearen edo gizakien makurkeriarekin kutsatuta eta hiltzen direla edo sufrizten dutela ikustea ikaragarria iruditzen zait. Sirian berriki gertatu dena ikusi eta ez erakundeek ezta guk ere ezer ez egiteari injustizia itzela deritzot".

6. Bartzelonan jaito eta hazi arren, iruindartzat duzu zure burua. Nola konkistatu zintuzten?

17 urterekin heldu nintzen ikastera eta uste dut adin horrekin hasten zarela bizitza eraikitzen: senarra ezagutu nuen, familia sortu, lagunak egin... Iruñean hazi nintzen pertsona moduan.

7. Zertan igartzen dira zure sustrai kataluniarrak?

Oso deserrotua naiz, eta arazoa da; nagoen lekukoa sentitzen naiz, une garrantzitsuenak bizitako lekukoa. Akaso, burugogortasunean igarriko zaizkit; xuhurtasunean, ez.

8. Zer ematen dizu Bruce Springsteenek?

Nire erlijioa. 16-17 urtetik jarraitzen dut. Abestietan, bizitza hamarkada bakoitzean gertatzen dena deskribatzen du; oso identifikatuta sentitzen naiz haren mezu eta izaerarekin. Askotan ikusi dut kontzertuan; bira honetan, seitara joango naiz.

9. Iruñean bizi, Bilbon lan. Nola egin ez zoratzeko ekuazioari hiru seme-alaba gehitzen badizkiogu?

06:30etik 01:00ak arte gelditu gabe nabil, baina eskerrak ematen ditut dena egin ahal dudalako. Nabaritzen hasi naizena egunean errepidean ematen ditudan lau orduak dira.

10. Egunen baten ikusiko zaitugu Gaur Egun-en?

Ea hala den! Euskararekin oso traketsa naiz, ikasten dihardut, baina oraindik ez dut menderatzen.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Ez dute konbentzitzen

EHauteskundeetara bidean PPK euskararekin egin du trink; ondorioz, (aurreratu ezean) datorren martxoko hauteskundeetarako estrategian Euskaltzaindiari eta euskarari koipea ematea erabaki du bai hemen eta bai Madrilan.

Egia da ETAREN mehatxuak tarteko, kanpora joandakoek botoa eman ahal izatea ere aztertzen ari dela PPKo Gobernu Zentrala eta egia da, era berean, adi horrek adi-adi jarri dituela adituak, eragin ditzaken ondorioengatik.

Lehen, Euskadiko PPKo kargudunen artean, eman gaitzeko iturritik izanda ere, Iturgaitz entzuten genuen aldi behin euskaraz; gero, inoiz, Garrido; hortik aurrera, kitto, edo hor nonbait.

Euskara dela eta PPre bat-bateko minberatasun hori kalkulu hutsa da, jakina. Erabiltzaileok ez dugu ahazten euskarak amodio-sere-natarik ez, baizik egunero erabiliko duen jendea behar duela, beste edozein hizkuntzak letxe. Nago, omenaldiak omenaldi, Basagoiti, Oyarzábal, M. Oreja lotsaihartua, Quiroga eta enparauak euskaraz natural-natural entzun baino lehen ikusiko dugula ileberiturik Carlos Urquijoren noizbaiteko flekilloa!



BILERA INFORMATIBOAK

Gaztelupe Martxoak 27
18:00, euskaraz

Gaztelupe Martxoak 28
18:00, gaztelaniaz

Almen Martxoak 27
18:00, euskaraz eta gaztelaniaz

BATXILERGOA

ZURE AMETSAK BIZI

www.arizmendi.eu
943 77 20 25

